

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-03-01
EGUBAKOITZA
543. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Ongizateko partida lehenetsi dute

Astelehenean onartu zituzten Bergarako aurrekontuak | 16

Mondra eta Aloñaren derbia domekan da



Elurteak ezuste bat baino gehiago eragin ditu oraingoan Elgetan | 28



Arlaban eta Kurtzetako luizien konponketek luze joko dute | 4



Laburbira martxoan iritsiko da Arrasate eta Aramaioira | 32



MENDITIK OÑATIRA

Debagoieneko Artzainen II. Eguna egingo dute bihar Oñatin; ibarreko artzain eta gazta-egileak izango dira Oñatiko Foruen plazan | 11

Artzain Eskolako Joni Lopez kanariarra arkumea eskuetan duela, Arantzazun, eguaztenean.

BATIS OTAEGI

SINADURAK



ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |
ELKARRIZKETA 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 29 |
KULTURA 32 | ZURE IRAGARKIAK 35 |
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 36 |
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

"Wert legea"-ri ez eta gure hezkuntza sistemari bai esan nahi diogu"



Imanol Zubizarreta
Baikarako kidea | 10

Txakurrekin terapia Oñatin eta Arrasaten

Osasun fisikoan eta emozionalean onurak ditu animalien laguntzarekin egindako terapiak | 2



Antzuolako eskola. | MAIDER ARREGI

Eskolako lehen lanak aurten hasiko dituzte Antzuolan

| 26

Terapia saioetan, txakurrak pozik, nagusiak poziago

- ▶ Txakurrekin terapia ematen du oñatiar batek
- ▶ Oñatiko nagusiekin eta Aita Mennin dira saioak
- ▶ Osasun fisikoan eta emozionalean onurak ditu

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Esperientzia berritzailea –eta arrakastatsua– egiten dabilta Oñatin eta Arrasaten: txakurrek lagundutako terapia saioak. Nagusien egoitzan eta eguneko zentroan hasi ziren irailan; eta Urgainen, Oñatiko euskal eskola publikoan, urtarrila ezker, txakurrekin aktibitate saioak egiten dituzte. Arrasateko Aita Menni ospitalean ere txakurrek lagundutako terapia ematen da. Aukera berria da Debagoienan, eta Oñatiko eta Arrasateko saioak oñatiar batek gidatzen ditu, Ainhoa Villar txakur-hezitzaileak.

Villarrek berak esaten digunez, txakurrekin arlo fisikoa, kognitiboa edo ezagutzarena eta emozionala lantzen dira; eta txakurrekin ibiltzeak zertan egin diezaguzen on azaltzen digu: "Txakurrek terapia egiteko dituzten ezaugarri inportanteenak hauek dira: ez dutela prejuiziorik edo aurre-iritzirik, eta alde horretatik konplexuak lantzen dira; jokoaren bultzatzaileak dira, eta horrekin sozializazioa lantzen da; komunikazioa bultzatzen dute, eta horrela lotsak lantzen dira; eta zentzu askoren eratzaila denez, segun zelako pertsonari, zentzuak lantzeko aukera ematen dio".

Abere maitekorak eta lasaiak
Txakurrak gero eta gehiago erabiltzen dira haiek lagundutako



Emakumea, txakurrari laztan egiten; belauniko, Ainhoa Villar. | LK.

terapia egiteko, batez ere pertsona nagusiekin. Ainhoa Villarren esanetan, "Oñatin oraintxe hasi gara, eta ez da hain gauza ohikoa, baina orain asko entzuten da eta modan dago". Bera betidanik da txakur-zale handia, eta orain dela lau urte hasi zen bere burua txakurrekin lan egiteko prestatzen: "Orain lau urte, Eusko Jaurlaritzak homologatutako ikastaro batzuk atera zituen: Trebakuntza,

Zakur-heziketa eta Jokabide-zuzenketa ikasi nituen. Gero, beste ikastaro eta seminario mordoak egin nituen, eta Animaliekin Lagundutako Terapiari teknika-ri ikasketak ere bai. Horiek dira egin ditudan ikasketak garrantzitsuenak".

Erabiltzen dituen txakurrak berak erakutsitakoak dira. Eguneko zentroko bost emakumeren terapia saioa egiteko, joan



Eguneko zentroko hiru erabiltzaile, Roxi eta Lur txakurrak agurtzen. | LEIRE KORTABARRIA

den martitzenean, bi golden retriever eroan zituen, Lur eta Roxi. Lur adopzioan hartutako txakurra da, arra, Galiziatik ekarria, eta Roxi, emea, Kordobatik ekarri du. Arraza horretako txakurrak asko erabiltzen dira terapia saioetan. Lur eta Roxi gazteak dira eta jolaserako gogo handiz joaten dira Oñatiko eguneko zentrorra; eta, aldi berean, terapia edo aktibitateak egiteko derrigorrezkoa den moduan, lasaiak eta esanekoak dira. Maitekorak ere badira eta pozik agurtzen dute saioeko parte-hartzaile bakoitza.

Jolaserako gogo hori aprobe-txatuta egiten dituzte terapia saioak, Ainhoa Villarrek azaltzen digun moduan: "Terapia saioak beti osasun arloko profesional batek gidatzen ditu; kasu honetan, eguneko zentroko psikologoak, Mari Josek, helburu batzuk ipintzen dizkigu, eta, jolasaren bidez, helburu horiek betetzen saiatzen gara".

Terapia saioak daude, batetik; eta, bestetik, aktibitateak. Horietan, "ekintzak egiten dira eta ez daude osasuneko profesional batek gidatuta; hor ere helburu batzuk betetzen dira, baina zeharka".

ESANAK

"Osasuneko profesional batek gidatzen du terapia"

"Txakurrek komunikazioa bultzatzen dute"

AINHOA VILLAR
TXAKUR-HEZITZAILEA

Bakardadea arintzeko

Txakurrekin lagundutako terapia saio horiek Oñatiko Udalak antolatutakoak dira. Alkateak, Mikel Biainek, honela azaltzen du inizatiba nondik etorri zen: "Jakin genuen Oñatin bazegoela txakurrekin lagundutako terapiari aditu bat, eta gure herriko adineko pertsonekin saiakera egitea interesgarria iruditu zitzaigun. Ongizate Batzordean sartu genuen

Orain
Arrasaten

Benetan **pisua galdu** nahi duzu?

PSE: 37/04



Rosa Sarabia doktorea

PronoKal[®] metodoa
Zientzia eta zorroztasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia – Gosegabezia

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA

BOTOXA – EZPAINAK – MESOTERAPIA

BARIZEAK – HAZIERA FAKTOREAK

BULARRAK – SUDURRA – SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastiko



Txakurrak ere, terapian

- Terapia egiteko erabiltzen diren animaliak ere zaindu egin behar dira. Ainhoa Villarrek dioenez, txakurrek hainbeste esplotatzen dituztenez zenbait lekutan, txakurrok eurok tratamendu berezia behar izaten dute.
- Animaliek lagundutako terapiarekiko kritikoek izurdeen kasua azpimarratzen dute, izan ere, terapia egiteko, euren inguru naturaletik atera eta itxian ipintzeak kalte egiten die.

Freud-ek ere erabiltzen zuen

Debagoiengan txakurrekin egiten diren lehenengo terapia saioak dira Oñatikoak eta Arrasatekoak; dena dela, badaude zaldiekin terapia saioak eskaintzen dituzten aditu batzuk. Zaldiez eta txakurrez gain, astoekin, izurdeekin, txoriekin... ere egiten dira terapiak, eta arrakastaz, beste herrialde batzuetan.



Animaliak giza-osasuna hobetzeko lagun gisa erabiltzeko joera aspaldikoa da. Dokumentatutako lehenengo saiakera XVIII. mendean egin zen, Ingalaterran, eta buruko gaitzak zituzten pazienteekin egin zen. Sigmund Freud psikonalistak ere txakur asko zeuzkan. Bere arabera, txakurra ondoan edukitzeak berba lasaia egiten laguntzen zion pazienteari.



Ahots kritikoak daude

Mundu osoan erabiltzen dira abereak terapian laguntzeko. Horren aldekoen esanetan, nagusiekin, buruko gaitzak dituztenekin, gutxituekin, umeekin eta presoekin, besteak beste, emaitza onak ematen ditu. Kritikoak ere baditu: horien iritziz, epe luzerako onurak dituenik ez dago frogatuta.

ESANAK

"Nagusiak eta familiak oso pozik daude saioekin"

"Zentroan egin dutena etxean kontatzen dute nagusiek"

ITXARO LEIBAR
OSASUN ZENTROKO ARDURADUNA

ESANAK

"Herriko adinduekin saiakera egitera animatu ginen"

"Afektua lantzeko modu egokia eta berritzailea da"

MIKEL BIAIN
OÑATIKO ALKATEA

proposamena, eta begi onez ikusi zen". Beste leku batzuetan adinekoekin esperientzia arrakastatsuak zeudela ere bazekien Udalak, eta eguneko zentroan ere martxan jartzera animatu zen Udala.

Alkateak balorazio ona egiten du: "Adineko jende askok arazo dezente ditu, bakarrik sentitzen da... Alde horretatik, txakurrekin afektua, maitasuna lantzeko aukera egokia eta berritzailea da hau. Adineko pertsona asko monotonian bizi dira, eta maiztasun batekin horrelako ekintzak egitea ona izan daiteke".

Hezitzailea bera ere "pozik" dago, are gehiago erabiltzaileen erantzuna ikusterakoan: txakurrak dagoeneko ezagutzen dituzte, txakurrei laztan egiten dute... Dena jolasarekin eta modu dibertigarrian egiten da. Hala, joan den martitzeneko terapian, bost emakumeetako bakoitzak tresna bat erabili behar zuen txakurrarekin: batek kanpaitxoaz joarazi behar zion txakurrari eta, ondo egiten bazuen, saria eman; beste batek xaboiarekin garbitu

egin behar zuen *Roxi*; hirugarren batek, pasioa eman *Lur*-i eguneko zentrotik; laugarrenak, arotik salto eginarazi; eta, bukatzeko, txakurra eskuilarekin orraztu.

Erabiltzaile guztiei, aukera

Aukera planteatu zenean, eguneko zentrotako erabiltzaileei eta familiei eskaini zieten. "Gura duenak parte har dezake. Horretarako, talde homogeneoak egiten ditugu. Hamabost egunean behin dira saioak", esaten du eguneko zentrotako arduradunak, Itxaro Leibarrek.

Saio horietan egiten dutena etxean kontatzen dute gero eguneko zentrotako erabiltzaileek, zentrotako arduradunak kontatzen digun moduan: "Orain arte, oso gustura gaude; familiek ere oso ondo hartu dute aukera hori, eta esaten digute nagusiek asko disfrutatzen dutela eta, etxera joaten direnean, txakurra etorri dela kontatzen dutela. Gustura ikusten dituzte, pozik; izan ere, ekintza berria da eta, gainera, interaktiboa".

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN AMETSAK

"NAZIOARTEKO PROIEKTU BATEN BITARTEZ IKASITAKOAK PRAKTIKAN JARTZEKO AUKERA IZAN DUT ZAMBIAN".

Maite Aranzabal, Haur Hezkuntzako 4.mailako ikaslea.



PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

GOIERRI · MARTXOAK 16
larunbata, 10:30

ARRASATE · MARTXOAK 21
osteguna, 17:30

Enpresagintza Fakultatea

BILBAO · MARTXOAK 7
osteguna, 18:00

OÑATI · MARTXOAK 9
larunbata, 11:00

BIDASOA · MARTXOAK 16
larunbata, 11:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA · MARTXOAK 7
osteguna, 18:00

ARETXABALETA · MARTXOAK 7
osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 16
larunbata, 10:30

ARETO NAGUSIAN · ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436
WWW.MONDRAGON.EDU/PREST



Luze joko dute Arlaban eta Kurtzetako luizien eraginek

Bi kasuetan, obrak hasi arren ere, bi hilabetez egoera orain dagoen moduan mantenduko dela jakinarazi dute diputazioetako ordezkariak

M. BITERI / U. MADERA | DEBAGOIENA
Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiak oraindik lanean dihardute otsailean izandako denboraleek Arlaban eta Kurtzeta mendateetan eragindako lurjauusiak konpontzeko.

Bi kasuetan otsailaren erdialdean izandako elurteek eragin zituzten luiziak; eta bi kasuetan, bertatik pasatzen den autoen joan-etorria semaforo bitartez dago bideratuta, errail bana itxita daudelako.

Eta jasotako informazioaren arabera, gainera, egoerak bere horretan segiko du datozen bi hilabeteotan.

Arlaban, bideratuta

Hain justu ere, Arlaban mendateari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Bide azpiegitura Sailetik jakinarazi digutenez emerjenziazko prozedura bitartez bideratuta dago kontua, konponketa lanak ahalik eta lasterren has daitezten. Hori horrela, espero dute pare bat aste barru hasteko moduan izango direla.

Hala ere, Diputaziotik azpimarratu dute lanak hasi arren ere, gutxienez beste bi hilabetez Arlabanek orain arte moduan segituko duela; hau da, errail bat itxita eta zirkulazioa semaforo bidez bideratuta. Izan ere, lurjausia gertatu zeneko errepedizatia nahiko arriskutsu dago, eta gainera pareta handiak daude bertan. Eta horren ondorioz, konponketa zail samarra dute bertan egiteko.



Autoa Kurtzeta mendateetik jaisten, semaforoak paso eman eta gero, eguaztenean. | ANDER LARRAÑAGA



Kamioia Arlaban mendatea igotze. | JONE ALBENIZ

Kurtzetan, lurjausi gehiago

Kurtzetako lurjausiari dagokionez, berriz, Arabako Diputazioko teknikariek adierazi dute lurra oso bustita dagoela, eta ezin direla lanean hasi. Jakinarazi dute semaforoak dauden zatian harri-lubeta egin behar dutela, bi tona eta erdiko harriak jarritz. Hori egin aurretik, baina, lurrazala egonkortu behar dute. Hori horrela, obra horiek gutxienez bi hilabete iraupena izango dute. Bestalde, zati horretan ez ezik, Kurtzetako gainetik gertu ere lan egin beharko dute, lurjausiak errepikatu egin dira-eta asteotan.

Koben Eguna dela-eta, Arrikrutzen ekimen bereziak izango dira

Arrikrutzek IV. Koben Eguna ospatuko du domekan, Euskal Herriko beste zazpi kobekin batera. Hori dela eta, sarrerek prezio erdia izango dute, eta ipuin musikatu eta dokumental emanaldiak antolatu dituzte, domekarako eta martitzenerako, hurrenez hurren. Hain justu ere, domekan, 53. galerian 12:30ean eta 16:30ean dira hitzorduak. 6 urtetik gorakoentzako gomendatutako ipuin kontaketa musikatua egingo dute Patxi Zubizarreta idazleak eta Pello Ramirez musikariak. Martitzenean, berriz, *Uraren Taupadak* dokumentala izango da, 19:00etan kultura etxean.

MUko 200 ikasle osasun turismoa izan dute langai

Mondragon Unibertsitateko 200 bat ikasle Arrasateko Garaia berrikuntza gunean ibili dira asteon, zeregin bakar batekin: negozio-idea bat sortzea, EAEko osasun-turismoaren inguruan. Borobil berdea taldearen ideia izan da irabazlea: osasuna modu eroso eta erraz batean hobetzeko mugikorretarako aplikazioa.



GOIATZ ARANA



Joseba Egibar. | Z.V.D.M.

Joseba Egibar
GBBko presidentea

"Espetxe politikari dagokion gestioa batik bat ez da eman"

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Bakea, bizikidetzeta eta normalizazioa, gure Herriaren etorkizuneko erronkak. Gai hori landu zuen eguaztenean Joseba Egibarrek Bergarako batzokian, eta jende ugari bertaratu zen Gipuzko Buru Batzarreko presidenteari eta Legebiltzarrean EAJko bozeramale denak esan zituenak entzuteko.

Zeintzuk dira bakea eta bizikidetzeta bermatzeko bideak?

Bakea eta bizikidetzeta bermatzeko pasa ditugun hamarkadak kontuan izanda, ez da txantxetako kontua. Beraz, gizarteari dagokio, baina erantzukizun handia dugu politikagintzan gabiltzanok balore berri horiek iraganean gertatutakoa atzera berriz gerta ez dadin, printzipio eta oinarri horiek aldarrikatzea.

Zela ikusten duzu momentuko egoera?

Geldirik dagoela uste dut. ETak hartu zuen erabakia, guztiek exijitzez aparte, txalotu egin genuen, bazelako garaia; baina hori izan zen aldaketa nabarmena. Hortik aurrera, estrategia oker horren ondorioek (bai biktinek zein presoek) behar zuten gestioa, batik bat, espetxe politikari dagokionez, ez da gertatu, ez da eman.

Espetxe politika aldatu beharra ikusten duzu?

Organizazio bereko ziren eta diren preso horien erakundeak esan du behin betirako uzten duela bere jardura armatua. Beraz, legeari eta bergizarteratzeari dagokionez, nik uste dut horrek aldaketa nabarmena suposatzen duela.

Nola ikusten duzu EITB?

Mikel Agirrek uko egin dio hautagaitzari; behar adinako botoak ziurtatuta zeuden, eta ekipo baten eskutik gauzatzeko asmoa zegoen. Nik ez dut uste murrizketa kontua izan denik arrazoia. Pertsonalean ez zegoen murrizketa nabarmenik produkzioan, baizik.

Grebaren ostean, bihar normaltasuna bueltatuko da ibarreko egoitzetara

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Gipuzkoako zaharren egoitzetarako deituta zegoen grebarekin bat egin dute Arrasateko, Bergarako eta Eskoriatzako zaharren egoitzetako langileek. Hori horrela, eguaztenetik gaur arte (egubakoitza) gutxieneko zerbitzuak bete dituzte hiru herriotako egoitzetan.

Arrasateko kasuan, Iturbide egoitzan, langileen %60 ibili da lanean otorduetan eta momentu puntaletan; eta %50, gainontzeko orduetan.

Bergarako kasuan, 80 lagun inguruk dihardute lanean Mizpirualde egoitzan eta gehienak dira azpikontrataturakoak, 60 zehazki; gainontzekoak Bergara, Antzuola eta Elgetako udalek osatutako fundazioko langileak dira, eta haiek ere bat egin dute

ELA eta LAB sindikatuek deitutako greba deialdiarekin.

Eskoriatzako Mesedeetako Amaren egoitzan ere hainbat langile greban izan dira.

Oñatiko San Martin egoitzan, berriz, ez dute grebarik egin eta berdin Aretxabaletako GSRn ere. Azken hori kooperatiba da eta negoziatzen ari diren lan hitzarmenak ez die eragiten, kontatu digutenez.

Orain, lan pilaketa

Esandako moduan, gaur da lanuzterako azken eguna, eta bihar bueltatuko dira egunero jardunera. Adierazitakoaren arabera, baina, orain zenbait egun beharko dituzte hiru egunetako greban egin ez diren lanen pilaketari aurre egiteko, garbiketa kontuei, adibidez.



Bagarako ElkarTruke ekimeneko kideak, Bagarako egoitzan. | AMAIA TXINTXURRETA

Onintze Guridi | Bagarako ElkarTruke ekimeneko ordezkaria

"Giza baliabideak eta jakintza trukatzuz beharrak asetzeko aukera eskaini nahi dugu"

Arrasaten jarriko dute postua lehen aldiz, apirilaren 13an, GUREZTATU ekimenaren barruan

AMAIA TXINTXURRETA | DEBAGOIENA
Kontsumo arduratsua eta birziklapena oinarri hartuta, ElkarTruke ekimena lantzen dihardu Bagarak. Material dezente batu dute dagoeneko.

Zer da ElkarTruke ekimena?
Dirurik erabili gabe, ondasun

materialak, giza baliabideak zein jakintza elkartrukatzuz nork bere beharrak asetzeko aukera eskaini nahi dugu. Momentuz, ondasun materialak biltzen ari gara, baina denboraren bankua ere martxan jarri nahiko genuke. Debagoieneko herritar orori dago zuzenduta.

Truke dinamikak gauzatzeko espazioak antolatzea da asmoa. Momentuz, azoka ezberdinetan jarriko dugu trukerako gunea ekimena ezagutzera emateko, baina aurrerago truke espazioak sistematizatzeko da helburua.

Ze material eraman daiteke?

Denetik biltzen ari gara: arropa, oinetakoak, belarrirakoak, liburuak, diskoak, e.a. Norberak etxean behar ez duen hori beste norbaitentzat baliagarri izan daiteke, eta alderantziz.

Momentuz, Bagaran, Huhezin eta Arrasateko Gaztetxean jarri ditugu bilketa puntuak, baina puntu gehiago lotu eta ekimena herri guztietara zabaldu gura dugu.

Eta jasotakoarekin, zer?

Momentuz, postua jarriko dugu azoka ezberdinetan. Materiala trukatzeko aukera egongo da, bai txartelaren truke eta baita etxetik ekarritako beste edozeren truke ere. Hau da, azoka egunetan ere materiala bilduko dugu eta behar edo gustuko duzunik aurkitu ezean, txartelak banatuko dira hurrengo baterako. Lehen aldiz Arrasaten jarriko dugu postua, apirilaren 13an, eta beste azoka batzuetarako ere harremanetan ari gara.

Beste zerbait esatea gustatuko litzaizuke?

ElkarTruke zabalik dago edonorentzat. Orain sei lagun ari gara lanean, baina herri guztietan taldeak sortzea nahiko genuke. Interea izanez gero: elkartruke@bagara.net edo 943 79 68 48 eta 605 73 22 70 telefonoetan.

Saharar herriarekiko elkartasuna erakutsi eta haien eskubideak aldarrikatu ditu Ezker Anitza-IUK

Otsailaren 27aren bueltan, estatu sahararraren aldarrikapenaren 37. urteurrenaren harira mozioa aurkeztu du Ezker Anitza-IUK Euskadiko hainbat udalerritan; besteak beste, Eskoriatzakoan. Haren bitartez, saharar herriari elkartasuna adierazi gura izan diote; sahararren oinarritzko eskubideen babesa eskatu dute; sahararren gatazkarendako "autodeterminazioarako duten eskubidean oinarritutako irtenbidea" eskatu dute, eta, besteak beste, Gdeim Izikeko liskarretan atxilotutako 24 laguneren askatasuna.

Carrefour

GORBEIA



Carrefour
GORBEIA-ra

*60 € baino gehiagoko erosketan eginda, Carrefour Gorbeiarako joan-etorriko AP-1eko autobidea ordaintzen dizuegu.
-Ezinbestekoa da autobideko tiketa aurkeztea.
-Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.

DOAKO
joan-etorria

ARRASATE

ARETXABALETA

ESKORIATZA

Carrefour
GORBEIA

ETXABARRI-IBIÑA

Martxoaren 13ra arte

3x2

3 eraman 2 ordaindu

5.000 produktu baino gehiago
3x2 promozioarekin

%10^{*}

eko

DESKONTU TXARTELA ERREGAIETAN

*60 € baino gehiagoko erosketengatik. Club Carrefour zure txartela aurkeztuz edo PASS Visa zure txartelaz ordainduz.

Urartea kalea - 23 (Alibarra izkina), Foronda, Zurbano eta Arrasateko AVIA zerbitzuguneetan trukagarria.



Apirilaren 15era arte

ZABALIK

AGURNE JULDAIN
http://goiena.net/iritzia/



Otsaila, hilabete beltza

Niretzat otsaila hilabete beltza da. Mendebaldeko Saharako gatazkaren hilabete gogorrenetakoa otsaila da, eta, ondorioz, Inauterietako poz eta algarak tristuran murgiltzen dira. 2013ko otsailaren 27an, 37 urte bete dira Saharak Errepublikar Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zutenetik sahararrek. 37 urte luze daramatzate borrokan beraien askatasunagatik, beraien oinarritzako eskubide bategatik borrokan. 37 urte daramatzate Mendebaldeko Saharan bortxaketak, atxiloketa arbitrarioak, desagerpenak... sufritzen. Ez bakarrik helduak, ez bakarrik emakumezkoak, ez bakarrik haurrak, denak! Mendebaldeko Saharan, sahararren askatasuna aldarrikatzen duen edonork sufri ditzake horrelako ondorioak.

Aurten otsaila hil beltzagoa izan da. Otsailaren 17an, Marokok orain dela bi urte Mendebaldeko Saharako Aaiun hirian gertatutako Gdeim Izikeko istiluen ondorioz atxilotutako 24 sahararren epaiketa sententzia kaleratu zuen. 20 urte baino gehiagoko kartzela zigorra eta 8 gazteri bizi osoko kartzela zigorra.

Gdeim Izikeko kanpamentua helburu bakarrarekin jaio zen: herri sahararraren askapena eta eskubideen aldarrikapena eskatzea. Sahararrek duten eskubidea aldarrikatzeko besterik ez. Marokoko poliziek, berriz ere, kanpamentuan indarrez sartu eta kanpamentua bota zuten. Bertan gertatutako istiluen ondorioz Marokoko poliziak sahararrak atxilotu zituen hauen aurkako inolako frogarik izan gabe. Nola liteke epaiketa bat egotea epaituak direnenganako baliozko frogarik ez badute? Nola liteke epaiketa militarra jasotzea zibilak diren gazteek? Nola liteke inork ezer ez esatea? Non dago Espainia bere erantzukizunari erantzunez? Sententzia honen aurrean non daude Frantzia, Ameriketako Estatu Batuak, Nazio Batuak...? Non daude hitzez sahararrak horrenbeste defendatzen dituztenak, baina ekintzaz ezer egiten ez dutenak?

Nik gutxi egin dezaket, baina gogor salatzen dut egoera, eta indarrez, garrasika, diot: aski da! Sahara askatu!

"Nola liteke epaiketa militarra jasotzea zibilak diren gazteek?"

USTEAK USTE

INAZIO ARREGI | iarregi@goiena.com

Geometria aldakorra

Denboralditxo bat da EAEko gobernu berria hautatu zela eta hemen gaude, 2013ko aurrekontuak onartuko diren ala ez, eta norekin paktatuko ote dituen EAJk derrigor 1.200 milioi euro gutxiagoko gastu mugarekin etorriko diren aurrekontuak. Hainbatek marraztu du dagoeneko eskuina eta ezkerrean bereizten dituen ardatza. Gure herriak, ezkerretik edo eskuinetik aztertu daitezkeen arazoez aparte, bere izaerari eta erabakitze ahalmenari dagozkionak ere baditu. Nekez egingo dute bat esker-eskuin ardatzaren alde batekoek edo bestekeok erabakitze eskubidean, kartzela transferentziak onartzen edota estatuko indar polizialak guretik ateratzeko exijitzen. Erpin gehiegi politika linealerako.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Ahotik belarrira

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Merkatuak, marketing kalkulatuak, propaganda etengabeak ez dute zapaldu literaturak eta zineak izan duten zabalkunderako bide leial fidagarriena: ahotik belarrirakoa.

Zure ahotik nire belarrira, eta niretik harenera: "aparta, benetan!", "ez aukera galdu!", "ez zaik damutuko!".

Propagandaren bozgorailuak iragarritako mauka asko gorotz hutsa baitira, errezeloz hartzen ditugu.

Ez gara fidatzen. Ahotik belarrirakoak, ordea, iturri ezagun fidagarrietatik baitatozkigu, gutxitan egiten digute kale.

Eta espero genuena betetzen ez bada, aukera izaten dugu, propagandarekin ez bezala, kontuak eskatzeko liburu edo film txar baten gomendioa egin zigunari: "Motel, motel, benetan gustatu zaik lehengoan aholkatu hidan bizkotxada?".

Gure bihotzetan eta oroimenean iltzatuta geratu diren liburu eta pelikula gogoangarrienak ahotik

belarrira iritsi izan zaizkigu.

Lagun bat zegoen aholkuaren atzean.

Wert erreformaren aurka... zatiturik

Mikel Garcia Idiakez
http://argia.com/blogak/mikel-garcia/

Wert erreformaren kontra eta euskal hezkuntza sistema propioaren alde daude denak, baina ez bat eginik.

Euskal Herriko hezkuntza eragileek agiria kaleratu zuten, LOMCE legearen zentzugabekeria salatuz. EHIGE, BIHE, Sarean, Ikastolen Elkarte, Erkide Irakaskuntza, Sortzen-Ikasbatuaz, Kristau Eskola, Bidelagun, Ikasle Abertzaleak, EIB, Eliz Barrutiko Ikastetxeak, Ikasgiltza, Hetel, Ikaslan, Euskararen Gizarte Erakunde Kontseilua, Hik Hasi eta CCOO eta UGT sindikatuek egin dute bat.

ELA, LAB eta EILAS sindikatuek, ordea, beste bide bat hautatu dute.

Dirudienek, murrizketen gaia da desakordioaren arrazoi nagusia.

LOMCEren kontrako aldarrian hezkuntzari egindako murrizketa ekonomikoak ere kontuan hartzea nahi zuten sindikatu nagusiek, baina bi gai ezberdin direla hobetsi zen agiri bateraturako negoziaketetan.

Ondorioa? Herriarri harridura eta nahasmenerako, sindikatu abertzaleek sinatu ez duten agiria batetik, eta sindikatu horiek deitutako manifestazioa bestetik.

Denak ildo bertsuan doazela baina "irakurketa propioa" egin dutela erantzun du ELAk, eta hezkuntza eragileen agiria "irakurketa tekniko eta partziala" dela gaineratu du LABek.

Elkar harturik indar handiagoz mobilizatzeko aukera galdu izana pena da, zalantzarik gabe.

Kurioski, batzuk zein besteak hezkuntzari ezarritako -eta ezarri nahi zaizkion- murrizketen aurka daude, eta funtsean, denak daude Espainiatik inposatutako hezkuntza eredu atzerakoi, baztertzaila, adoktrinatzaila, elitista eta zentralizatzailearen kontra.

Bat egiteko ezintasuna gailendu da baina.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala

Bergarako Udala

Oñatiko Udala

Arexabaletako Udala

Eskoriatzako Udala

Antzuolako Udala

Aramaioko Udala

Elgetako Udala

Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Xalanan egunerokua (3)

Irati Alberdi eta Ana Moñux
Bergara

Eskerrik asko, nere loa ahots goxoz kulunkatziarren, bizitza malkartsu suertau danian lurrikaren dardaria leuntzen egon zalako.

Eskerrik asko, nahi beste kolore nereganatzen lagundu izanagaitxik; afiziñuak desiuakin bakarrik daukala zerikusixa esatiarren.

Eskerrik asko, espilura begiratzian, naizen modukua onartzen laguntziarren, ez dagolako nere gorputza dan modukua baino gauza politxauik. Askatasuna txilixuan topauko nebala azaldu zoztazun, plazerra nere baitxan aurkitzen zala behin eta berriz errepikatzen. Ez beste iñun.

Eskerrik asko, emakume, isiltasunian ezkutatu zaitxuen arren, belaunaldiz belaunaldi utzi dozun herentzia inportantiagaitxik.

Aintzane Oiarbide, errauskailuak eta minbizia (3)

Ander Lizarralde Lizarralde
Oñati

Kaletik noa. Hotz egiten du. Hara! "Goiena kafetegia". Bertan sartu naiz. Emakume bat aurkitu dut mahai batean eta kafe batera gonbidatu nau. Bergarra da. Errausketazale amorratua. Berari utzi diot ordaintzen. Hauek badaukate nahikoa diru! Kafeari bota diodan azukarilloaren papera bereizi egin dut, birziklatzeko. Berak ez du hala egin. Kafeari lagutzeko zigarroa piztu dut. "Milaka" dioxina biriketara! Errauskailuen eta minbiziaren arteko loturaz prentsan idatzi dituen astakerie erantzuten hasi natzaio:

"Minbizia bezalako gaixotasuna inolako arrazoirik gabe beldurra sartzeko erabiltzeak ez du izenik"; "Europako herrialde aurreratuenetako biztanleak desiratzten daude minbizia pairatzeko!"; "Errauskailuen aurka dabiltzan bitartean, erretzaileak zigarroa lasai asko erretzen ari dira dioxina kantitate milaka aldiz handiagoa barneratuz". Horra otsailaren leian idatzi zenituenak. Bi aldiz pentsatu gabe egindako baieztapen mingarri horien aurrean atzera egin beharrean, idatzitakoaz hausnartu beharrean, bibliografia mediku-zientifikoa pixka bat erreparatu beharrean... otsailaren 22ko GOIENAn: *"Nire idatzian jartzen nuena berretsi egiten dudala esan nahi dizut"*.

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak bame). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Otsailaren leian esandako guztia "berresten" duzula, alegia! *Rektifikatzea* zegokizun. Baina *ratifikatu* egin duzu.

Badirudi arazorik gabe onartuko zenukeela errauskailu "moderno" bat Bergaran eraikitzea. Ikus dezagun zezenaren adarrak bistaratzean zure alderdikideek erakutsi zuten jarrera

Zubietan baino lehen, beste leku batzuetan saiatu ziren errauskailua eraikitzen. Lehenengo aukeratua Urnieta izan zen. Bertako PNVko ordezkariak errauskailua bertan egitearen aurka agertu ziren. Ondoren, Landarbaso aukeratu zuten (Astigarraga eta Hernani artean). Astigarragako eta Hernaniko PNVko ordezkariak errauskailua bertan egitearen aurka agertu ziren. Azkenik, Zubieta aukeratu zuten. Usurbilgo eta Lasarteko PNVko ordezkariak errauskailua bertan egitearen aurka agertu ziren.

Errauskailuei, batzuek, ez diete inolako arazorik ikusten. Oraingo errauskailuak "modernoak" baitira; punta-puntako teknologia baitaukate; filtro oso onak baitituzte. Oraingo errauskailuak Europako "herrialde aurreratuenek" dituztenen tankerakoak baitira; ez baitute batere arriskurik; oso seguruak baitira.

Etxe ondoan eraikitzeko proposamena iristen den arte!

Bosgarren edukiontzia = errauskailua = kantzerra.

Debagoienean nahi al dugu errauskailurik? Ez? Ba, Zubietan ere ez dute nahi.

Gora, Aretxabaletako Aratusteak!

Zigor Quintanilla Elkorobarrutia
(Aretxabaletako Kultura zinegotzia)
Aretxabaleta

Pasa den otsailean Aratusteak ospatu ditugu eta beste behin aretxabaletarrok erakutsi dugu irudimenean ez garela makalak. Aurten ere kaleak kolorez bete ditugu, eta, umorea eta jai giroa elkartzuz, eder bihurtu ditugu aurtengo Aratusteak.

Zorionak, benetan, aretxabaletar guztioi, jai hauen protagonista nagusiak zuek

zarete eta. Mundialak zarete!

Gure eskerrik beroenak jai hauek antolatzen lagundu duzuen guztioi: Santa Ageda neska-mutilak, Leizarra Musika Eskola, Aretxabaletako Txistu Taldea, herriko ikastetxeak, guraso elkarteak eta, bereziki, Karnabalen Lagunei, ederra benetan zuen lana. Gora, Txapel Txin!

Eskerrak eman nahi dizkiegu ere Aratusteen antolaketan ibili diren Kultura teknikariei eta Udaleko langileei, zuen lanari esker dena ondo atera da eta.

Bukatzeko, badakigu zer hobetu ere egongo dela; horregatik, iradokizunik edo hobetzeko ekarpenik izatekotan, idatzi beldur gabe *kultur@aretxabaleta.net* helbidera edo jarri gurekin harremanetan. Benetan eskertuko ditugu ekarpen horiek.

Besterik gabe, zorionak, berriz ere, aretxabaletar guztioi!

Oñatiko Inauteriak 2013

Arkaitz Bengoa, Maite Irizar eta Lierni Olmedo

(Oñatiko Inauterien lantaldea)
Oñati

Idatzi honen bitartez eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiogu aurtengo Oñatiko Inauteriak posible egin dituen jende guztiari.

Eskerrik asko, proiektu berri hau sortzen eta eratzen lagundu diguzuen guztioi: Iñaxio Ibarrondori, Gerardo Elorzari, Lezuri Ormazabali, Mirari Sagarzaruri, Itziar Arkauzi, Oier Araolazari, Iñaki Olalderi, Pake Lekuko kideei eta Makalena antzerki taldeari. Baita Udalarari ere, bultzada handia eman baitio Inauteri propio honi. Eta nola ez, Oñatz dantza taldeari eta herriko musikariei.

Azkenengo egunetan bezala, 2013ko otsailaren 9an ere eguraldia izan genuen protagonista. Ikusmin handia geneukan zer tokatuko zitzaigun ikusteko, baina 11:30erako gertu geunden 200 herritar Oñatiko kaleak kolorez, musikaz, dantzaz eta alaitasunez betetzeko, hori baitzen gure helburua, egun zoragarri bat elkarrekin pasatzea, eguraldiari aurre eginez. Baita lortu ere!

Goizeko ekitaldian, norbaitek indar barik geldituko zela pentsatu bazuen, oker zebilen, eguerdirako Gaztetxean sorpresa galanta baikeneukan. Trago bat hartzeko geldialdia egin eta hara! Mahai luze bat janariz beteta! Eskerrik asko, detailearengatik!

Bazkalorduan ere giro ezin hobea izan genuen, eta kafea hartzeko momentua izan zen guretzat sorpresa momentua. Partaide batzuek bultzatu bazuten ere, partaide guztien artean bertso batzuk kantatu zizkiguten geure lana eskertzeko eta goraiatzeko. Oso polita benetan! Bat baino gehiago emozionatu zen... Bestetik, aipatu beharra dugu, lan handia egin dugun arren, zuetariko bakoitzarengatik izan ez balitz, ez litzatekeela larunbatekoa hain egun ederra izango!

Arratsaldean, azkenik, eguraldiarekin borrokan aritu ginen arren, egunari bukaera ederra eman genion!

Honegatik guztiagatik, eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera parte hartu duzuen guztioi, eta espero dugu hurrengo urtean ere Oñatiko Inauterietako saltsan berriz ikusiko zaituztegu.

Datorren urtera begira, berrikuntza gehiago sartuko ditugu, hala nola pertsonaia gehiago, gremioak... beraz, modu batera edo bestera, irteteko gogoz gelditu zaretenok animatu eta, posible bada, eskutik helduta beste lagun bat ere ekarri!

Azkenik, jakin Inauteri honen sorkuntza bizirik dagoela eta herriko pertsona eta agenteen proposamenak jasotzeko ateak irekiak dituela. Horrela, bada, edozein ekarpen egin nahi duenak, mezu (*inauteriakonati@hotmail.com*) edo Facebook (*Oñatiko Inauteriak*) bitartez egin.

Barkamena eskatzen dizut, Isabel

Eñaut Portuondo
Arrasate

Ez zen nire intentzioa ez zuri ez zure familiari minik eragitea; beraz, barkamena eskatzen dizut, Isabel. Zure ama estimu handienean

daukagu mondragoetar gehienok eta ez nuen berarekiko errespetu faltarik adierazi nahi izan. Nire aurreko eskutitzean halako zantzurik egonez gero, mesedez, barkatu. Mondragoetarrok benetan tristura handia eraman genuen, bizitza guztian zehar semea kartzelatik kanpo ikusteko gogor borrokatu ondoren, amets hori burutu gabe joan zenean.

Horregatik, mondragoetarron aldarria da ETari egiten diogun eskaria; behingoz, orain urte asko hartuta izan behar zuen erabaki zaila lehenbailehen hartu dezala. Behingoz, onartu dezala estrategia militarra estrategia okerra izan dela. Behingoz, disolbatu dadila. Ez bada ere, gaur egun kartzelan daudenen ama bat gehiago ez dadin joan seme-alaba etxean ikusi barik.

Zaborren erabakia eta parte-hartzea

Mikel Uribebebarria
(EAJko Udal Taldearen izenean)
Aretxabaleta

Aretxabaletako Udal Gobernuak zabor bilketa sistemaren inguruan otsailaren 20ko prentsaurrekoan esandakoaren harira, geure haserrea adierazi nahi dugu. Bertan esandakoaren arabera, Aretxabaletan atez ateko zabor bilketa sistema ezarriko baita. Atez ate bezala ezagutzen dugun bilketa sistema ei da helburuak ziurtatu ditzakeen bakarra.

Erabaki hori ez da batzordeetan besteokin eztabaidatu, eta okerragoa dena, prentsaurrekoa egin zen egun berean jakinarazi zitzaigun erabaki hau, mezu elektronikoko baten bidez. Horrelako jokabideek agerian uzten dute ez dagoela ez gainontzeko udal ordezkariekin ez eta herritarrekin eztabaidatzeko borondaterik. Parte hartze prozesu bezala saldu nahi den prozesu hau oso bestelakoa da.

Benetan herritarren iritzia jakin nahi badugu, beraingana zuzentzea beharrezkoa da (Udala herritarrengana eta ez alderantziz), gure planteamenduen aurkakoak izan daitezkeen iritziei beldurrik izan gabe. Bosgarren edukiontzia erabiltzaileetatik edo honen alde sinadura eman duten 1.700 pertsonengandik hasi, herritarrekin atarteetan batzartu, herri galdeketa...

Egoera honi buelta emateko garaiz gaude. Horretarako, atez atekoaren aldeko erabakia atzera botatzeko eskatzen diogu Udalarari. Araza eta helburuak birplanteatu, helburu >

horietara iristeko aukera guztiak mahai gainean jarri, eta denon artean adostasunak bilatzeko proposamena ere luzatzen diogu.

Abiapuntu bezala bosgarren edukiontzia bultzatetik hasi beharko genuke, hau baita ezarrita daukagun azpiegitura, eta berorren erabiltzaile garenok badakigulako praktikoa izateaz gain, gaika sailkatze portzentaje ezin hobeak ahalbidetu ditzakeela gauzak ganoraz eginez gero. Denbora eta lana beharko dugu herritar guztiengana heltzeko, guztiak sensibilizatzeko, baina epe luzera emaitza askoz sendoagoa izango da.

Bukatzeko, aretxabaletar guztiak Arkupetik pasatu eta bosgarren edukiontzirako izena ematera animatu nahi nituzke. Gure esku dago norabide hau aldatzea.

Bedoñari buruzkoari zuzenketak

Aitor Antxia Leturia eta Juan Carlos Bengoa Munduate (Txartyn de Basterbero Taldea) Aretxabaleta eta Eskoriatza

2013ko otsailaren 8an GOIENAn Bedoña elizateari buruz agertutako informazioari erantzunez dator idatzi hau. Zuzenketa batzuk egin aurretik, aitortu beharra dago, atez atekoak betetzen dituen orrien artean, horrelako artikuluek haize freskagarria ekartzen dutela.

Lehen baieztapena: *"Eta, noski, Bedoña Arrasateko auzoa da"*. Zer esanik ez, gaur egun bai, baina non dago *"noski"* horren froga? Hiribilduak aipatzen ditu artikulua, jakin ezazue 1260. urtean Arrasate Leintz Bailara utzi eta hiribildu bihurtu zela; urte batzuk geroago, Leintz Gatzagak joera bera eduki zuen, eta handik aurrera Leintz Bailarak bere 17 gunerekin jarraitu zuen, Bedoña barne. 1630. urtean Felipe IV.ak *"mankomunitate hura desegin zuen arte"*. Ze mankomunitate? *Mankomunitate* hitza erabiltzea baino egokiagoa da *komunitate* hitza erabiltzea. Komunitate hori bailara osoa zen, Leintz bailara. Komunitate hori ez da desegiten, banandu baizik, gaur egun Aretxabaleta eta Eskoriatza izenarekin ezagutzen ditugun zonatan banandu zen, baina lehenago zuten funtzionamendu berarekin.

Eta hau lotzen da hurrengo aipatzen denarekin: *"Orduan auzoa Aretxabaletako administraritzaren mende geratu zen"*; hori horrela ez da, elizate denek, eta egitura horretan Aretxabaleta beste elizate bat zen, eskubide eta

funtzionamendu bera zuten, Bedoñak ere bai. Horrela izanik ezin da esan Arrasatera bueltatu zirenik, sekula ez zirelako Arrasate izan.

Arrasatearrak sentitzen zirela ere esaten da; hori neurtzea ez da erraza, orduan sentitze hori bakoitzaren auzo edo elizatearekin lotuta zegoelako, zerbitzuak hirigune baten edo bestean erabili arren. Aretxabaletarenganako aurkako zuten jarrera hori ez dakigu gaur egungoek bizi izan duten ala lehenagoko batzuen koskatxoren bat den.

Espedientea ireki, azpizana landu eta 1966an Bedoña Arrasateren menpera pasatu zen. Erreferenduma egin zen eta gehiengoa Arrasatekoaren alde atera zen. Hurrengo egunetan agertu zen Aretxabaletako Udaletxean bedoñar askok sinatutako idatzia, zera esanaz, erreferendum horretan Beñat Etxeparek esaten zuen bezala, *"orain dute porogatu engainatu zirela"*.

Eta bukatzeko, ez zaigu orekatua iruditu Malberi 15 lerro eskaini eta poeta aretxabaletarrari, Loramendiri zapi lerro besterik ez, eta, gainera, bere argazkirik ez da agertzen; omenaldia berari eskaini zitzaion, ez obispuari. Baina bueno... hemen idatzita geldi dadila *"scripta maneat"*. Agur bero bat.

Alkatearen ardi beltzak eta birziklatzea

Josu Leturia (Bergara Garbia Herri Plataforma) Bergara

Baieztatu egin da. Uste genuena. Atez atekoaren kontra eta bosgarren edukiontzia alde gauden bergararrok "ardi beltzak" gara Bergarako alkatearentzat.

Komentario horrek argi uzten du gure herriko agintari gorenak pentsatzen duena. Atez atekoaren kontra sinatu zuten 4.691 lagunak gutxiesteaz gain, beste iritzi bat agertu zutenak "ardi beltz" moduan tratatzen ditu. Izan ere, atarteetan izan diren batzarretan, eta, alkatetzak dioenaren kontra, inposatu nahi diguten atez atekoaren kontra azaldu ziren gehienak. Beraz, ez esan "ardi beltza", baizik eta "ardi beltzak", Bergaran asko gara eta. Bestalde, atentzioa ematen du alkateak erakusten duen harridura "herritarren ia %100 birziklatzearen alde" dagoelako.

Zer uste zuen, bada, alkateak, atez atekoaren aurka gaudenok ez dugula birziklatzearen alde egiten eta haiek bakarrik daudela horren alde? Nondik atera dute ideia hori? Beste behin ere, uste dute eurak iristen diren lekuan argia egiten dela.

Euren ideiekin bat ez datozenek ezin dute birziklatzearen eta ekologiaren alde egin, eurek deskubritu berri dituztelako. Argi eta garbi esanda. Eta horixe transmititu nahi diote iritzi publikoari, aurkezpen *glamourosoak* barne. Gezurrak, barra-barra. Hau ez da onargarria; are gehiago, Bergara Garbia Herri Plataformatik behin eta gehiagotan eskatu diogunean bosgarren edukiontzia jartzeko, birziklatzeko.

Bada, birziklatzearen alde dauden bergarar gehienek adierazi dutenaren arabera, gobernatzeko gaituztenek har dezaketen ekimen egokiena izango litzateke bosgarren edukiontzia jartzea, probaldi bat ezarrita.

Eta gehienok atez atekoaren kontra eta birziklatzearen alde gaudela zalantzan jartzen badute, gaiaren gaineko kontsulta bat dei dezatela, eta gehiengoa atez atekoaren alde agertzen bada, onartu egingo dugu.

Eta zuek, alkatetzatik, zuen jarrera demokratikoaz hain harro zaudetela, onartuko duzue?

Kontuz! Denak ez du balio konpostatzeko

Juan Karlos Garitano Arrasate

Harrituta ikusten dut nola Bilduko arduradun politikoez auzo-konpostaren ezarketa bultzatzeko erabaki duten "denak balio duela" konpostatzeko. Dirudienez, *zero zabor* delakoa lortzeko erakusten ari diren neurrigabeko antsia horrekin.

Hau da, eurek diotenez, animalia-jatorriko hondakinak ere erabil daitezke konpostatzeko (haragia, arraina, arrautzak, gazta, esnea, maionesa, etab.) landare-jatorriko hondakinak murriztu beharrean.

Zortzi urte baino gehiago daramat konpostatzen, bere garaian Diputazioak ateratako *Banakako konpostatzea egiteko eskuliburua* jarraituz, eta argi eta garbi aholkatzen zuten sukaldeko animalia-hondakinak ez erabiltzeko konposta egiteko. Baina Bilduk aldatu egin digu eskuliburua.

Argi ikusi zen Europak 1999an eta 2001ean jasandako elikadura krisietan (dioxinak pentsuetan, zerrien izurritea, sukar desberdinak, *behi eroena*...) sukaldeko hondakinak eta animalien beste azpiproduktu batzuk gaitzak eta intoxikazioak zabaltzeko faktore arriskutsuak zirela. Horregatik, europar komunitateko agintariek

erabaki zuten animalia-jatorriko azpiproduktuen erabilera hau arautu egin behar zutela 1069/2009 araudiaren bitartez. Araudi honek zehazten du pertsonen kontsumoan erabiliko ez diren hondakin organiko horiek nola kudeatu behar diren.

Hainbat ikerketak frogatzen dute animalia-jatorriko hondakinak konpostatzea arriskutsua dela konpostegietako langileendako eta inguruko bizilagunenendako. Horregatik, aipatutako europar araudia oso zorrotza da sukaldeko hondakinekin, oso baldintza estuak ezartzen baititu, betiere, bio-hondakinaren higienizazioa eta konpostaren kalitatea bermatzeko.

Gainera, sukaldeko ateratako animalia-hondakinaren kalitatea askoz ere txarragoa da, bio-hondakin hauek ustelkorragoak dira, ur, koipe, proteina eta gatz kopuru handiagorekin, eta konposta gaziagoa izaten da. Beraz, konpost honen erabilera oso mugatua izaten da lorezaintzan, baratzeetan eta paisajismoan.

Alderantziz, landare-jatorriko bio-hondakinekin egiten den konpostak ez du aipaturiko araudia bete behar eta bere erabilera egokiena da ongarrri moduan.

Beste arrisku erantsi bat dauka konpostatze ontzietan haragi eta arrainen hondakinak sartzea: arratoiak. Oso zaila da arratoi temoso batek zulatuko ez duen konpostatze ontzi bat ekoiztea.

Europar adituen aholkuz, "konpostatzea, landare-jatorriko hondakinekin egin behar da soilik", eta horrela egiten dute Flandrian, Herbehereetan, Alemanian eta Austriako eskualde askotan.

Arrazoi hauek Arrasateko Udaleko Ingurumen Batzordean azaldu nituen, aipaturiko arriskuaz ohartaraziz, baina bere presidenteak, Josu Peredak, ez zituen aintzat hartu. Horregatik, gutun hau argitaratzea erabaki dut.

GI-632 errepidia eta Antzuola

Xabier Legorburu Igarza Antzuola

GI-632 errepidian lanak nolakuak izango dien eta gure herrixan eta ingurunion eukiko daben eragiña herritarroi azaldu asmoz, ekitaldi irekixa antolatu zeban pasa dan urtarrillan 30erako Gipuzkoako Foru Aldundixak Antzuolako Olanan etxian. Txalotzeko ekimena.

Hala eta be, azalpenetan jasotako informaziño batek ziharo kezka nindduen.

Jakiñekua giñuan errepede berrirak Antzuolan ez dabela

irteera-sarreraik eukiko, Antzuolarako irteera-sarrerak Deskarga eta Bergarako lotunetan egongo diela. Baiña oin, proiektua aldatu eta Deskargako lotuniak zentzu bakarra izatia aztertzen ari dia Aldundixa eta Udaletxia.

Deskargako lotunia zentzu bakarrekua izanda, Antzuolatik Urola-Goierri aldera bagoiatz Deskargan sartzeko aukeria egongo da, baiña alderantzizko zentzuan, Goierri-Urola aldetik Antzuolara bagatoz, bi aukera izango dittu: Urretxun irten eta Deskarga guztia oingotxe moduan pasau edo Bergaraino joan errepede berrittik eta han irten eta oingo bidetik berriz Antzuolara bueltau. Bigarren aukera hau hartuz gero, egunero 5 kilometro gehixau eukiko giñuzke. Egunero 5 kilometro, batanaz beste urteko 1.080 kilometro dia. Kilometro estra honek kostu haundixa suposaten dosku bai denbora, diru, arrisku zein airera jaurtitzen doun kutsadura mailan.

Aldaketa asmo hau Antzuolako Udalak autobusa herrigunetik etartzeko ideiak sortu dau. Hontarako Supide parian rotonda bat ein bihar da eta horretarako Aldundixan laguntza ekonomikua bihar dau.

Nik ez daukat zalantzaik: lehentasunak finkatu bihar badia ni Deskargako lotunia zentzu bikoitzekua ittian aldekoa naiz. Deskargako lotunia zentzu bikoitzekua ez bada oin itten, sekula santan ez da eingo. Supideko rotondia, berriz, lehenau edo beranduu eingo da.

Bestalde, zeaittik aukeraketa ein bihar dou? Antzuolak ez dauka bi premiña? Ez al dou bi premiñendako erantzun egokixak merezi?

Antzuolarrok urtiak itxoin bihar izan dou Gipuzkoakin bide egoki baten bidez lotuta egoteko. GI-632 errepidiak ez dauka irteera-sarrera zuzenik Antzuolarako, eta, hala eta be, Antzuolak zuzen-zuzenian jasango dau Gipuzkoa osua inguratzeo errepidiak sortutako kalte ekologiko eta paisajistikuak.

Bestalde, lanek gure eguneroko bizitzan sortuko dosku makiña bat kalte be hor eukiko dittu: kamioiak, errepede mozketak, hautsak, e.a.

GI-632 errepidian kostua 48 milloi eurokua ei da. Zenbat kostatzen da Deskargan lotune bikoitza ittia? Eta Supideko rotondia?

Egunak aurrea doiatz, errepede berrixa itteko lanak hasi dia, baiña oinddio ez dakiu ezer Deskargako lotuniakin zer gertauko dan.

Alkatiak herritarroi deialdixa ein eta danon artian erabakixa hartzeko asmua doala esan zeban. Aprobetxau daigun aukeria berandu izan baiño lehen.

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



Hauek dira irabazleak!

Hauek dira OTSAILEKO SARI hauen guztien IRABAZLEAK izan diren GOIENA KLUBeko bazkideen izenak:
ZORIONAK, GUZTIO!

ARRIKRUTZ KOBETARAKO 10 SARRERA*

(bina sarrera pertsonako)

- Ramon Ugalde Arrieta (Elgeta)
- Maite Arana Osinaga (Arrasate)
- Alberto Trojaola Larrea (Aretxabaleta)
- Floren Arana Barandiaran (Arrasate)
- Maider Perez Martinez (Eskoriatza)

AISIA DEBA HOTELEAN**

2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala

- Yolanda Cebrian Arregi (Antzuola)
- Iñaki Zabaleta Etxeberria (Arrasate)
- Ramon Latorre Etxaniz (Bergara)

2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua)

- Amaia Bengoa Beloki (Eskoriatza)
- Amagoia Barrutiabengoa (Arrasate)

PETER PAN MUSIKALAREN 15 DVD**

- Jon Balentziaga Larrañaga (Bergara)
- Mikel Unamuno Aiausti (Arrasate)
- Iñigo Eguren Konde (Bergara)
- Loli Zeziaga Bengoa (Arrasate)
- Jose Luis Carnicero (Bergara)
- M. Angeles Arriolabengoa (Aramaio)
- Xabier Zabala Urriategi (Bergara)
- Atxen Mungia (Arrasate)
- Agurtzane Lete Larrañaga (Bergara)
- Purita Garzia (Bergara)
- Oskar Vitoria Gallastegi (Arrasate)
- Jose M. Iñarra Kortabarria (Arrasate)
- Resu Lasagabaster Beitia (Aretxabaleta)
- Edurne Iñarra Bastardo (Arrasate)
- Itsaso Lazpiur Ibarzabal (Bergara)

NAFARROAKO (LIZARRA) AROA UPATEGIAN**

Bisita gidatua eta bazkaria 4 pertsonarentzat

- Nere Unamuno Lekuona (Gasteiz)
- Jose Luis Aizpurua (Bergara)

12 kaxa ardo ekologiko.

- Iñaki Bellido Garcia (Oñati)
- Fernando Karasatorre (Bergara)
- Maria Eugenia Aranburu Arregi (Oñati)
- Jesus Egin Zabaleta (Bergara)
- Karmele Ilarduia Garitano (Aretxabaleta)
- Jon Balentziaga Larrañaga (Bergara)
- Pilar Uranga (Arrasate)
- Julian Errasti Azurmendi (Arrasate)
- Mikel Alberdi Larrañaga (Oñati)
- Uxue Zabaleta Arin (Bergara)
- Aitziber Astola Elorza (Arrasate)
- Ihintz Bengoa (Arrasate)

SARIAK JASOTZEKO

* **Arrikruzeko sarrerak.** Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute.

ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00
Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 – 17:00

** **Beste sariak.** Saria jasotzeko pasa zaitzete mesedez, GOIENA Komunikazio Taldeak, Aretxabaletan duen bulegotik. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN txartela erakutsi edota bazkide zenbakia jakitera eman beharko da.

GOIENA. Basabe poligonoa E-0-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta. 943 25 05 05
Orduetgia: Astelehenetik ostegunera: 09:00 – 18:00.
Ostiraletan: 08:00 – 14:00.

DESKONTUAK: www.goienakluba.com



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

Imanol Zubizarreta | Baikarako kidea

"Hezkuntzako eragileok 'Wert legea'-ri ez eta gure hezkuntza sistemari bai esan nahi diogu"

- ▶ Raxoiren Gobernuaren hezkuntza lege berria uniformatzailea dela dio Baikarak
- ▶ Zubizarretak salatu du "Madrildik zehaztuta" datorrela curriculumaren zati bat

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Hezkuntza Kalitatearen Hobe-kuntzarako Lege Organikoaren aurreproiektuak hautsak harrotu ditu. *Wert legea* bezala ezaguna dena "uniformatzailea", baztertzaila eta euskarari kalte" egiten dion proiektua dela diote hainbat hezkuntza eragilek eta baita alderdi politiko gehienek ere. Gipuzkoako ikasleen gurasoen elkarteak, Baikarak, berbaldia eman du gaiaren gainean Arrasaten, eta elkarte horretako ordezkaria da Imanol Zubizarreta. *Goiena* magazinea-n elkarrizketatu du Txomin Madinak oraingo astean. Orrialde honetara ekarri dugu elkarrizketa.

Azaldu, labor-labor, zer dioen Espainiako Gobernuak indarrean jarri nahi duen hezkuntza lege berriak.

Lehenengo esan behar dena da hankaz gora jartzen duela gure hezkuntza sistema. Egia da, egitura nagusiari dagokionez, oraingoari eusten diola: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa eta Lanbide Heziketa dagoenetan mantentzen dira. Baina aldatetako daude etapa bakoitzean. Esaterako, Lehen Hezkuntzako bi zikloak desagertzen dira eta mailaka antolatzen da. DBHn dira aldateta nabarmenak: lehen bi mailak oraingo berdinak dira; hirugarrenean, aukeratu behar dute Matematika LHra joateko edo Batxilergo joateko, eta laugarren mailan, nor bere ibilbidea egiten du, berezitu egiten da. Ikusten dugu bide bat ikasle batzuk baztertzeko.

Curriculumean ere badira aldateta garrantzitsuak, ezta?

Bai. Ikasgaiak hiru multzotan sailkatu dituzte: enborrekoak edo garrantzitsuenak, bereziak eta autonomia erkidego bakoitzak libreki aukeratzekoak. Kontua da enborrekoak direnak edo garrantzi handiena ematen diotenak Gizarte, Historia, atzerriko lehen hizkuntza... horiek Espainiako Hezkuntza Ministeriotik zehaztuta datozela. Arrazoia? Espainia osoko ikasle guztiek gauza bera ikastea. Eta hori ziurtatzeko, etapa bakoitzaren amaieran azterketa bat jarri nahi dute. Autonomia erkidego guztietako ikasle guztiendako berdina izango dena. Era honetan, ziurtatzeko eskola, ikastola, kolegio... guztietan ematen dela gauza bera. Eta DBH eta Batxilergoa amaitutakoan, gaintzen ez baduzu azterketa hori, ez duzu titulurik lortzen.

Hizkuntza koofizialen, edo gure kasuan, euskararen gaiari dagokionez, zer dio legeak?

Atzerapausoa da, argi eta garbi. Horretaz gain, beste arazo bat ere bada, gure ustez, eta da eskoletan parte hartzearena. Gurasook baditugu hainbat eskumen parte hartzeko eskolaren gaineko hainbat jardueratan, erabakitan, eta abar. Esaterako: urteko programazioan, proiektuetan... Orain, Eskola Kontseiluari kentzen diote hainbat eskumen eta zuzendaritzara pasatzen dira. Eskola Kontseiluak ez dira desagertzen, baina kontsultarako edo bakarrik erabili nahi dituzte: aholkuak emateko, eta abar.

Hortaz, boterea gurasoei eta ikasleei kendu eta eskolako zuzendaritzari ematen zaio?

Bai. Eta, gainera, zuzendaritza bera aukeratzeko moduak ere aldatu egiten dira: gaur egun aukeraten da eskolan bertan dagoen batzorde batean eta batzorde horretako kideen %70 eskolako kide dira, modu batera edo bestera. Gainerako %30ak administrazioko ordezkariak dira. Lege berriarekin, oster, %50 baino gehiagoko ordezkariak dauka administrazioren mende ordezkariak eta erdia baino gutxiago eskolako batzordeak. Hortaz, eskumen handiagoak ematen dizkiote zuzendaritzari eta, gainera, administrazioak aukeratutako zuzendaritza da.

Zergatik da baztertzaila legea, zuek diozuen moduan?

Batetik, ikasleak oso gazte diren sasoian, 14-15 urterekin, ondo ez dabilzan edo erdipurdi dabilzan ikasleak bazterrean uzten dituzte. Gaur egun, eskoletan neurriak jartzen dira ikasleari aukerak emateko eta behar duen gutxieneko curriculum emateko. Hartara, gutxienez, DBH titulua lor dezaten. Lege berri honekin, berriz, Lanbide Heziketara joatera behartuak direnak bazter samarrean geratzen dira. 14-15 urterekin, ja, ikasle batzuk aukera gutxiagorekin ateratzen dira.

Eta "uniformatzailea", zergatik? Madrildik zehaztuta datorrelako curriculumaren zati inportante bat. Bakoitzaren berezitasunak, curriculum propioa, edukitzea saihesten du. Gure seme-alabek ikasi beharko dute Sevillako edo Bartzelonako gauza bertsuak. Eta hori baieztatzeke, gainera, azterketa egin beharko da. Gaur egun badago curriculum gutxieneko bat, baina eskola bakoitzak berea egoki dezake.



Imanol Zubizarreta, martitzenean, Goiena telebistan. | JAGOBIA DOMINGO

"Eskola guztietan ikasgai berdinak ematen direla ziurtatu nahi dute"

"Lege berriarekin Eskola Kontseiluari kendu diote hainbat eskumen"

"Hezkuntza sistema aldatu nahi du haien gustuko gizarte eredu eraikitzeke"

Esaterako, Euskal Herriko historia ikasi ahal izango litzateke?

Batetik, Historia ikasgaia autonomia erkidego guztietarako berdina izango da, eta, gero, Eusko Jaurlaritzak, ikasgai berezi moduan, bertako historia jarri nahi badu, jarri ahal izango du. Baina enborreko ikasgaiei denboraren %50 eskaini beharko zaie, gutxienez. Bestalde, gaur egun, ikasle batek DBHko titulua lortzeko ikasgai guztiak gaintzen baditu, titulua jasoko du. Baina aurrerantzean, ikasgaiak gaintzeaz gain, Madrilen jarri eta zuzenduko duten azterketa bat gaintu beharko du.

Euskara ikasgaia bera ere ez da enborrekoa izango...

Ez, hirugarren multzo batean sartuko litzateke. Hasierako zirriborroan proposatzen zen Euskara eta Gaztelania ikasgaiak maila parean tratatzea. Baina hizkuntza propioa daukagun erkidegoetan egindako protestak direla-eta,

badirudi azkeneko zirriborroa aldatu egin dela eta, orain, proposatzen dena da gaur egungo D ereduaren antzeko zerbait. Baina, hori bai: familiaren batek eskatuko balu gaztelaniaz egin ahal izatea ikasketak, eskola publikoak edo itunpekoren batek hori ziurtatu beharko luke. Eta hori bermatuko lukeen eskolarik ez balego, familia horri administrazioak ordaindu egin beharko litzokie ikasketak eskola pribatu batean. Hortaz, gure egoera ez da askorik aldatzen, gaur egungo ereduak baztertu eta murgiltze eredu baterantz jotzen delako, D eredurantz. Baina ikusi bezala, baditu ordainak.

Adierazgarria da Wert legearen aurrean eskola publikoko, ikastole-tako edota pribatuetako agenteek bat egin duzuela, denak zaudetela ados kontra egiterakoan?

Garbi dago indar metaketa egin behar dela. Egon daitezke gure arteko berezitasunak eta ezberdintasunak, baina gauza asko ditugu komunean lege honen kontra egiteko. Badira gure hezkuntza sistemaren kontrako hainbat gauza eta horregatik egin dugu bat hezkuntzako eragile guztiok. Lege honi ez eta gure hezkuntza sistemari bai esan diogu.

Lege honek zergatik sortu ditu horrelako ika-mikak?

Garbi dago erreforma ideologiko bat dagoela. PPK hezkuntza sistema aldatu nahi du bere gustuko gizarte eredu eraikitzeke. Ikasleen arteko bereizketa egin nahi du lan merkatuan lanabes merkea egon dadin.

Zein izango litzateke hezkuntza sistema egokiena?

Geurea, hezkuntza sistema propioa. Izan ere, adibide bat: Espainian, 2020. urtean, lortu nahi dute DBH titulua edukitzea ikasleen %85ek. Hemen gaur egun lortzen da hori. Gurean ere hobekuntzak egin behar dira, aurrera egin behar dugu, baina ezin gara egon Espainian zer egiten duten zain. Gure curriculum landu behar dugu, gure errealitate egokituta.

Eskeletan-eta ekiteko asmorik baduzue?

Bai, ze hezkuntza komunitatean, gurasoen artean-eta, jendea ez baita konturatu, oraindik, zer datorren. Gurasoen erdiak ez daki benetan zer dioen *Wert legea*-k.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



HERRIAK

ONATI

Debagoieneko Artzain Eguna

- ▶ Lehena Arrasaten egin zen, iaz, eta aurten Oñatin bilduko dira bailarako artzainak
- ▶ Sei ekoizle izango dira bertan eta euren produktuak ezagutarazteko aukera izango dute

MAIALEN GONZALEZ | OÑATI

Debagoieneko XIII. Jardunaldi Gastronomikoen ekimenaren barruan, martxoaren 2an izango da Debagoieneko Artzainen II. Eguna, Oñatin.

2012an Arrasaten egin zuten Debagoieneko Artzainen I. Eguna, eta aurten Oñatin izango da bigarrena. Eskualdean gazta ekoizten duten artzainak elkarlanean hasiak dira, eta, horrela, bihar, zapatua, Oñatin euren produktuak ezagutzeko aukera izango da. Foruen plazan, 10:00etatik 14:00etara.

Bailarako partaideak

Biharko azokan ondorengo ekoizleek hartuko dute parte: Oñatiko Aldai, Azkarreta eta Gomiztegi, hirurak ala hirurak Idiazabal jatorriko ardi latxaren esne gordinez egindako gaztarekin; Aretxabatetako Etxezuri eta Mendibitzuk. Lehenak Idiazabal jatorriko ardi latxaren esne gordinez egindako gazta eskainiko du eta bigarrenak, aldiz, ardi latxaren esne ekologikoarekin egindako gazta eramango du. Gomiztegi bezalaxe, Antzuolako Pikunieta ere esne ekologikoarekin egindako gaztarekin aurkeztuko da. Hori izango da seigarren ekoizlea.

Bildotsak eta txakolina

Gaztaz gain, eta artzainek ekoizten dituzten produktuak ezagutarazteko helburuarekin, Debagoieneko bildotsak buruntzian erreko dituzte, ondoren pintxotan banatzeko, eta gatzatua tailerra ere izango da. "Bildotsak ekologikoak" izango direla baieztatu du Gorka Mendibitzu ekoizleak. Bestetik, bailarako txakolina dastatzeko aukera ere izango da.



Iazko Artzain Eguneko irudi bat. | GOIENA

ESANAK

"Polita da zer egiten dugun eta gure generoa zein den erakustea"

"Oñatikoa ez ezik, bailara osoko jendea bertaratzea espero dugu"

GORKA MENDIBITZU | ARTZAINA

BATIS OTAEGI | GOMIZTEGI KOOPERATIBAKO ARDURADUNA

"Artzaintzak Euskal Herriko jendartean leku handia du"

Arantzazuko Gomiztegi kooperatibako Batis Otaegi ere Artzain Egunean izango da bihar. Baserriko produktuak aurkeztu eta gatzatua egingo dute.

Bigarrenegingo da Artzainen Eguna gure bailaran. Horrelako ekimenak gehiago bultzatu beharko lirakeela uste duzu?

Artzainen eta kontsumitzaileen arteko harremana hurbila izatea garrantzitsua da, eta horrelako ekimenek hori ahalbidetzen dute. Profesionalok zer egiten dugun eta gure produktuak erakustea garrantzitsua da. Gainera, gaztaren beraren aniztasuna aurkeztu nahi dugu: urdinak, freskoak, laktikoak, eta abar.

Zer moduz Artzain Eskolarekin?



Otaegi, arkume jaio berriarekin. | GOMIZTEGI

16 urtean 210 pertsona pasa dira hemendik eta erdia baino gehiago lanean daude. Baina artzaintzaren egoera ez da ona, pentsuaren prezioa ikaragarri garestitu da eta gaztaren salmenta apaldu egin da. Nolabaiteko errentagarritasuna izateko bidea bilatu behar da.

Artzain Eguna artzainen lanaren dibulgazioari mesede zuzena egingo dio.

Eguraldiak laguntzen badu, ia 150 pertsona etorriko dira bihar Oñatira. Artzaintzak Euskal Herriko jendartean duen garrantzia erakusten ahaleginduko gara eta jendearen erantzuna positiboa izatea espero dugu.

Izan ere, Debagoienekoak dira Getariako Txakolinaren jatorri izenaren barruan dauden Arrasateko Otxia eta Oñatiko Upain txakolinak.

Kroxeters eta 'Urban knitting'-a

Giroan murgilduta, Debagoieneko Kroxeters taldea izango da bertan eta *Urban knitting* delakoa egingo du. Ekintza horrek harridura sortzea du bere ezaugarrien artean. Diotenez, "edozer izan daiteke trikotatua, hala nola ate baten eustokia zein autobus osoa, estatua bat, zuhaitz, jarleku edota farola bat". *Urban knitting* delakoak gure arbasoen teknikak berreskuratzen ditu, eta, gustu onari eta gaurkotasunari lotuta, emaitza harrigarriak sortzen ditu puntua edo gantxilloa erabiliz. Egitarau zabala, Debagoieneko Artzainen II. Eguna ospatzeko. Aurten, Oñatin.

Arrasate
OPTIKA
OPTOMETRIA

Kontzeziño kalea 6 ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 25 98
www.arrasateoptika.com
arrasateoptika@euskalnet.net



Optometria konportamentala

• Ukipen lente bereziak

• Ikusmen terapia

• Pertzepzio zailtasunak

• Jatorrizko erreflexuak

Elurteari aurre egiteko plana, "oso eraginkorra"

Bi ibilgailu, Cespako 28 langile eta Udaltzaingoa aritu ziren lanean jo eta ke

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Urteko bigarren elurteak astelehen eta martitzenean eragin zuen arazo gehien Arrasaten. Udalak joan den egubakoitzetik eguaz-tenera arte izan zuen aktibatuta elurte plana, baina zapatutik martitzenera arte egin behar izan zuten lan handien udal langileek: "Oso eraginkorra izan da elurte plana. Era berean, oso elurte gogorra aurreikusten zen, baina, zorionez, ez du izotzik egin. Orduan, askoz errazagoa izan da elurra errepideetatik eta baserri-auzoetatik kentzea".

Asteburuan zortzi langile aritu ziren lanean eta astelehen zein martitzenean Cespako beste 28 langile -17 kale garbiketakoak eta 11 lorezaintzakoak-. Udaltzaingoa ere buru-belarri aritu zen, jasotzen zituzten deiak Udalarari bideratzen. Lur orotako bi ibilgailu aritu ziren kaleak garbitzen, eta, lan karga handiaren adierazle, horietako batek "gutziz izorratuta" amaitu zuen: "Hiru aldiz zulatatu zitzaizkigun gurpilak eta ibilgailu bat tailerrera eramane behar izan dugu".

Kontuan hartzeko arazorik ez

Arazo aipagarriarik ez da izan, Udalaren esanetan: "Konplexuena izan zen goialdean dauden baserri-auzoetako elurra kentzea; esker-tzekoa izan zen euren jarrera". Lehen egunetan, bide bazterreko zuhaitzak kendu behar izan zituzten, makinak pasa zitezten. Goialdeko auzoetan 40 zentimetro pila-tu ziren hainbat lekutan, eta, horregatik, makinek bi aldiz pasatu behar izan zuten elur geruza kentzeko: "Kontuan hartu behar da lur orotako ibilgailuekin egin dugula lan, eta ez kamioiekin; hala ere, ez da egon kontuan hartzeko moduko arazorik".



Langilea, espaloiko elurra garbitzen, Otorala kalean. | AITZIBER ARANBURUZABALA

ESANAK

"Lur orotako ibilgailuekin egiten dugu lan; hala ere, ez da egon kontuan hartzeko arazorik"

ARRASATEKO UDALA

DATUA

12

TONA GATZ

Elurte plana aktibatuta egon zen egunetan 12 tona gatz erabili zituen Udalak errepideak eta espaloiak ahalik eta garbien izateko.

Hurrengoetan hobetzekoak

Elurra autoendako zein oinezkoendako arazo bihur ez zedin 12 tona gatz erabili ditu Udalak azken elurte plan honetan. Hurrengoetara begira hobetzeko zereginen artean elur makinetan xafla bat jartzea aurreikusten dute, elurra ibilgailuaren haizetakoetan oztopo izan ez dadin: "Gidariari ez dio ondo ikusten uzten eta, bideak estuak izanik, arriskua egoten da makinak istripua izateko. Hurrengorako horixe konpondu beharko dugu".

Bestalde, prebentzio lana ere garrantzitsua dela uste du Udalak; zenbait eskailera babesteari ematen diote lehentasuna: "Arrasaten eskailera eta plaza asko daude eta lehentasunezko espaloiak garbi mantentzea nahi badugu ezin gara ibili herriko eskailera guztiak garbitzen".

Kasu horietan Udalak eskatu gura die herritarrei eskailera horiek babesteko ezartzen diren zintak errespetatu ditazela, aurrean gehienak apurtuta agertu dira-eta.

Erguingo zentroa hileko bigarren astean irekiko dute

Buruko gaitza dutenendako eguneko zentroa da; Aldundiak 592.000 euro pasa xahutu ditu

J.B. | ARRASATE

Gertu dago Erguin auzoan buruko gaitza dutenendako eguneko zentroa. 2011ko abuztuaren 10ean hasi ziren lanak, eta 2012ko otsailaren 7an amaitu. Irekiera egunerako datarik ez dute zehaztu, azken erremateak burutzen eta altzariak ipintzen ari direlako. Asteon garbitzaileak aurkitu ditugu lanean; hileko bigarren astean irekiko da, Aldundiaren arabera.

Zentroaren helburua da gaixoei laguntzea, ahal den neurrian, euren ohiko inguruan jarrai dezaten, ahalik eta autonomia, gizarteratze eta bizi-kalitate handienarekin. Izan ere, ekidin gura da gaixo horiek zentro psikiatrikoetan sartzea, euren hobeharrez. Erabiltzeko eskara alde aurretik egin beharra dago gizarteratze zentruetan edo Osakidetzaren buruko osasun zentroetan. Erabiltzaileek 18 eta 60 urte artekoak izan beharko dute, diagnostikoarekin.

20 erabiltzaileendako lekua

Erabiltzaileari atentzio pertsonalizatua eskainiko zaio eta beste hainbat hutsune betetzen ere saiaturiko dira. Esaterako, jarduera ezberdinak egiteko autonomia hobetzen, gaixotasunari dagokion tratamendua ematen eta psikologia zein gizarteratze zerbitzua eskaintzen.

Lokalak guztiak ezberdinak izango ditu: ekintzak burutzeko gunea, jangela, atsedenerako lekua, sukaldea, bi bulego-kontsultarako gela eta guzti-, biltegia eta aldagela, besteak beste. Atarian plataforma jasotzaile bat ere jarri dute eta aire girotua izango du.

20 erabiltzaileendako lekua egongo da eta Erguingo zentroaren irekierarekin Gipuzkoako eskualde guztiek izango dute ezaugarri horietako zentro bat. Halako lehen zentroa Tolosan ireki zen 1995ean. Egokitzapen lan guztiek 592.264 euroko aurrekontua izan dute.



Erguin kaleko 19. zenbakian dago eguneko zentroa. | JOKIN BEREZIARTUA

Mugi txartelaren berri emango dute bihar BAZen, egun osoan

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak Mugi txartelari buruz informatzeko panela jarriko du bihar BAZen, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Txartelaren helburua da tarifa sistema bateratu berria ezartzea erabiltzaileei bidaiak errazteko. Mugi txartel berriarekin autobus eta tren zerbitzu ezberdinak hartzea posible izango da. Besteak beste, Lurraldebus, Euskotren edota Donostiako Dbus enpresen zerbitzuekin gozatzeko aukera izango dute erabiltzaileek. Beraz, txartel bakarrarekin Gipuzkoa osoko garraio publikoan ibiltzeko aukera egongo da.

Maisu Arano kaleari izena aldatu gura dio Intxorta 1937 elkarteak

Portaloio ondoko Maisu Arano kaleari izena aldatu gura dio Intxorta 1937 Kultur elkarteak. Izen aldaketa horrekin gura dena da Felix Aranoren emazte izan zen Teresa Garciak batez ere irakaskuntzan egindako "lan handia" errekonozitzea. Horretarako Udalarari mozioa aurkeztuko diote Julia Monge eta Juan Ramon Garai Intxorta 1837 elkarteak kideek.

Mongek zein Garaik proposatu dute izen berria: *Arano eta Garcia maisu-maistrak*, hain justu. Arrasateko Udalak bat egin du proposamenarekin eta izena aldatzearekin ados dago. Hori bai, hurrengo osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatu beharko dute.

Gimnasia hipopresiboa ezagutzeko aukera dago hil osoan zehar

Gimnasia abdominal hipopresiboa ezagutzeko ikastaroa antolatu du berriro ere Aukeak, Egoitek kirol zerbitzuak eskaintzen dituen enpresaren bitartez. Martxoan zehar egingo dituzte hastapen saio horiek, astelehen eta eguaztenetan. Hiru ordutegi eskainiko dituzte, ordutegia ahalik eta malguena izan dadin: 09:15ean, 17:30ean eta 20:30ean. Ordubete inguru iraungo dute saioek.

Ikastaro berri horretan izena emateko Musakolako kiroldegira jo edo 943 77 16 77 telefono zenbakira deitu behar da. Ikastaroaren prezioa da 37,60 euro.

PSE-EEK hondakinen gaineko Udalaren galdetegi kritikatu du

J.B. | ARRASATE

Arrasateko alderdi sozialistak Udalak otsailean etxe guzti-tara bidalitako hondakinen gaineko galdetegi kritikatu du. Paco Gartzia Ingurumen batzordeko bozeramaile sozialistaren arabera, galdetegi "partziala, fidagarritasunik gabekoa eta alderdikoa" da, eta, haren ustez, atez atekoaren alde daudenei egiten die mesede.

Era berean, zinegotzi sozialistak uste du galdetegiak atez atekoa ezartzea duela helburu; haren ustez, "garestiagoko, zikinagoa eta deserosoagoa" den bilketa sistema bat. Prentsa ohar baten bidez, Gartziak adie-

razi du baztertu egiten dituela galdetegi horretatik etor daitezkeen ondorioak, uste baitu erantzunak galderengatik baldintzatuta daudela: "Udalak, bere galdera maltzurerekin, herritarren atentzioa desbideratu gura du".

Udala, epea amaitzeko zain

Arrasateko Udal Gobernuak, berriz, ez die Paco Gartzia kritikari erantzun gura izan. Diotenez, euren helburua ez da alderdien arteko tira-biretan sartzea eta galdetegi hori entregatzeko epea amaitu arte -hilarren 8an- itxarongo dute ondorioen berri emateko.

Maitane Unamuno | Ekin emakumeak elkarteko eragilea

"Emakumea ahaztuta egon da historian, beti bigarren mailan"

Martxoaren 8an 36ko gerra eta frankismo garaiko erakusketa irekiko du Ekin, emakumea abiapuntu

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Martxoaren 8a, egun seinalatua, aukeratu du Ekin emakumeak elkarteak *Debagoieneko emakumeak Gerra Zibilean eta frankismoan* argazki erakusketa irekitzeko. Datorren egubakoitzetik hilaren 24ra arte egongo da zabalik Kulturaten, martitzenetik domekara (17:30-20:30). Lantalde polita elkartu da erakusketa antolatzeko: Josefina Muxika, Rufina Olasagasti, Tamara Perez, Marije Lezeta, Arantxa Larrañaga, Saioa Rozas, Amaia Arregi eta Maitane Unamuno. Elkarteko eragile Unamunorekin egon gara erakusketaz berbetan.

Nondik sortu zitzaizuen erakusketa antolatzeko ideia?

Emakumearen garapena eta aukera berdintasuna helburu ditugunez, ingurune sozialak baldintzatutako emakumearen egoerak aztertzea eta ekintza zehatzak bideratzea erabaki genuen. Proiek-

tu honen bidez, emakumearen errealitate bat aztertu nahi izan dugu. Hala, 36ko gerran eta diktadura frankistan, Debagoieneko emakumeek bizitako errealitatea aztertu eta ezagutzera ematea erabaki dugu. Eta nola ez, omenaldi txiki bat ere egin gura diegu guztiei.

Zer da, bada, erakusketan aurkitutako duguna?

Debagoienean 36ko gerra eta frankismoa jasan zituzten emakumeak gogoratu nahi izan ditugu. Egoera latz horiei aurre egin zieten emakumeen egunerokotasunera hurbilduko gaitu erakusketak, argazkien bidez.

Irekiera egunerako zer bait berezirik prestatu al duzue?

Bai, erakusketa irekiko dugun egunean, martxoaren 8an, atek zabaldu baino lehen erakusketari sarrera emateko antzezlan bat plazaratuko dute Arizmendiko ikasleek eta gurasoen Arizan



Muxika, Olasagasti, Perez, Lezeta, Larrañaga, Rozas, Unamuno eta Arregi, Ekin elkartearen egoitzan. | EGIN ELKARTEA

antzerki taldeak. Antzezlan horrek, hainbat esketxen bidez, frankismoko emakumeen bizimodura hurbilduko gaitu.

Ba al da zerbait arreta piztu diezuna erakusketa prestatzerakoan?

Harrigarria iruditu zaigu hain denbora gutxian zenbat aldatu diren gauzak. Eta zenbaterainoko boterea zuen garai hartan elizak: elizaren morala emakumearen momentu guztietan zegoen presente. Emakumearen gizonkiko menpekotasuna ere oso

deigarria da, edozer egiterako orduan gizonen baimena behar izaten zuen-eta.

Zergatik hartu dituzue emakumeen bizipenak abiapuntu moduan?

Emakumeak historian nahiko ahaztuta egon direlako. Gizartea orokorrean nolakoa zen edozein liburu edo pelikuletan erakusten dute. Emakumearen rola, berriz, oso gaineratik eta kasu berezietan gorai patzen da, ez da inoiz emakumea kolektibo moduan lantzen, beti bigarren maila batean ager-

tzen da. Gaur egun bogan dagoen memoria historikoa lantzea garrantzitsua dela kontutan izanik, funtsezkoa ikusten dugu duela denbora gutxira arte emakumearen bizitza nolakoa izan den erakustea, eta gaur egun lortu diren aurrerapausoak aldarrikatzeaz gain, gure ama, amona eta birramonei omenaldia egin gura diegu.

Bide batez, ezinbesteko galdera. Egun, emakumeen bizimodua asko aldatu dela esango zenukete?

Hein batean bai. Ezin genezake ukatu emakumeok garai hartan baino askeago bizi garela gaur egun, baina oraindik badugu nondik askatu.

Ezin dezakegu esan aukera berdintasuna lortu dugunik. Oraindik emakumeak ez ditu gizonak dituen *privilegioak*.

"Gure ama, amona eta birramonei omenaldia egin gura diegu"

"Oraindik ezin dezakegu esan aukera berdintasuna lortu dugunik"

Abian da sanjuanetarako parte-hartze prozesua

Lehen bilera atzo egin zuten eta Aste Santua baino lehen berriz ere elkartzeko asmoa erakutsi dute

J.B. | ARRASATE

Martitzenean gaztetxean aurkeztu zuten Kepa Urteaga Kultura zinegotziak eta Jon Garai Udaleko Kultura Saileko arduradunak aurtengo San Juan jaietarako parte-hartze prozesua. Goiz abiatu dute aurten, denbora falta aitzakia izan ez dadin. Atzo egin zuten lehen bilera eta Aste Santua baino lehen berriz ere elkartzeko asmoa erakutsi dute. Jaietako egitarauan parte hartzen duten elkarte, talde eta eragileak gon-

bidatzeaz gain, Udalak norbanakoengana ere heldu gura du: "Iaz Kepa eta bion sorpresarako bere burua ordezkatzan zuen pertsona baten ekarpenari esker kartela argitaratu genuen. Horrekin esan gura dut norbanako baten parte-hartze zuzena kalean bistan egon zela", adierazi du Garaik.

Iazko prozesuaren arrakasta ikusita aurten ere dinamika berrari helduko diote. Kartelaz gain, zapiak zein pegatinak ateratzea -1.000 zapi atera eta bi egunetan



Iazko Zeuk in zeuk jan bazkaria, parte-hartze prozesuko ideietako bat. | ARTXIBOA

agortu ziren- eta *Zeuk in zeuk jan* herri bazkaria -300 lagun baino gehiago batu ziren- antolatzea herritarrei otu zitzairen. Aurrekontuari dagokionez, jai gutzietarako jaitziera txiki bat

egon bada ere, Urteagak aurreratu zuen iazko antzeko kopurua espero dutela sanjuanetarako: "Diru gutxirekin gauza asko egin daitezke, iaz argi geratu zen", uste du Kultura zinegotziak.

Martxoaren 8ari begira egitarau berezia antolatu dute

Udalak eta Emakume Txokoak egitarau berezia antolatu dute Martxoaren 8a dela-eta. Bihar bertan Arantza Santestebanek *Komunikabideak eta boterea. Irakurketa feminista bat* tailerra eskaini behar zuen, baina, gutxieneko taldea ez denez sortu, atzera bota dute; antolatzaileek aurreratu dutenez, apirilaren 19 eta 20rako antolatu dituzten jardunaldi feministetan egongo da Santesteban.

Martxoaren 8ko manifestazioa Seber Altube plazatik irtengo da, 19:00etan, *Feminismoaren bidetik, emakumeak libre!* lelopean.

KUGA BELAUNALDI BERRIA.

PUNTAKO TEKNOLOGIAREKIN, ZURE BIZITZA ERRAZTEKO.

Ford Kuga Gama. Batez besteko kontsumoa: 5,2 l-lik/100 km-ko. CO₂ isuria: 139 gramotik 179 gramora / km-ko.

MUGARRI AUTOAK Araba Etorbidea, z/g. ARRASATE

ford.es

ZALDIBAR

EMAITZAK
 Sonografos-Aston Birra **12-1**

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Sonografos	32	12
2 Iriztu	22	10
3 Abokajarro	22	10
4 Dribling	21	10
5 Ostantz	18	10
6 Aldatz	16	10
7 Lasagabaster	13	10
8 Haizea's Weah	13	11
9 Fidel & Discipulos	12	10
10 Iluntz	11	10
11 AT Betrayer	10	10
12 Aston Birra	4	11
13 Iluna Taberna	0	10

PARTIDUAK

MARTXOAK 2, ZAPATUA

09:30 Aston Birra-AT Betrayer / **Iriztu**
 10:30 Iriztu-Ostantz / **AT Betrayer**
 11:30 Lasagabaster-Fidel & Disc. / **Ostantz**
 12:30 Iluntz-Dribling / **Fidel & Disc.**
 16:00 Aldatz-Iluna Tab / **Abokajarro**
 17:00 Haizea's Weah-Abokajarro / **Iluna Tab.**

MARTXOAK 3, DOMEKA

11:30 Aldatz-Abokajarro / **Ostantz**
 12:30 Ostantz-Dribling / **Aldatz**
 13:30 Lasagabaster-AT Betrayer / **Dribling**
 16:00 Iluntz-Iluna Taberna / **Iriztu**
 17:00 Iriztu-Fidel & Disc. / **Iluntz**
Atsedena: Sonografos

Lehen faseko azken bi jardunaldiak asteburu honetan Zaldibarren

13. jardunaldia, zapatuan, eta atzeratutako 12.a, domekan. Bestalde, datorren ateburuan Kopako final-zortzirenak eta final-laurdenak jokatu dira. Lehen faseko puntuak garrantzitsuak izango dira bigarren faseari begira. Sonografos jarraitzen du lider, Irizturi 10 puntu aterata.



AKE tenis elkarteak VNRC txapelketako lehen bi jardunaldiak jokatu ditu. | AKE TENIS ELKARTEA

AKE tenis elkarteak VNRC 2013 txapelketan hasi da

Arrasaterrek aurreko asteburuan hasi zuten aurtengo tenis denboraldia, Gasteizko Peña Vitorianaren aurka

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE
 Vasco-Navarro-Riojano-Cantabro deritzon elkarten arteko txapelketa hasi da. Arrasateko AKE elkarteak hirugarrenez jokatzeko ari da txapelketa, eta aurtengo hirugarren kategorian lehiatuko dira, beste bost taldeekin batera.

Taldekako txapelketa
 VNRC txapelketa taldekakoa da. Banakako bost partidu eta bikotekako beste bi partidu jokatzeko dira jardunaldi bakoitzean.

Busturialdea, Iruñeko Obereña, Begoñalde, Peña Vitoriana eta Gasteizko Jakintzarekin osatzen dute multzoa arrasatearrek. Bada, lehen postuan sailkatzen denak hirugarren kategoriari

beste multzoko lehen sailkatuarekin jokatu du bigarren kategoriara igarotzeko txartela.

Hasiera gazi-goza
 Aurreko asteburuan ekin zioten txapelketari tenis jokalariek. Bide batez, gainera, baita aurtengo denboraldiari ere.

Zapatuan Gasteizen jokatu zuten lehen jardunaldia, Peña Vitorianaren aurka. Hasiera ona izan zuten arrasatearrek, 0-3 hasi baitziren, banakako lehen hiru partiduak irabazita. Puntu bakar bat behar zuen AKEk eta lau partidu zeuzkaten aurretik. Horietako baten, lehen seta maisuki irabazi zuen AKE-ko Xabier Esturok, baina ez zuen partidua ixtea lortu eta

hirugarren setean galdu egin zuen partidua.

Bikoteka ere aukera aparta izan zuten arrasatearrek bi partiduetako batean, baina oso gutxi-gatik galdu zuten: 7-6 eta 7-6, hain zuten ere.

Kontuak kontu, AKEko tenis jokalariek pozik daude: "Gasteizko elkarte ospetsuko instalazio paregabeetan jokatzeko aukera izateagatik oso pozik gaude, Roland Garrosekoa bezalako lur gorri horretan! Batez ere, maila dezentte hobetu dugula erakutsi dugulako", diote AKE elkartetik.

Busturialdearen aurka irabazi
 Arrasatearren lehiaketa asteburu amaitzeko, Busturialdea Tenis elkarteak hartu zuen AKE-k dome-

kan. Etxeko taldeak 7-0 irabazi zuen, partida guztietan errenta handiarekin gailenduz eta elkarrekin sekula lortu duen garaipen zabalena eskuratuz, gainera.

Hurrengo jardunaldiari begira
 Bost jardunaldi izango dira, guztira. Normalean, bi aste behin jokatzeko da, baina Aratusteetan atzeratutako partidua aurreko asteburuan jokatu zuten. Hurrengo jardunaldia martxoaren 9an jokatu dute.

Orain arteko jardunaldien ostean, beraz, Arrasateko taldeak garaipen bat eta porrot bat dauka. Seguruenik, Begoñalderen aurkako partidua erabakigarria izango du AKEk mailaz igotzeko aukerak izateko.

EMAITZAK

PEÑA VITORIANA - AKE

Nacho Perez - **Kepa Aranbarri**
6-4 1-6 7-10

Javi Ron - **Aitor Magallanes**
2-6 4-6

Andy Arbues - **Eneko Fernandez**
2-6 4-6

Peli Abalos - Aitor Balzategi
6-4 6-3

Carlos Ruiz de Ocenda - Xabier Esturo
3-6 6-2 10-3

Carlos/Unai Korujo - Xabier/Aitor B.
6-3 6-3

Peli/Andy - Eneko/Aitor M.
7-6 7-6

AKE - BUSTURIALDEA

Xabier Esturo - Igor de Pedro
6-0 6-0

Aitor Balzategi - Mikel Nuñez
6-2 6-0

Aitor Magallanes - Ander Rekalde
6-1 6-0

Eneko Fdez - Oscar Pagazaurtundua
W.O.

Kepa Aranbarri - Diego Burgos
00-00 00-00 00-00

Xabier/Eneko - Igor/Sergio
6-1 6-1

Aitor/Aitor - Ander/Mikel
6-2 6-1

Izen-ematea zabalik Takarraran herri lasterketa egiteko

Martxoaren 9an, zapatuan, izango da Takarraran herri lasterketa. Bosgarren edizioa da aurtengoa eta iazko ibilbide berbera izango du. 2.800 metroko ibilbidea da: 12:30ean Seber Altuben hasi eta Maalan behera joango dira korrikalariak, Otalora zeharkatu eta San Frantziskotik berriro ere alde zaharrera bueltatu. Ibilbideari hiru buelta eman beharko zaizkio. Gogoratu beharra dago Aukeak lasterketarako entrenamendu programa bat eskaini duela. Musakolako kiroldegian eguneroko saioak prestatu ditu, eta saiook lasterketa egunera arte izango dira.

Ford Mugarri liderrak Trapagaran hartuko du asteburu honetan

Arrasatearrek lidertzan segitzen dute eta Trapagaran sailkapeneko azken postuan dago

M.G. | ARRASATE
 Aurreko asteko garaipenari esker, Arrasateko Ford Mugarri taldeak sailkapen nagusiko lehen postuari eusten dio, 33 punturekin. Atzetik ditu Quiron Askartzeta, 32 punturekin, Ereintza, 25ekin, eta Egia, 24 punturekin.

Pablo Gartziaren mutilek garaipen garrantzitsua lortu zuten joan den asteburuan, El Pilarri, zazpigarren sailkatua, hamalau

puntu aldearekin irabazita: 37-23. Arrasatearrek nagusitasunez hartu zuten aurkaria mendean eta taldeak balorazio positiboa egiten du.

Aipatzekoa da Aitor Txabarriren itzulera. Izan ere, urtebetez atzerrian egon ostean, arrasatearrek berriro ere jantzi zuten Ford Mugarriren elastikoa, baita hainbat minutu jokatu ere. Kanpotik gauzak beste modu



Kepa Isasmendi. | GOIENA

batera ikusten direla esan ohi da, eta, Arrasateko atezainak adierazi zuenez, "igoera faserako fisikoki ondo heltzea lortu behar da. Partidu bakarrera jokatzeko dira partiduetan eta tarte txikia egoten da norgehiagoka batetik bestera. Beraz, lan handia egin behar da, bai fisikoki eta baita teknikoki ere". Taldea bide onean ikusten duela aitortu zuen Txabarri.

Trapagaranen kontra, etxean
 Asteburu honetan Ford Mugarri etxean jokatu du, Iturripen. Trapagaran hartuko dute Pablo Gartziaren mutilek. Aurreko jardunaldian 18-29 galdu zuten bizkaitarrek Quiron Askartzaren aurka, etxean. Sailkapenean azken postuan daude; beraz, garaipen beharrezko etorririko dira bizkaitarrak Iturripera.

'Amor', Oscarra jaso berri duen filma, bihar ikusgai Amaian

Zapatuan eta astelehenean izango da makina bat sari jaso duen film austriarra ikusteko aukera

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Ikusleek eta adituek kritika ezin hobea egin diote *Amor* film sarituari. Michael Haneke zuzendararen filmak bost izendapen jaso ditu Oscarretarako eta ingelesez eginda ez dagoen film one-


naren Oscarra eskuratu du, azkenik, Austriako film horrek. Jean-Louis Trintignant eta Emmanuelle Riva dira aktore nagusiak; baina tartean bada donostiar bat ere: Ramon Agirre, hain zuzen ere.

Georges eta Anne musika klasikoko bi irakasle erretiratu dira, 80 urteak bete berri dituzte eta Parisen bizi dira. Haien alabak ere musika dauka ogibide eta senar ingelesarekin bizi da Londresen.

Baina, egun batean, Anneri bihotzekoak ematen dio. Ospitaletik bueltatzean, bere gorpuztaren alderdi bat guztiz gelditu daukala ohartzen da. Bada, urtean bikotea batuta izan duen maitasunarendako proba gogorra izango da, zalantza barik.

Asteburuan ikusgai

Amaia antzokian bi saio egingo dituzte: lehena bihar, zapatua, 19:30ean izango da; eta bigarren saioa, aldiz, astelehenean 20:30ean izango da.



Amor filmeko aktore nagusia, Jean-Louis Trintignant. | LAPALOMITAMECANICA.COM

Literatur lehiaketek azken txanpari aurre egingo diote

AEDk antolatutako lehiaketa Debagoien osora dago irekita eta hilaren 22an amaitzen da epea

Z.V.D.M. | ARRASATE

Martxoan sartuta, 21 egun besterik ez da geratzen AEDk antolatutako Arrasate Literatur Lehiaketetan parte hartu ahal izateko. Hilaren 22an amaituko da literatura lanak aurkezteko epea.

"Hogeita sei urte betetzen ditu sariketak, eta erreferentia da bai literatura eta baita idaztearen gustuko dutenen artean". Hala azaldu du AEDko Itxaro Artolak. "Umetako oroitzapenen artean dute herritar askok egun batean

lehiaketa irabazi izana". Urteroko arrakasta ikusita, etorkizuna ere badaukala uste du Artolak.

"Literatura beti izan da kultura baten barruan hizkuntza landu eta herri moduan garatze eta gauzak partekatze modu polit eta duina".

Lehiaketaren bilakaera

Lehiaketak bilakaera izan du urte hauetan guztietan. Esate baterako, egun, hiru sail daude (ipuina, poesia eta bertso-paperak), "baina

denetarik egin izan da: gidoigintza, ahozko tasuna lantzeko grabazioak...".

Era berean, parte-hartzea ere aldatzen joan da: "Berrehun lan inguru jaso izan ditugu gainerako herrietan antzerako lehiaketetan parte-hartzerik ez zegoen garaian. Egun, xumeagoa da, 140 lagun bueltan ibili izan zen 2012an". Ipuina izan da beti jaun eta jabe sariketan eta "poesia, berriz, ahizpa txikia".

Deialdi irekia

Lehiaketen inguruko gogoeta baten barruan erabaki zuten deialdia ibarrera zabaltzea. "Betidanik izan dute aukera 17 urtez gorako debagoiendarrak parte hartzeko, eta zergatik mugatu irakurri eta idaztearen gustuko duten gazteei horrelakoetan parte hartzea?".



Denis Jones musikari ingelesa Kulturaten izango da gaur. | DENIS JONES.

Denis Jones eta bere folk doinuak eta elektronika gaur Kulturaten

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Martxoan musika erritmoz hasiko du Kulturatek. Hain zuzen ere, Denis Jones artistak emanaldia eskainiko du gaur, egubakoitza, 20:00etan, areto nagusian.

folk ukituko kantuei, eta emaitza bitxia lortzen du. *Loopstation* baten laguntzarekin soinuak grabatu eta zuzeneko musikari gehitzen dizkio.

Doako emanaldia

Oraingoan, behintzat, Euskal Herrian eskainiko duen kontzertu bakarra izango da Arrasatekoa. Izan ere, etxetik kanpo biran dihardu Jonesek eta Madril, Porto eta Zamoran joko du, besteak beste.

Kulturateko hitzorduak doakoak izaten dira, eta Erresuma Batuko artistaren kontzertua ez da salbuespena izango: "Politika horrekin segituko dugu aurrerantz ere".

Erresuma Batutik gurera

Erresuma Batuko abeslari eta musikariak Arrasate bisitatuko du. Karmelo Alberdi Udaleko Kultura teknikariak azaldu duenez: "Artista bitxia da, eta pentsatu dugu aproposa izango dela Kulturaten jarraitzeko. Tradizio akustikotik dator, bakarlarari moduan".

Denis Jonesek elektronika ukituak gehitzen dizkie bere



ARRASATE MUSIKAL

Domina bete zaku Andoaindik

Leire Gartzia, Naroa Errasti, Uxue Barrutia, Leire Molinuevo, Vera Garmendia eta Idoia Azurmendi Arrasate Musikaleko ikasleak dira, eta otsailaren 23an eta 24an Andoainen egindako piano jaialdian esku hartu zuten. Parte-hartze diplomaz gainera, urrezko bi domina, bost zilarrezko eta brontzezko bat ekarri zuten etxera. Zorionak, guztioi!

BARRIO autobus eta mikrobusak

- Eskoletako txangoak
- Upeltegietara irteerak
- Sagardotegietara irteerak
- Ezkontzak

Prezio interesgarriak!

Eska ezazu aurrekontua konpromisorik gabe!



Aldapa kalea 6, 4-B Ermua • Tel.: 943 17 15 01 • Pol.: 659 87 89 89
E-posta: info@autocaresbarrio.es • Webgunea: www.autocaresbarrio.es

MEDIKU PSIKIATRA kontsulta berria ARRASATEN

ELISABETH LAZPIUR
doktoorea

Mediku psikiatra-psikoterapeuta
202005123 elkargokide zenb.

Arrasate: Palacio Mendia zentro medikoa. Erdiko kalea 22.
Gasteiz: Ortiz de Zarate Kalea 1, 1.a, 4-5 bulegoa.
Donostia: San Martin Kalea 15, 1.a, 3. bulegoa.

Helduentzako psikiatria eta psikoterapia kontsulta
Osasun mentalean prebentzioa eta orientazioa.

Aurretiko hitzordua telefono honetan
Tel.: 628 66 64 37

Ongizateko partida mantentzea lehenetsi dute aurrekontuetan

- ▶ Astelehenean onartu ziren 2013ko Udal aurrekontuak
- ▶ EAJk eta PSE-EEK kontra bozkatu zuten
- ▶ EAJk dio "zerbitzuak gutxitu eta tasak igo" direla



Mekolaldeko zubiaren lotura berriak hango industriagunea bultzatuko duela uste du

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran 2013 urterako Udal aurrekontuak onartu zituen udalbatzak. Bilduk eta Aralarrek osatzen duten Udal gobernuaren aldeko 9 botoekin eta EAJ eta PSE-EE alderdien kontrako bosketekin egin zuten aurrera.

Hain zuzen, 21.280.400 euroko Udal aurrekontua onartu zen. Horrekin batera, Udalaren erakunde autonomoen aurrekontuak ere onartu ziren: Udal Euskaltegia, 352.709 euro; Mizpirualde egoitza, 3.630.398 euro; eta Bergarako Bihargintza 98 SA, 357.400 euro. Hori horrela, Bergarako Udalaren 2013rako aurrekontu bateratua 24.376.965 eurokoa izango da.

Iazko kopuru antzerakoa

Iazko urtearekin alderatuta, %2,6ko igoera izan du 2013rako Udal aurrekontuak.

Igoera horretan eragin handia izan du Udal langileei aparteko ordainsariak aurreratzeko erabili duten 470.000 euro inguruko partidak. Mugimendu hori gabe, aurrekontu osoa 20.880.360 eurokoa izango litzateke, hau da iazkoaren -20.731.536 euro- oso antzerakoa; %0,7 handiagoa, baino ez, Udaletik azaldu dutenez. Era berean, azaldu dute aurrekontuak prestatzeko orduan kontuan hartu behar izan dutela 2009ko Foru Fondoaren defizitaren amortizaziorako diru kopuru bat, 400.040 eurokoa, hain justu ere. Aurten bukatuko dute itzulketa osoa. Era berean zehaztu dute, Udal aurrekontuak bete

Jexux Elortza | Alkatea

"Gastu korronea murriztea izan da helburuetako bat"

Alkateak aurrekontuen gaineko azalpenak eman ditu. **Pentsatzekoa da bizi dugun krisi egoerak baldintzatutako aurrekontuak direla. Hala da? Eta zertan baldintzatu zaituzte?**

Egia da bizi dugun krisi egoerak baldintzatu dituela aurrekontuak. Beste urte batzuetan jaso izan diren sarrera batzuk asko jaitsi baitira. Horrez gainera, 2009tik pendiente dagoen Foru Fondoaren itzulketaren azken zatia ere, 400.000 eurokoa, zama handia izan da.

Aurrekontuak prestatzeko orduan zein izan da helburu nagusia?

Plan estrategikoan markatutako ildoak indartzera bideratutako aurrekontuak dira. Aurrekontua orekatzeko helburu nagusiak Gizarte Ongizateko partidari jaitsierarik ez aplikatzea eta gastu korronea ahal den neurrian murriztea -edo gutxienez ez igotzea- izan dira. Nahiz eta BEZA eta KPlaren igoerak eragin nabarmena duen Udalaren gastuetan, pertsonaleko gastuak eta maileguaren interesegatik ordaintzen duguna murriztuz -2012an behartuta geundena baino kopuru handiagoan amortizatu zen- eta energia eta ura aurrezteko hainbat neurri hartuta, lortu dugu helburua betetzea.

Gizarte Ongizateko partidak mantentzen ere ahalgindu zarete.

Bai, aipatu bezala, eta gizarteak bizi duen egoera larria kontuan hartuta, gure helburu nagusia ongizate partidak mantentzea izan da. Egia da inbertsioetan diru gutxiago bideratu dela, baina kontuan eduki behar da iaz etxe tutelatuak erosteko esfortzua egin zela eta

aurten etxeok ekipatzera bideratu ditugula inbertsioak; baita Lanbidek bertan behera laga dituela Udalaren bitartez burutzen zituen enpleguaren sustapenerako kurtsioak ere. Hala ere, Udalak herritarrei ematen dizkien zerbitzuek eurek ez dute jaitsierarik izan.

Hiri hondakinak gaika batzeko sistema bultzatzea ere oso aintzat hartu duzue. Ze diru kopuru bideratu diozue horri eta zehazki zertarako?

Hondakinak gaika jasotzeko sistema aldatzeko apustua egin dugu, eta horrek ere eragina dauka aurrekontuetan. Mankomunitatera bideratzen den partida %13 inguru igo da. Gaiari buruzko pleno monografikoan azaldu zen bezala, sistema berriaren ezarpenerako eta bilketarako bideratzen dira kopuruak. Ezaguna denez, herritarrei ez zaie proportzio berean igo zaborren tasa, KPlaren igoera soilik aplikatu baita, %3.

Inbertsioen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

Inbertsioak zehazteko orduan, gastu arruntak murriztea ahalbidetuko dutenak lehenetsi ditugu, tartean, Alde Zaharreko argiteria led sistemara pasatzea (60.590 euro); energia aurrezteko proiektua (15.000); uraren kontsumoa (60.000) eta estolderia hobetzeko (50.000) inbertsioak; eta baita Udal eraikinetako argiteria aldatzea ere. Gainontzekoei dagokienez, inbertsiorik aipagarriena Mekoaldekoko zubiaren lotura izango da, hango industriagunearen garapena bultzatzeko (100.000 euro jarriko ditu Udalak). Elo-

suko plaza egokitzea ere aurreikusten da, Azkoitiko Udalarekin eta Ereinekin elkarlanean; 108.000 euro dira guztira eta guk 16.000 jarriko ditugu. Ongizatean, etxe tutelatuak ekipatuko ditugu (40.000 euro); Turismoari dagokionez, Errege Seminarioko Museoren egoitza behin-behinerako Errekalden ezartzeko obrak egingo ditugu (40.000); Gazterian, merkatu azpian ludoteka eraikitzeke proiektua idaztea aurreikusi dugu, bide batez merkatua biziberritzea ere bilatuz (10.000). Azkenik, aipatu beharrekoak dira baita ere kirol instalazioak hobetzera zuzenduko diren partidak.



"Krisi egoerak baldintzatu egin ditu aurrekontuak"

egin dituztela Aldundiak garatutako Foru Arauak agintzen dituen hiru betekizunak hau da, estabilitate legea, finantza iraunkortasun legea eta gastuaren erregela.

Inbertsioak jaitsi egin dira

Inbertsioei dagokienez, "eta bizi dugun egoera kontuan hartuta", 110.000 eurotan murriztu behar dute horretara bideratutako diru kopurua Udal gobernutik aurreratu dutenez. Guztira 1.724.000 bideratuko ditu gobernu taldeak inbertsioarako, iaz baino %6,3 gutxiago, hain zuzen.

Zertan inbertitu aukeratzeko orduan, berriz, etorkizunean gastu arruntak murriztea ahalbidetarako duten inbertsioak lehenetsi dituztela azaldu dute eta hiru adibide ere eman dituzte: Alde zaharreko argiteria led teknologiarara pasatzea aurreikusi dute; ingurumenari begira, energia aurrezteko proiektua ere garatuko dute; eta uraren kontsumoa eta estolderia hobetzeko inbertsioak ere egingo dituzte, beste inbertsio batzuen artean.


EAJ eta PSE-EE aurka

Oposizioko alderdiek aurrekontuon kontra bozkatu zuten astelehenean. Alderdi jeltzaleari dagokionez, Juanje Alberdik hartu zuen hitza eta berak eman zituen batik bat, Aintzane Oiarbiderekin batera, euren ezezkoaren arrazoiak. Bate-tik, "gastu arrunta murrizteko esfortzurik ikusten ez" dutela azaldu zuen, baina bestalde, "tasak igo egiten" direla; bestetik, kezka



ATARI
KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

Bizilagun komunitateen eta garajeen gestio administratibo guztiak egiten ditugu.





Udalak. | GOIENA

Inbertsio aipagarrienak

LUDETEKA AZOKAN

Oxirondo azoka azpian ludoteka jartzeko proiektua idaztea ere hartu dute kontuan aurtengo inbertsioen artean. Horretarako 20.851 euroko partida aurreikusi dute. Merkatuaren biziberritzearekin lotuta joango litzatekeen proiektua da.

ELOSUKO PLAZA

Auzoei dagokienez, besteak beste, Elosuko plaza egokitzeko asmoa du Udal gobernu taldeak,

Azkoitiko Udalarekin eta Ereinekin elkarlanean. Aurrekontua 108.000 eurokoa da eta Udalak 16.000 jarriko ditu.



Errekaldeko jauregia. | M.B.

MEKOLALDEKO LOTUNEA

Mekolaldeko zubiko lotura aurtengo egingo dute, hango industriagunea bultzatzeko asmoz. Udalak 100.000 euro bideratuko dituz horretara.

ETXE TUTELATUAK

laz erositako etxe tutelatuak janzteko 40.000 euroko inbertsioa ere aurreikusi dute. Etxe horiek lehenbailehen erabilgarri egon daitezzen nahi du Udal gobernuak.

MUSEOAREN EGOITZA

Errege Seminarioko Museoren egoitza behin-behinerako Errekalde jauregian ezartzeko obrak ere egin nahi dituzte. 40.000 euroko partida aurreikus dute horretarako

adierazi zuen "herrirako proiektu falta" ikusten dutelako: "Herriko merkataritza edo industria bultzatzeko proiektu estrategiko falta" eta zentzu horretan, gobernu taldeak proposatutako Mekolaldeko lotunea hortik kanpo laga dute, "dirua inizatiba pribatuak jarri duelako.

AURREKONTUAREN BANAKETA

	Aurrekontua	%
Talde politikoen gastua	264.660	%3,5
Zerbitzu orokorrak	1.892.012	%0,8
Udalizaingoa eta babes zibila	951.990	%2,6
Gizarte Ongizatea	2.350.339	%2,5
Obra eta zerbitzuak	1.593.630	%3,7
Hezkuntza	680.171	%0,2
Hirigintza eta etxebizitzak	2.495.840	%8,8
Estolderia eta ura	1.511.640	%2,2
Kale garbiketa eta zabor biltzea	2.330.030	%10,0
Ingurumena	37.965	%22,0
Kultura, jaiak eta gazteria	1.426.148	%4,5
Turismoa, museoa eta ondare hist.	317.335	%13,2
Kirolak	1.923.420	%4,5
Euskara	619.615	%8,2
Auzoak eta mendiak	408.264	%12,7
Gastu finantzarioak	2.007.341	%14,0
Paga extra aurreratuak	470.000	%0,4
GUZTIRA	21.280	%100

ITURRIA: UDALA

Aintzane Oiarbide
EAJko zinegotzia



"Udal gobernuaren plan bakarra atez ateko sistema inposatzea da"

"Zerbitzuetan behera joatearekin batera tasak igo egin dira eta bergararrongandik hartzen du udalaxeak diru iturria, bergarar bakoitza ze egoeratan dagoen kontuan hartu gabe. Langabezian egon, etxea galdu, gutxi irabazi edo asko irabazi, guztiok tasen igoerei berdin aurre egin behar diegu krisi egoera honetan. Honekin ez gaude ados".

Proiektu estrategikorik ez

"Benetako esfortzua gastu arrunta murrizten egin behar du Udalaxeak, eta ez dugu esfortzu hori ikusten. Zerbitzuetan aurrekontuak murrizten hasi ziren joan den urtean eta bide berdina hartu dute oraingoan ere. Ez dago inolako laguntzarik industria eta komertzioa sustatzeko. Ez dugu aurrekontu hauetan Herriarentzat inolako proiektu estrategikorik ikusten. Udal gobernuak estrategiko bezala azaltzen duen bakarra

Mekolaldeko zubia eta errotonda berria dira baina inbertsioa, hau da, dirua, inizatiba pribatuak jarri du".

Atez atekoarekin tasa igoera

"Plan estrategikoan azaltzen diren proiektuetatik ez dago bat ere eta Bergarako Udal gobernuaren plan bakarra atez ateko biltza sistema inposatzea da. Atez atekoarekin %18ko tasa igoera aurreikusten dira Mankomunitatean (hondakin biltza selektiboan gastu arruntak %84 igotzen dira eta hiri hondakinen gastu arruntak %15. Apiriletik hasita eta Bergara eta Oñati bakarrak kontutan hartuta, milioi bat euro), baina EAJ-PNVren susmoa da igoerak askoz handiagoak izango direla datoen urteetan orain hartzen ari diren erabakien ondorioz. Zalantzak ditugu Epeleko zabortegia ixteko dagoen diru fondoa honetarako erabiltzea legezkoa den eta ze ondorio ekar ditzakeen. Ez dakigu zehazki sistema honen kostea zein izango den, ez da aurrekontuetan islatzen proiektu argirik.

Udan ezarriko dutela esan dute baina ez dakigu bukatu gabe dagoen proiektu baten kostea nola eta noiz ordainduko den. Herriaren gehiengoa aurka dagoen biltza sistema da aurrekontu hauetan proiektu estrategikoa".

M. Carmen Barrenetxea
PSE-EEko zinegotzia



"Lanpostuak sustatzera 29.300 euro bideratzea gutxi da"

"Hiru arrazoiengatik gaude kontra. Batetik, ez dutelako gurekin batzarrak sustatu, gure proposamenak aurrekontuetan sartzeko. Bestetik, itxurazkoak direla uste dugu: ez dutelako islatzen aurrekontu-ekitaldiaren errealitatea eta aurreko urtekoaren kalkoa dira. Aurrekontu soilak dira eta inbertsioak erabat urriak. Azkenik, gastu sozialei eta Mizpirualdeko transferentziaren partidari dagokienez, Aldundiaren erabateko ardura falta salatzen jarraitzen dugu; ez da bere eskuduntzen kargu eginen eta ia milioi erdi gastatzera behartzen gaitu. Diru horrekin familia askori laguntzeko moduan egongo ginateke. Lana sustatzera 29.300 bideratzea gutxi dela uste dugu, eta lana sortzeko plan bat egin beharko litzateke".

"Desitxuratzen ari dira bileren emaitza guztiz txukuna"

M.B. | BERGARA

Jexux Elortza alkateak egin-dako deklarazio batzuen "erabilera ezegokiaren" hari-ara oharra bidali du Udal gobernuak. Zehazki otsailaren 14an herriko 100 ataritako bizilagunekin egindako bilere buruzko balorazioa egiteko prentsaurrekoan esandakoen harira bidaldi dute oharra. Eta halaxe dio: "Prentsaurrekoan kazetari batek bileretara joandako pertsonen jarreraz galdetu zion alkateari eta honek erantzun zion orokorrean bilerak ondo joan direla, elkarrizketa bideratu dela eta balorazio ona eginen zuela. Kazetariak, 'bileratara joan diren guztiak izan dute jarrera ona?' -berri ere-, 'tira, beti egoten da ardi beltzen bat', alkatearen erantzuna".

Bada, oharrean jasotzen denez, "adierazpen hau erabat testuingurutik atera da, eta bileren emaitza txukuna desitxuratzen ari da modu guztiz interesatuan.

Izan ere, 'ardi beltza' esanda bilera batean pertsona konkretu batek Udaleko ordezkarienganako izan zuen jarrera bortitza eta guztiz gizalegez kanpokoari egin zion erreferentzia alkateak".

"Ez-ohiko jarrerak"

Horren guztiaren aurrean argi laga nahi dute "guztiz ez ohikoak izan direla horrelako jarrerak eta, oro har, herritarren aldetik bilerotan egin diren adierazpenak, biltza sistemaren aldeko nahiz kontrakoak izan, modu txukunean egin direla eta herritarrek oso ondo baloratu izan dutela beraingana hurbiltzea.

Horrekin guztiarekin batera, barkamena ere eskatzen du Udal gobernu taldeak oharrean: "Ohar horren bitartez barkamena eskatu nahi diegu adierazpen honegatik irainduta sentitu diren herritarrei".

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

ESPOLON



School of English

Ibargarai 31. Barruko Plaza
BERGARA

Tel.: 943 76 03 53 • 943 53 29 65

espolon@euskalnet.net

INGELES
KLASEAK

Maila guztiak

- CAMBRIDGE-EKO UNIBERTSITATEKO AZTERKETARAKO PRESTAKETA (KET, PET, FIRST CERTIFICATE, ADVANCED, PROFICIENCY)
- H.E.O.
- Talde txikiak
- Goizez eta arratsaldez



Leiho isolatzaileak
PVC, aluminioa, beira, egurra

Aitor Zabaleta Agirre
Amillaga 5 behea
BERGARA

E-posta.: txipi@txipi.com
www.txipi.com

606 58 18 10 - www.txipi.com

Bilketa moduak zehazteko parte-hartze saioak hasiko dira

- ▶ Errefusa eta organikoa esekitokien bidez batuko da, atez ate
- ▶ Papera eta kartoia eta ontzi arinak nola bildu herritarrek erabakiko dute

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Errefusa eta organikoa atez ate bilduko dira Bergaran, eta papera eta ontzi arinen bilketa nola egin herritarrek erabakiko dute. Horixe da Bergarako Udal Gobernuaren proposamena, "guztion artean Bergarara hobekien egokitzen den sistema bilatzeko". Hondakin ateratzeko ordutegia eta bilketa puntuak ere herritarrek erabakiko dituzte datozen bi asteetan egingo dituzten zazpi saio parte-hartzaileetan.

Errefusa eta organikoa

Birziklagarria dena banaturik jasotzea ziurtatuko duen bilketa sistema ezarri nahi du Bergarako Udal Gobernuak, gutxienez %75-80ko gaikako bilketa ahalbideratzen duen sistema, eta helburu horrekin hartu ditu erabaki horiek.

"Berez birziklagarria dena organiko eta errefusarekin nahastu badugu, ezin da birziklatu, zabor bihurtzen da. Gaikako bilketa ezinbestekoa da guztiok bi frakzio horiek ondo bereiztea, eta horregatik atez ate jasoko dira", azaldu zuen Leire Iruinek, Ingurumen zinegotziak, atzo Udal Gobernuak osoko bilkuren aretoan egindako prentsurrekoan. "Bilketa indibidual honek ahalbideratzen du organikoa gaizki bereizten duen norbanakoari ondo egiten erakutsi ahal izatea. Bestalde, bosgarren edukiontziarekin batek gaizki egiten badu, ontzi guztia zapuztuko luke", gaineratu zuen. Bi frakzioak atez ate biltzeko, egungo zaborraren edukiontzia berdea kendu egingo dute, "horrek ahalbideratzen baitu bereizketa borondatezkoa izatea".

Papera, kartoia, ontzi arinak

Papera eta ontzi arinen bilketa buruz, bi proposamen egiten dizkie Udalak herritarrei, eurek erabaki dezaten: bi materia horiek edukiontzietan bildu orain arte egiten den moduan edo atez ate bildu esekitokien bidez. Papera atez ate biltzea erabakitzen bada,



Eguazten iluntzean azaldu zuen proposamena Udal Gobernuak. | O.E.

PARTE-HARTZE SAIOAK NOIZ ETA NON

EGUNA	ORDUA	LEKUA	NORI ZUZENDUA
Martxoak 5	18:30	Ipintza institutua	Matxiategi, San Lorenzo eta Zubieta ingurua
Martxoak 6	18:30	Aranzadi ikastola	Bolu, Burdiñate eta Frontoi ingurua
Martxoak 7	10:00	Osoko bilkuren aretoa	Herritar guztiendako irekia
Martxoak 7	18:30	Aranzadi ikastola	Ibargarai, Torrekua, Espoloia eta Zabalotegi ingurua
Martxoak 12	18:30	Labegarieta	San Antoniotik Labegarietara
Martxoak 13	18:30	Aranzadi ikastola	Alde zaharra
Martxoak 14	18:30	Osintxu	Osintxu

ITURRIA: BERGARAKO UDALA

beste bi aukera ditu herritarrek: nork bere papera jasotzea kuboan edo edukiontzia handi bat jartzea atarian. Kasu horretan, familia bakoitzak nahi duenean bota dezake papera eta kartoia, eta arduradun batek finkatutako egun eta orduan atera beharko luke bilketa puntura.

Bi hondakin horiek orain arte bezala edukiontzietan biltzen jarraitzea erabakitzen bada, hiru hilabeteko probaldia egongo da. "Denbora horretan ikusiko da jendeak ondo birziklatzen duen edo ez. Ondo eginez gero, egungo kopurua baino altuagoa izan beharko litzateke. Gaizki egiten bada, atez ateko sistema aplikatu beharko genuke materia horietan ere", esan zuen Iruinek. Bi

aukera hauetako bakoitzak zer eskaintzen edo eskatzen duen jakiteko eta herritarrek egingo diren parte-hartze saioak noiz eta non diren azaltzeko, eskuorriak etxetik etxe banatuko ditu Udalak aste honetatik aurrera.

Beiraren, olioaren eta oihalen edukiontzia mantendu egingo dituzte.

Ordutegia

Hondakin bilketa gauzez egingo da, 23:00etatik aurrera. Hondakinak ze ordutatik aurrera atera, baina, herritarrek erabakiko dute. "Posible da, gainera, neguan ordutegi bat egotea, goiztiarragoa, eta udan beste bat", zehaztu zuen Leire Iruinek, Ingurumen zinegotziak, prentsurrekoan.

Hilabeteko hausnarketa hasi du B-26 mugimenduak

Martitzeneko batzarrean edo Internet bidez jaso nahi ditu herritarren iritzia eta ekarpenak

O.E. | BERGARA

Hilabete inguruko hausnarketa sasoia hasi du B-26 mugimenduak. Orain arte egindako lana ondo baloratzen du mugimenduak, baina egoerak eskatzen duen adinako erantzuna ematen ari ote den jakin nahi du abian jarri duen hausnarketa prozesu horren bitartez.

Internetez ere bai

Hausnarketa egiteko bi bide erabiliko ditu: batzarra eta Internet. Batzarra martxoaren 5ean egingo du, datorren martitzenean. Irekia izango da eta kultura etxean egingo da, 18:00etan. Bere ekarpena Internet bidez egin nahi duen herritarrek, berriz, mugimenduaren helbide elektronikora bidal dezake

bere hausnarketa. Hauxe da helbidea: b26mugimendua@gmail.com.

Mugimenduak galdera batzuk planteatzen ditu, herritarrek erantzun dezaten: zeintzuk izan behar dira aldarrikapen nagusiak? Zein mobilizazio mota antolatu behar ditu? Zein da antolatze modurik egokiena? Zein harreman izan behar du mugimenduak eragile sozialekin, sindikatuarekin, herritarrekin, ikasleekin...?

Irailaren 26tik gaur arte hilabetez hilabete hainbat mobilizazio egin ditu B-26 mugimenduak: etxegabeteen aurka, banketxeen lapurretak salatzeke, kontsumo arduratsuen alde, enpleguaren alde... eta hausnarketa egingo du orain.

Martxoaren 8aren bueltan, emakumeen ezkutuko lanaren balorazioari buruzko hitzaldia egunean

Nork egingo du afaria gaur gauean? Gizon eta emakumeen denbora erabilera ezberdinaren inguruko hausnarketa. Horixe izango da hitzaldiaren izenburua eta hizlaria Matxalen Legarreta izango da, Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia irakaslea. Hitzaldia, euskaraz, martxoaren 7an izango da, datorren egunean, 18:00etan, kultura etxean.

Antzerkia eta hondakin bilketa sistemari buruzko hitzaldia gaur gaztetxean

Urte honetan martxan jarriko den hondakin bilketa sistema berriak ekarriko dituen aldaketak ezagutu eta gazteek izan ditzaketan zalantzak argitzeko hitzaldia egingo dute gaur, egubakoitza, 17:00etan, gaztetxean. 22:30ean, berriz, Teatro Pezka antzerki taldeak *Incomodos* antzezlan taularatuko du. Sarrera hiru euro izango da.

Makrobiotikari buruz jardungo dute gaur, egubakoitza, iluntzean Irizar jauregian

Makrobiotikari buruzko hitzaldia egongo da gaur iluntzean, 19:00etan, Irizar jauregian. *Jateko beste modu bat* da hitzaldiaren izenburua eta makrobiotika zertan datzan azalduko du Jexux Larretxeak. Bergarara datorren hizlaria osasun arazoak tarteko heldu zen makrobiotikara. Bere esperientziak gain, makrobiotikaren onurak azalduko ditu Irizar jauregiko hitzaldian.

Aritzeta abesbatzak 34. urteurrena ospatzeko egitaraua prestatu du zaturako

Begarako Arizeta abesbatzak 34. urteurrena ospatuko du bihar, zapatua. Ospakizuna herritarrek konpartitu nahi du, eta, horregatik, herriko kaleetan egingo den ekitaldia antolatu du biharko: herriko kaleetan zehar abesten ibiliko dira abesbatzeko kideak bihar iluntzean, kalean gora eta behera. Ondoren, kideen arteko afaria egingo dute.

Martxoaren 10ean egingo du Pol-Polek mugarrin 3. etapa, eta izen-ematea zabalik dago

Datorren martxoaren 10erako antolatu du Pol-Pol taldeak mugarrin hirugarren etapa. Etapa hori Elosutik Osintxura bitarteko zatia da. Elosura joateko autobusa egongo da; frontoitik aterako da goizeko zortzietan. 60 pertsonarendako lekua dago autobusean eta joateko asmoa duenak frontoiko tabernan eman dezake izena. Hiru euro izango da autobusean joateko prezioa.

Bilketa puntuak jasotzen dituen erakusketa zabalik

Osoko bilkuren aretoan erakusketa dago bilketa puntuak non egongo diren erakusteko. Erakusketa doan bere kaleko planoen fotokopiak hartu ahal ditu. Proposamena egokia ez bazaio iruditzen, alegazioa aurkez dezake. Alegazio hori, baina, atariko bizilagun guztien izenean aurkeztu behar da. Erakusketa hilaren 21era arte dago zabalik: astelehenetik eguenera 10:00etatik 19:00etara eta egubakoitzetan 10:00etatik 14:00etara. Alegazioak aurkezteko azken eguna da martxoaren 22a. Herriko larrialdi eta ekarpen guneak ere ikusgai daude.



Erakusketa dagoen planoetako bat. | O.E.



Zapatu goizean gaztelekuan egin zuten batzarrean ateratako argazkia. | UBANE MADERA

Gazteen gunea ez ezik, kultur ekimenak egiteko tokia ere bada gaztelekua

- ▶ Tabernaren kudeketa herriko taldeek hartu ahal izango dute
- ▶ Zapatu goizean egindako herri batzarrean adostu zituzten erabakiak

TXOMIN MADINA | OÑATI

Egun egiten den bezala, herriko gaztetxoendako leku izateaz gain, kultur ekimen ezberdinak aurrera eramateko lekua ere izatea. Horixe da duela ia urtebetetik hona Oñatiko gaztelekuari buruz egindako hausnarketa prozesuaren ondorio nagusienetakoa.

Honetaz gainera, euskara bultzatzea, gazteendako ekitaldi gehiago antolatzea edo ordutegian moldaketa batzuk egitea ere aurreikusten da. Esaterako, kubo aurrerantzean astean zehar ere zabalik egongo da. "Behin gazteleku jarduera hori itxita, 21:00etan zabaldu ahal izango da beste

publiko batendako egokiagoak izan daitezkeen jarduerak egiteko, ikastaroak, kontzertuak edo antzerkiak, esate baterako", azaldu du Jon Lopez gazteria teknikariak.

Joan den zapatu goizean egin zuten herri batzarra gaztelekuan Gazteria herrijoan ekimenean

aztertutako eta sortutako zalan-tzak eta erabakiak eztabaidatzeko eta adosteko. Herriko hainbat gazte eta gazteriako teknikaria bera eta zinegotzia, Xabi Pico, elkartu ziren deialdi horretan.

Tabernaren kudeaketa

Gaztelekuko tabernari dagokionez, ez du udalak kudeatuko. Horren partez, gauean ekitaldiaren bat dagoenerako, herriko elkarte interesatuekin zerrenda bat egingo da eta hauei proposatuko zaie tabernaren ardura hartzea. "Ez badago jenderik, zerrendatik tira egingo dugu, protokoloa azaldu eta giza mugimendu horiek izango dute ardura taberna kudeatzeko. Hor ateratako irabazia taldearendako izango litzateke", zehaztu du Lopezek

Izena, berdina

Aldatuko ez dena izena da, gaztelekua izaten jarraituko du-eta. Asmoa zen baita ere kultur eskaintza kudeatzeko batzar bat sortzea, baina azkenean ez dute horretarako taldea sortzerik lortu. Zentzu horretan, Jon Lopezek gaineratzen du gaztelekuaren eta gaztetxearen artean harreman zuzena dagoela eta ekintzak antolatzeko orduan elkarrekin koordinatzen direla. "Egia da gazteek irailean Antixena okupatu zutenetik jende kopurua murriztu dela, baina balorazioa positiboa da", nabarmendu du Lopezek.

Etorbizuneko eronkei buruz galdetuta, helburua da dinamika berriak egonkortzea, eta gazteen artean ez ezik, herritar guztiendako erreferente izatea gaztelekua. Maiatzera bitartean gainera, hainbat hitzordu prestatu dituzte, besteak beste Gozategi eta Ze esatek taldeen kontzertuak, haurrendako antzerkiak edo Oihan Vega bergararraren monologo ekitaldia.

JON LOPEZ
GAZTERIA TEKNIKARIA

"Sekulako ekipamendua du gaztelekuak, aukera handiak ematen ditu"

Martxoaren 19an egingo du Jon Lopez arrasatearrak urtebete Oñatiko gazte teknikari lanetan.



TXOMIN MADINA

Nolako urtea izan da?

Urte ona. Herrijoan prozesuak harrapatu ninduen etorri berri-tan, eta gaztelekuaren etorkizuna definitzeko ekimen horretan gustura ibili naiz. Erronka pertsonal moduan ere ikusten dut hori.

Zerk harritu zintuen?

Gaztelekuak duen ekipamendua. Sorpresa handia izan zen hori niretako. Ekipamendu oso ona du, aukera handiak ematen ditu. Herriko edozein taldek antolatu dezakeen edozein ekimen gauzatzeko modukoa da. Uste dut hori izan behar dela hemendik aurrerako erronka, dinamika berri honi eustea eta gaztelekuko herriko ekipamendu erreferente izatea.

Nolakoak dira gazteak?

Bergara eta Arrasate ondo ezagutzen ditut, eta Oñatiko gazteria beste bi herri horietakoa baino biziagoa dela iruditzen zait.

Eta oñatiarrak?

Nabarmena da duten sentimendu herrikoia, oñatiarrak dira; urtebete nahikoa izan da hori egiaztatzeko.



Martitzen iluntzean Foruen plazan egindako prentsaurrekoa. | A.T.

Oñatiko Herrirak martitzeneko deitu zuen prentsaurrekoan Mikel Biain Oñatiko alka-teak azaldu zuen 83 euskal preso politikori ezarri zaiela doktrina eta gaur egun 67 direla doktrina aplikatuta kartzelan dauden presoak. "Ez dugu onartzen. Ezin dugu onartu. Euskal presoan aurkako neurriak gogortzera bideraturik dauden erabaki hauen xede bakarra euskal presoan aurka bizi arteko zigorra aplikatzea da" esan zuen Biainek.

Jaenera martxa

Amaitzeko, bi dei luzatu zieten herritarrei. Xabin Usandizaga oñatiarrari elkartasuna adierazteko martxoaren 16an Jaenera egingo den martxan parte hartzeko eta martxoaren 20an 197/2006 doktrinaren aurka Oñatin egingo den manifestazioan parte hartzeko. Jaenerako martxarako autobusen txartelak Arrano tabernan daude salgai.

Martxa hori Arrasateko Herri-rarekin batera antolatu dute, Jesus Mari Zabarte preso arrasatearra ere han dagoelako espetxeratua eta hari ere 197/2006 doktrina aplikatu diotelako.

197/2006 doktrina bertan behera uzteko eskatu dute

Hilaren 16rako Jaenera martxa deitu du Herrirak, Xabin Usandizagari elkartasuna adierazteko

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

197/2006 doktrina bertan behera uzteko eskatu zuten martitzenean Oñatin, Herrirak deitutako prentsaurrekoan. Xabin Usandizaga oñatiar presoari doktrina hori aplikatu zaio eta Oñatiko Herri-

rak eskaini zuen prentsaurrekoan izan zirenek esan zuten ezin dute-la hori onartu. Deia luzatu zuten martxoaren 16an Jaenera egingo den martxan eta martxoaren 20an herrian egingo den manifestaldian parte hartzeko.



Zerbitzua egingo duen autobusetako bat. | CUADRABUS

Cuadrabus konpainiak egingo ditu Oñatitik Arantzazurako bidaiak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Domekan, martxoak 3, hasiko da lanean Gasteizko autobus konpainia Oñati eta Arantzazu lotzen dituen linea hori egiten. Autobusa, orain artekoa baino txikiagoa izango da.

Ordutegi bera

Orain arte Pesa konpainiak betetzen zuen zerbitzua, baina domekatik aurrera Cuadrabus

konpainiak eskeiniko du zerbitzu hori, orain arteko autobus txikiago batekin.

Ordutegia, bestalde, berdina izango da. Oñatitik 07:30ean aterako da lehena eta 18:30ean azkena; 13:30etik 16:30era atsedena egongo da. Arantzazutik, berriz, 08:00etan izango da lehena eta 18:00etan azkena; 16:00etatik 17:15ak arte ez da zerbitzurik egongo.



Urtarril erdialdean bukatu zituzten San Lorentzoko futbol zelaiako lanak. | JULEN IRIONDO

San Lorentzoko futbol zelaiaren araudia prestatu du Udalak

Beteranoek ez dute iritzia aldatu eta ez dute instalazio horretan jokatu gura

OIHANA ELORTZA | OÑATI

San Lorentzoko futbol zelaiaren erabilera arautzen duen araudia prestatu du Udalak. Alokairuan erabiliko da, eta datozen astetan zabaldu egingo dute, edozeinek erabili eta probatzeko.

Herritarrek erabiltzeko

"Egia da lehentasuna Larrañako institutuko ikasleek izango dutela, baina eskolako ordutegitik kanpo edozein herritarrek erabili ahal izango du", aurreratu du Ainhoa Martinek, Udaleko Kirol zinegotziak.

Erabiltzeko moduari buruz Martinek argitu du alokairu zerbitzuan eskainiko dela instalazio hori. "Erabili gura duenak Zubikoa kiroldegian eman beharko du izena, eta erabili gura dituen datak edo orduak zehaztu. Hantxe lotuko da alokairua. Hala ere, ate

irekietan egiten den moduan, zabalik egingo da denbora batez. Laster izango da hori". Bestalde, Aloña Mendiko talde batzuen entrenamenduak han egiteko aukera ere aztertu gura du Udalak herriko kirol taldearekin, eta hori adosteko harremanetan dabilza alde biak.

San Lorentzoko futbol zelaia erabiltzeko moduan dagoen arren, inaugurazio ekitaldi bat ere egin gura du Udalak, eguna zehazteke duen arren.

Beteranoak

Bestalde, Beteranoak HF taldeko kideek 11ko futboleko jokatzeko gurago dutela diote oraindik, eta, beraz, San Lorentzoko futbol zelaia ez erabiltzeko abenduan hartutako erabakiari eusten diote. "Lehen hartutako erabaki hori bere horretan dago, ez da aldaketarik egon.

11ko futboleko jokatu gura dugu guk, eta, instalazio horrek hori ez duenez ahalbideratzen, Azkoagainen jokatzeko jarraituko dugu", dio beteranoen zuzendaritzako kide batek.

Horrekin batera, aspalditxoan zabaldu den zurrumurrua gezurtatu egin gura izan du zuzendaritzako kideak. Izan ere, beteranoek 8ko futboleko ligaxka bat antolatu ohi dute irailerako, eta aurtun txapelketa hori San Lorentzoko jokatu duen zurrumurrua zabaldu da kalean. "Neuk ere entzun dut, baina ez dakit nondik ateratzen den kontu hori. Horri buruz ez dugu hitz egin zuzendaritzako bileretan. Gai hori ez da orain arte ateratu gure bileretan, eta, beraz, oraingoan, hori ez da egia, ez dugulako horren inguruan ezer eztabaidatu, ezta adostu ere", argitu du.

Oñatiko lehenengo lilatoia egingo da martxoaren 8an San Foruen plazan

O.E. | OÑATI

Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldi bat baino gehiago antolatu dira Oñatin datozen egunetarako.

Esaterako, Oñatiko lehenengo lilatoia antolatu du herriko emakume sareak Martxoaren 8rako. Andraitz feminista taldeak eta Abixaran taldeak dei egin dute parte hartzeko. Lau kilometroko ibilbidea izango du lasterketak eta Foruen plazatik abiatuko da, 18:00etan.

Hilaren 9an, berriz, herriko emakumeen argazkia aterako dute Foruen plazan, 13:00etan, eta 14:00etan Oñatiko emakumeek bazkari erraldoia egingo dute

Zubikoa kiroldegian. Txartelak dagoeneko salgai daude herriko hainbat tabernatan.

Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, berriz, hilaren 9an Pottola antzezlana ekarriko dute Santa Anara eta 13an eta 14an hitzaldiak egingo dira, hizkuntza sexistari eta ekonomia eta emakumeari buruz. Martxoaren 8an, bestalde, ikasleendako filma eskainiko dute, 12:00etan, kultura etxean. Gainera, astelehenean hasiko da mendekotasun emozionala edo autonomia landuko duen tailerra eta martxoko zineklubean eta Ostegun Kontalariak ekimeneko filma eta ipuina ere bereziki aukatatuak izango dira.

Arrano elkarteak ospatu dute aurtengo Arrano-Aitz eguna

Domekan, 09:30ean, saiakera egin arren, elurraren ondorioz Arrano-Aitzera ezin igo geratu ziren 4x4 ibilgailuekin bertaratzen saiatu zirenak. Ondorioz, oinez igotzen animatu zen lagun taldeak ere buelta hartu eta ospakizuna eta omenaldia herriko Arrano elkartearen egin zuten. Dantzariak aurrekuarekin omendu zituzten "gaurko eta atzoko gudariak". Ondoren, denendako salda eta txorizoa, nahi adina izan zen Arrano Elkartearen bertan. Guztira 60 lagun inguru batu ziren aurtengo Arrano-Aitz eguna ospatzeko.

Zuhaitz azoka bihar eta lehen zuhaitz landatzea domekan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Natur Eskolak deituta, X. zuhaitz azoka egingo dute bihar, zapatua, goizean, Foruen plazan. Eta domekan zuhaitz landatzea egingo dute Kasablankako bidegorrian. Martxoan, baina, beste zuhaitz landatze bat ere egingo da, Aloñan, hain zuzen ere, Aloñako Lagunak taldeak deituta. Martxoaren 17an izango da hori.

Zortzi mintegi

Biharko zuhaitz azokan zuhaitz landareak eta apaindurazkoak ekarriko dituzten zortzi mintegi etorriko dira. Pasaiatik, Zumaiatik eta Tafallatik etorriko dira, besteak beste. Tartean egongo da Ana Idigoras oñatiarra ere. Zuhaitz azoka Foruen plazan egingo da, Artzain Egunarekin batera. Horrela, plaza-

ko gune bat azokak hartuko du eta beste zati bat Mankomunitateak antolatutako II. Artzain Egunak. 09:00etatik 14:30era izango dira biak ere.

Fruta-arbolak eta lizarrak

Bestalde, domeka goizean (10:00etan plazan) egingo dute Natur Eskolak deitutako zuhaitz landatzea. 120 zuhaitz landatuko dituzte Kasablankatik Ulmara bitartean egin duten bidegorrian. Horietatik 50 basoko fruta-arbolak izango dira (gereziendoak, sagarrondoak eta madariondoak tartean). Zumarrak eta haritzak ere landatuko dituzte.

Aloñako Lagunak antolatutako zuhaitz landatzea, berriz, martxoaren 17an izango da. Joan gura duenak Patrua kaleko Fernando Maiztegi komertzioan eman dezake izena.



Joan den urtean egindako zuhaitz azoka. | GOIENA

Gantxilloz apainduko dituzte zuhaitzak plazan

O.E. | OÑATI

Urban knitting-a egingo dute zapatu goizean Foruen plazan. Hau da, gantxilloz apainduko dituzte herriko plazako zuhaitzak. Artzain Egunaren barruan egingo dute. Debagoieneko Kroxters taldeko kideen eskutik dator ekimena eta gantxilloa egiten dakiten oñatiar guztiak daude gonbidatuta ekimenean parte hartzera.

'Urban knitting'-a

Orratza eta haria erabilia kaleko elementuak apaintzean datza urban knitting delako filosofia. Euskal Herriko hiriburu ezberdinetan ikusi izan dira horrelako ekimenak, eta zapatuan Oñatin ere egingo dute.

Debagoieneko Kroxters taldearen ekimena izan da. "Gantxilloa, artilea eta orratzak eskuetan hartu eta elkarrekin egon eta gustukoak ditugun eskulanak egiteko elkartzen



Zuhaitza apainduta. | APRENDEOLMEDO.ES

gara taldean. Puntua, gantxilloa edo orratz lanak egitea gustatzen zaion bailarako edonon izan daiteke kide", dio Arantzazu Lagunilla taldeko kideak. "Oñatin Artzain Eguna egingo dela aprobetxatuta Mankomunitateari azaldu genion gure ideia, ondo iruditu zitzaion eta han egongo gara Oñatiko plazako zuhaitzak gantxilloz apaintzeko".

Aloña Mendiko atletismo taldea Espainiako kros txapelketan 11.a

50 elkartek baino gehiagok parte hartu zuten Oropesako proban

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendiko atletismo saila zorioneko dago berriro. Oropesa del Marren jokatuak kirol elkarrean arteko Espainiako txapelketan 11. lekua lortu du. Era berean, Euskal Herriko lehen taldea izan da. "Emaitza oso ona da. Gu baino indartsuagoak diren taldeen kontra lehiatu gara. Talde profesionalak dira eta aurrekontu handiagoa dute. Hori horrela, 11. postuari merezi duen balioa ematen diogu", esan dute atletismo sailekoek.

Lasai hasi eta indartsu bukatu

Oropesako proba kros motzeko modalitatean jokatu zen, 11.500 metroko luzerarekin. Ibilbidea gurean egoten diren ibilbideen oso bestelakoa zen: lehorra, azkarra eta leku batzuetan harea zuena. Horrek eragina izan zuen korrikalari batzuen emaitzetan.

Guztira, 50 taldetako 285 korrikalarik hartu zuten irteera. Aloña atletak lasai irten ziren, indarrak gordetzen. Bigarren itzulian 26. lekuan zeuden. Itzuliz itzuli, postuak irabazi zituzten 11. lekuan bukatu arte.

Sergio Gartzia, Alberto Revuelta, Tasio, Unai Hernandez, Andoni Correas eta Yeray Varela izan ziren Aloña Mendiren ordezkariak. Guztiek egin zuten lan bikaina, baina, bereziki, Varelaren proba azpimarratu dute atletismo sailekoek: "Lasterketa perfektua egin du. Hasierako itzulian 115. lekuan zegoen, baina 36.ean heldu zen helmugara. Lan ederra egin zuen. Bigarren korrikalari euskalduna izan zen".

Era berean, ezin da aipatu barik utzi Sergio Gartziazen lana. "Ez du egun ona izan, baina esfortzu handia egin du 89. lekuan heltzeko", esan dute atletismokoek.



Atletismo taldeko korrikalariak eta entrenatzailea. | ALOÑA MENDI ATLETISMO SAILA

Revueña 94. lekua heldu zen eta Tasio, 100. lekuan. Hernandez eta Correas atzerago sailkatu ziren.

Espainiakoak eta Europakoak

Aloña atletak beste hitzordu batzuk dituzte aste bukaeran: Marisol Ramosek, Jose Luis Gartzia eta Juan Carlos Ugartek pista estaliko Espainiako betaroen txapelketan parte hartuko dute. Ondoren, elkarteko 13 ordezkariak Europako txapelketan parte hartuko dute: martxoaren 19tik 23ra, Anoetan.

ko lekua dago literadun autobusean, eta izena eman ahala banatuko dituzte lekuak.

Bi estazio lotuta

Aloña Mendiko eski sailak ez du bidaiaren prezioa zehaztu. "Parte-hartzaile kopuruaren arabera izango da", esan digute.

Badakitena da azken prezioaren barruan aseguru, forfaita, astebeteko egonaldia eta autobusa sartzen direla.

Forfaita zertxobait garestiagoa izango da. "La Plagne eta Les Arcs estazioak teleferiko handi batek lotzen ditu. Guk bietan eskiatzeko forfaita izango dugu", esan dute eski sailekoek.

Astebeteko eski irteera egingo dute, Pazko astean, Alpeetara

M.B. | OÑATI

Aloña Mendiko eski sailak astebeteko irteera antolatu du Pazko asterako. Hain zuzen, martxoaren 29tik apirilaren 6ra arte joango dira Alpeetako Le Plagne eta Les Arcs eski estazioetara. Interesatuak izena eman dezakete leireguene@yahoo.es helbidean edo 649 315 015 telefonoan. Izena emateko azken eguna martxoaren 22a da.

Literadun autobusa

Aloña Mendiko eski sailak ez ditu aste bukaerako irteerak antolatu, baina, zaleen eskaera aintzat hartuta, Pazko asteko egitea erabaki du. 45 lagunenda-

'La cueva de los sueños olvidados' filma hiru dimentsiotan ikusteko azken aukera gaur, egubakoitza

Emanaldia 19:30ean izango da kultura etxean

M.B. | OÑATI

Werner Herzog alemaniarren *La cueva de los sueños olvidados* dokumentala 3Dn ikusteko azken aukera dago gaur, egubakoitza (kultura etxea, 19:30). Formatu horretan Oñatin ematen den lehen filma izan da.

Sarreran banatuko dituzte betaurreko bereziak.

Emanaldi puntuala

Natur Eskolak antolatu duen ingurumen jardunaldien barruan ekarri dute Wernerren dokumentala. Emanaldi hori, baina, puntuala izan da; hau da, Oñatiko Udalak ez du aurreikusten

3D filmak maiztasun jakin batekin eskaintzea, oraingoz.

Oñatiko filmen proiektorea ez dago prestatuta hiru dimentsioko filmak emateko. Bai, ordea, hori ahalbideratzen duen aparailua ipintzeko. "Dokumental honek merezi zuen hiru dimentsiotan botatzea, eta horregatik erabaki dugu horretarako aparailua alokatzea, baina, oraingoz, 3Dko filmak ez dira maiztasun jakin batekin eskainiko. Lehenengo, ikusi eta baloratu egin behar dugu herritarrek zinemara joateko duten ohitura", dio Manu Egañak, Kultura zinegotziak.

'OK magazine': Oñatiko kirolari jarraipena egingo dion atari berria aurkeztuko dute gaur Santa Anan

Oñatiko kirolarien lanaren jarraipena egingo duen ataria aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 18:30ean: *OK magazine*. Aratz Losadak kudeatuko duen webgunean, herriko kirol taldeen emaitzak, partiduak eta elkarriketak batuko ditu. Gaurko aurkezpen ekitaldian emango ditu atariaren nondik norakoak: landuko dituzten gaiak, atariak duen itxura eta helbidea. Kirolarekin zerikusia duten eragileei eta zaleei egin die deialdia, baina ekitaldia irekia da.



LASTER LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA GUREAN!

Lanbide bat ikasi nahi duzu, baina ez dakizu nondik hasi?

Langabezia zaude eta lan aukerak zabaldu nahi dituzu?

Edota esperientzia handia duzu lanbide batean, baina titulurik ez?

Lanbide Heziketa izan daiteke zure aukera!

GOIAZ! 2013
Lanbide Heziketaren azoka
Maiatzaren 8an eta 9an
Kulturaten, Arrasaten.

Etorri azokara eta ezagutu zure aukerak!



www.facebook.com/goiazdebagoiena



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

Xabi Kortabariak Mondragon Goi Eskola Politeknikoan Mekatronika Industrialeko goi mailako heziketa zikloa ikasi du, *Ikasi eta lan* modalitatean. Egun, Fagor Arrasaten lanean ari da. Bere esperientzia kontatuko digu hurrengo elkarriketan.



Eta praktika egin duzu?

Bi aukera genituen: praktikak ohiko moduan egitea edo Fagorren urtebeteko kontratua egitea ohiko langile moduan, eta bukatzean praktikak baliozkotzea. Guztiok aukeratu genuen bigarren aukera hau. Perutik bueltatu berri naiz, makina bat muntatzetik. Apirilean, urtea betetzean, titulua jasoko dugu.

Zer egin zitzaizun gogorrena?

Gogorrena lana eta ikasketak bateratzea izan da, eskolako lanak egiteko denbora laburra izaten nuelako. Baina irakasleek malgutasunez jokatu zuten lanean ari ginenekin.

Zer azpimarratuko zenuke Lanbide Heziketatik?

Ikasketak hauek interesgarriak dira, oso arlo zabala hartzen dutelako: pneumatika, hidraulika, mekanika, instalazioa, mantenua, eta abar. Eta gainera, lanerako gertatzen zaituzte.

Arlo profesionallean onuririk izan al du Lanbide Heziketako ikasketak egin izana?

Bai, noski. Ikasten ari nintzela egun erdiz eta azken urtean egun osoz lanean ibili naiz benetako enpresa batean. Apirilean kontratua bukatzen zait eta titulua eskuratuko dut. Bertan jarraitalean lan egiten...

Zer dela-eta hasi zinen Lanbide Heziketa ikasten?

Batxilergotik zuzenean Lanbide Heziketara salto egin nuen. Arlo industrialeko ziklo hau egiten hasi aurretik goi mailako beste bi ziklo nituen eginak: Diseinu Grafikoa eta Argitalpen Produktzioa.

Zerk bultzatu zintuen Lanbide Heziketa ikastera?

Ikasitako arloan ez nuen lanik aurkitzen, mantenu arloko ziklo hau egitea erabaki nuen. Betidanik gustatu izan zait gauzak muntatu eta desmuntatzea, eta, inguruan enpresa industrial asko daudenez, banekien lana aurkitzea errazagoa izango zela.

Zein ezaugarri ditu *Ikasi eta lan* ikasketak modalitate berezi honek?

Zikloa ikasi bitartean, lanean ibili naiz Fagor Arrasaten. Goizez ikasi eta arratsaldez lanera. Sei ikasle ibili gara. Eskolaren eta Fagorren arteko programa bat da, eta, egia esan, asko eman dit. Eskolan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera eskaintzen du, baina, batez ere, lanerako eskatzen diren jarrerak ikasten dira: ardurak hartzen, taldean lan egiten...

IbarOsasun zerbitzua abian jarriko dute Aretxabaletako kiroldegian

Ibarra kiroldegian abiaraziko dute proiektua, martxoaren hasieran

MAITE FRAILE | ARETXABALETAKO

Aretxabaletako Ibarra kiroldegiak Mpower Saludekin batera (Fagor) diseinatutako IbarOsasun zerbitzua martxoaren hasieran abiaraziko dute. "Mpower Salud proiektu berritzailea etxeetan bideratzeko antolatuta eta landutako zerbitzuak dira, baina, kasu honetan, kiroldegietara bideratu nahi izan dugu" adierazi digu Kepa Larreak. Sei hilabeteko iraupena duen proiektu pilotua jarriko dute abian 60 abonatu-rekin.

Zerbitzu hori norberaren osasun eta ongizatea hobetzeko laguntza pertsonalizatua datza, eta teknologia hauek erabilita gauzatuko da: aplikazio informatikoa, monitorizazioa (tentsiometroa, baskula...) eta, noski, tutoreen gidaritzapean.

Hiru talde izango dira

Erabiltzailearen jomuga eta nahia- ren arabera, ezaugarri ezberdi- netako hiru talde egin dituzte: bata, modu osasuntsuan pisua galtzea; bigarrena, gaixotasun kardiobaskularren prebentzioa;



Ibarra kiroldegiko gimnasio gela. | IBARRA KIROLDEGIA

eta hirugarrena, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen osasuna hobetzea. Lehenengo taldeari dagokionez, modu osasuntsuan argaldu nahi duenak dieta orekatua, jarduera fisiko-

rako ohiturak eta emozio-egoera egokia jarraitu behar ditu; hau da, dieta miragarri eta produkturik gabe. Bigarren taldearen xede nagusia gaixotasun kardiobaskularren prebentzioa izanik,

Hiru helburu ezberdin

ARGALTZEA

Modu osasuntsuan argaldu nahi duenarentzat: dieta orekatua egitea, jarduera fisikorako ohiturak hartzea eta emozio-egoera egokia lortzea.

PREBENTZIOA

Gaixotasun kardiobaskularrek ekidin nahi dituenarentzat: elikadura osasungarria izatea, jarduera fisiko egitea eta emozio-egoera egokia lortzea.

HOBEEKUNTZA

Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonentzako (diabetesa, kolesterola, triglizeridoak, eta abar) eta osasuna hobetu nahi duen edonorendako.

zerbitzuaren erabiltzaileak elikadura osasungarria jarraitu beharko luke. Horrez gainera, jarduera fisiko praktikatu beharko luke eta emozio-egoera egokia lortu. Eta, azkenik, hirugarren taldeak helburutzat gaixotasun kronikoak (diabetesa, kolesterola, triglizeridoak, hipertentsio arteriala) dituzten pertsonen osasuna hobetzea izango luke. Norbanakoari dieta egokitu bat ezarri beharko litzaioke, jarduera fisikorako ohiturekin eta emozio-egoera egokia lortzeko xedarekin.

Laguntza pertsonalizatua

Osasunaren hobekuntza integrala eta ongizaterako balio erantsia izango du proiektu horrek: erabiltzaileari laguntza pertsonalizatua eskaintzea, hain zuzen ere. Horrela, ondorengo zerbitzuak izango dira aukeran: elikadura osasuntsua, jarduera fisiko eta ongizate emozionalari buruko tailer formatibo monografikoak, dieta orekatuan, jarduera fisikoan eta emozio-egoera osasungarrien sustapenean oinarrituriko zerbitzu pertsonalizatua eta adituen aholkularitza, besteak beste.

Zalantzak argitzeko erraza

Abonatuak zalantzak sortuz gero, turoreari galdetzez gain, *Contact Center* aplikazio informatikoa erabili ahal izango dute une oro. Nutrizioaren, ariketa fisikoaren eta kudeaketa emozionalaren gaineko edozein zalantza argitzeko aukera izango dute.

Haurren mugak izango ditu hizpide Nerea Mendizabalek astelehen honetan

Kuku Miku elkarteak antolatuta, 17:30ean hasiko da saioa elkartearen lokalean

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Kuku Miku elkarteak urtarrila ezker gurasoentzako saioak egiten dihardu eta astelehenean, martxoak 4, *Esatzen dizudana bete eta ez haserretu* gaia jorratuko dute, 17:30etik 19:30ak bitartean, elkartearen lokalean bertan.

Nerea Mendizabal psikopedagogoa arduratuko da saioa eskaintzeaz; hura izan da orain arteko hitzaldien gidaria. Hilero bat eskaini dute eta oso erantzun ona izan dute herritarren partetik, elkarteke kide Nerea Altunak

aditzera eman duenez. Urtarrilean haurtzaroaren oinarriak landu zituzten eta 20 lagunek hartu zuten parte; otsailean, berriz, errespetuzko komunikazioa izan zuten berba eta 24 lagun bertaratu ziren. "Asteleheneko kasuan, mugak izango da gai nagusia, zer-nolako muga ipini eta nola jokatu errespetatu ezean".

Mendizabalek eskainiko duen azken saioa, berriz, maiatzean izango da, eta zigorrak eta sariak ardatz izango ditu pare bat ordu iraungo duen berbaldian.

Apirilean, Nerea Mendizabalek atsedean hartuko du; baina hilaren 23an, psikomotrizitateari buruzko saioa egingo dute. "Doakoa izango da, eta Arrasateko Herri Eskolatik etorriko dira saioa ematera".

Herritarrei deia

Orain arteko saioen gaiak elkarteke kideen beharren arabera hautatu dituzte. "Baina edozein herritarrek aukera dauka gurea etorri eta gai bat proposatzeko. Ateak irekita dituzue!".

Bertso-afaria egingo dute gaur Jon Maia eta Aitor Sarriegirekin

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Loramendi euskara elkarteak antolatuta, Jon Maia eta Aitor Sarriegirekin bertso-afaria egingo dute gaur, 21:00etan, Aretxabaletako Uratz Alde elkartearen.

Loramendi elkarteke kideak arduratzen dira afaria prestatzeaz, eta ez da nolana hiko lana izango, 77 lagun elkarteko baitira gaur Aretxabaletan.

Hitzordu arrakastatsua

Loramendi elkarteak azken urteetan bere agendan sartutako hitzordua da bertso-afariarena. "Arrakasta handia

izaten du urtero", elkarteke kideen esanetan. Gaurko hitzordua ez da salbuespena izango, datuek adierazten dutenez: 75 lagunek har dezakete parte, eta, sarrerak salgai ipini zituztenetik, bide onetik joan dira salmentak. "Urtero bezala, guztiak saldu dira".

Besteak beste, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Igor Elortza eta Andoni Egaña bertsolariak izan dira aurreko urteetako protagonistak. "Beti gura izan dugu puntako bertsolariak ekarri, eta Maia eta Sarriegi ere profil hori daukate, noski".

60 urte baino gehiago

Arkauz zure etxea da.

Emakumea protagonista izango da martxoan, hainbat ekimenekin

Ekimen ugari antolatu dituzte Kultura eta Berdintasun sailek elkarlanean

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Hilabete honetan emakumea protagonista izango da Aretxabaletan; kultura gidak emakumea izango du ardatz, eta ekimen ugari antolatu dituzte: erakusketak, antzerkia, agerraldiak eta kontzertuak... Inma de Miguel Kultura teknikariak adierazi duenez, Udaleko Kultura eta Berdintasun sailek elkarlanean modu horretan antolatu izan dute martxoa azken bost urteotan.

Emakume komikigileak

Hogeita hamar emakume komikigileren lanak ikusgai egongo dira Arkupen, gaurtik hilaren 31ra. *Emakume komikigileak. Istoriotxo, komiki eta tebeoen egileak* du izena eta 60ko hamarkada ezkeroko zenbait artistaren obrak ezagutzeko aukera egongo da; Gloeckner, Abel, Doucet eta Satrapi komikigileenak, besteak beste.

"Komikia ez da soilik istorio bat, artea ere bada. Erakusketan dauden autoreek askotariko teknikak erabiltzen dituzte: koloretan, zuri-beltzean, marrazki deskriptiboa eginda..."

Hitzaldia, antzerkia, zinema...

Datorren astelehenean, Tene Muxika beka irabazi zuen *Alda-*



Virginia Imazek *Encantadas* ikuskizuna eskainiko du. | TOPALEKU

menekoa liburuaren gaineko solasaldia egingo dute Zaraia aretoan, 19:00etan. Eta Ainara Gorostizu nobelaren egilea ere bertan egongo da.

Eguaztenean, martxoak 6, Virginia Imazek *Encantadas* lana eskainiko du Zaraian, 19:00etan. Gazte eta helduentzako *clown* ikuskizuna da, eta printze urdina agertu ez zaion emakumearen istorioa kontatzen du. Zineklubak ere emakumea izango du ardatz. Martxoaren 7an *De tu ventana a*

la mía eskainiko dute; *¿Y ahora adónde vamos?* hilaren 14an; eta *Más allá de las colinas* 21ean.

Martxoaren 8ko aldarria

Martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunarekin lotuta, emakumeen eskubideak aldarrikatzeko agerraldia egingo dute plazan, 18:00etan, *Feminismoaren bidetik, emakumeak libre!* lelopean. On eta Kokein taldeen kontzertuaz borobilduko dute eguna, Kurtzebarriko kantuan, 22:00etan.

Ohorezko maila gertuago dute herriko xakelariak

Lehenengo postuan dago Arrasate-Arlutz A taldea eta bi jardunaldi bakarrik geratzen dira

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Astetik astera eta urratsez urrats, Arrasate-Arlutz taldeko lehenengo mailako kideek ohorezko mailara igotzeko aukera geroz eta gertuago daukate.

Zazpigarrena, irabazi

Euskal Ligako lehenengo mailan dihardu Arrasate-Arlutz taldeak eta joan den asteburuan zazpigarren jardunaldia jokatu zuten Aretxabaletan bertan.

Gasteizko Calasanz taldea izan zuten aurrez aurre, eta 3-1 irabazi zuen etxeko taldeak. Arrasate-Arlutz A taldeko Fran Miguelek berdinketa erdietsi zuen Gasteizko Carlos Pastorren kontra, 0,5 eginda; Andoni Miguelek Josetxu Knörren aurka jokatutako partida berdina amaitu zen. Aitor Alcaidek 1-0 irabazi zion Ander Marchenari eta Asier Etxagibekek garaipena eskuratu zuen Alberto Gartziaeren kontra. Azken emaitza, aurreatu bezala, 3-1 izan zen.

Helburua betetzear

Liga amaitzeko bi jardunaldi besterik ez da geratzen eta bihar Easo taldearen kontra Donostian

jokatuko duten partida irabaztea izango da lehenengo mailako kideen aste honetako erronka.

Ohorezko mailara igo gura du taldeak, Aitor Alcaideren esanetan: "Gure helburua betetzear egongo gara aste honetan emaitza ona lortuz gero". Izan ere, momentu honetan lehenengo postuan dago Arrasate-Arlutz A taldea eta helburua erdieste-ko aukerak handiak dira. "Lehenengo biak igotzen dira, eta Sestao B ezin da igo, ohorezko mailan Sestao A dagoelako". Hala, aurkari bat gutxiago dute begi bistan.

Ligako azken partida Bilboko Alhondigan jokatuko dute eta bi mailetako talde guztiak batera arituko dira, "euskal xake jaialdi antzerako batean".

Gainerako xake taldeak

Arrasate-Arlutz B taldeak bina berdindu zuen C. Iriondo taldearen aurka eta 10. postuan dago. Arrasate-Arlutz C taldeak galdu egin zuen Villabona Aren aurka eta 9.a da. Arrasate-Arlutz Dk jokatuko beharrekoa bertan beharra gelditu zen.

Aretxabaletan eskaladako neska talde bat sortu berri dute

MAITE FRAILE | ARETXABALETAKO

Otsailaren 11n Ibarra kiroldegian hasi zen eskalada ikastaroa. Baina badauka berezitasun nabarmena talde horrek, denak neska direla, bergararra den irakaslea barne.

Beharra asetzeko sorturikoa

Aretxabaletan hainbat eta hainbat neska zeuden eskalada kirol trebea ikasi eta praktikatzeko gogo eta ilusioarekin. Ibarra kiroldegia ez zuen zerbitzu hori eskaintzen, eta, horregatik, Aretxabaletako M5 kirol-dendako Nerea Lete arduraduna hasi

zen lehenengo urratsak egiten. Aretxabaletako eta bailarako neska ikastaroari buruz informatu ondoren, emaitza oso positiboa izan dela esan daiteke, hamahiru neska animatu baitira taldea osatzera; gehienak Aretxabaletakoak dira, hamaika, hain zuzen, eta besteak, bata arrasatearra eta beste bat bergararra. Astelehenean eta eguenetan izaten dira ikastaroak, eta ordu bateko bi saio bereizten dira; eguerdian hiruretatik lauretara eta arratsaldean zortzietatik bederatzi arte.



MAITE FRAILE

'Pisukideak' obrako bizipen komikoak, Arkupen

Korrika Kulturala ekimenak antolatutako obretako bat da hori. Elkarrekin bizi diren Markosen eta Matilderen arteko gorabeherak era umoretsuan kontatzen dizkigu antzeulanak. Otsailaren 26an eskaini zuten emanaldia, arratsaldeko zazpitan, Arkupe kultur etxean. Nahiko jende hurbildu zen bertara.



IXADEBALDE

Aretxabaletako VI. merkealdi azoka

Martxoak 9, zapatua. 10:00etatik 20:00etara
Iturrigorri pilotalekuan

- Musikaz girotutako azoka.
- 2 SARI BEREZI.
- 17:00etatik 19:00etara umeentzako tailerrak egongo dira.

ANTOLATZAILEA: LAGUNTZAILEAK:



Amaia ume denda
Orly
Kilima
Txilarra
Asensio
Haurrak
Gertu
Kioskoa
Belar Meta
M5
Brasileña
Tinta Beltza
Benito oinetakoak
Titare

Emakumeen eskubideetan datozen murrizketak gaitzetsi dituzte

- Ezker Anitza-IUk eta Bilduk adierazpen instituzionala aurkeztu dute
- Osoko bilkuran testua irakurri eta ekintzetan parte hartzeko dei egin zuten

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Emakumeen eskubideen aldeko borrokan "atzera egiten" ari dela ohartarazi dute Bildu eta Ezker Anitza-IU udal taldeek, martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan elkarlanean

egindako adierazpen instituzionalean. Martitzenean egindako osoko bilkuran irakurritako testuan gogorazi zuten emakume feministek 1908an aldarrikatutako indarrean jarraitzen duela 2013an, "are indar handiagorekin,

gainera". Bi udal taldeen arabera, "borroka hori are garrantzitsuagoa da" aplikatzen ari diren murrizketengatik.

Horren harira, honakoa oharatzen dute: "Une honetan atzera egiten ari gara, diskurtso atzera-

koi batek emakumeok berriz ere adingabe moduan tratatu nahi gaituelako, erabakitze gaitasunik gabe eta bizimodu prekario batera kondenatuta".

Atzerakada horren adierazgarri dira, besteak beste, abortuaren legearen erreforma iragartzen direla, eta inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko laguntzetarako murrizketak. Adierazpenak dio "mundu berri bat sortzeko bidean" funtsezkoa dela erakundeek berdintasunerako politika publikoak lortzeko baliabideak jartzean, eta ildo horretan, horiek kentzeko asmoz etor litekeen erreformak gaitzetsi egingo dituela iragarri dute udal taldeek.

Jarraian, Aukera Berdintasun Zerbitzuko arduradun Itziar Martinez zinegotziak martxoaren 8ari begira gertatutako ekintzan parte hartzeko deia egin zuen. Aurren ere kafe tertulia egingo dute,

oraingoan *Nuevos y viejos retos para las mujeres (¿y hombres!) del siglo XXI* lelopean. Euala enpresak gidatutako berbaldia 18:00etan hasiko da Ibarraundi museoan. Tertulia amaitzean, Ausartak taldeak emanalditxo eskainiko du toki berean.

Presoen aldeko kredentziala

Bestalde, martitzeneko osoko bilkuran *Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea. Euskal Presoak Euskal Herrira* aldarrikapena biltzen duen kredentziala eroan zuten eskegita Bilduko ordezkariak. Urtarrilaren 12an euskal presoen alde Bilbon egindako manifestazioan erabilitako aldarrira da hori. Horren harira, Beñat Herce alkateak jakinarazi zuen osoko bilkuretan txarteltxoak jantziko dutela, eta udaletxeko balakoiara ere eroango dutela laster aldarrikapen berbera.

Atzeratu egin dute Eskoriatza Garbiak aurreikusita zuen ekintza

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatza Garbia No al Puerta a Puerta herri plataformak hiri hondakinen sistemen gaineko informazio mahaiak jartzeko asmoa zuen gaur, egubakoitza; bada, ekintza hori martxora arte atzeratzea erabaki dute.

Ohar batean jakinarazi dute herriarrek prozesuan parte hartzeko duten "gogoari erantzunez" aurreikusita zituzten ekintzak atzeratzera behartuta sentitu direla. Horren harira, honakoa nabarmendu dute: "Eragina handiagoa izan dadin, ekintza horiek hobeto antolatuz

nahi ditugu, parte-hartzea kontuan izanik. Gainera, jakinarazi nahi dugu ekintzak aurrez iragarriko ditugula".

Eskohitza

Herritarren jarrera ere eskertu nahi izan du plataformak. Haren esanetan, "horrek erakusten du herriak iritzia eman gura duela, eta Eskohitza heldu behar dela eta gure udal ordezkariak entzun egin behar dutela". Eskoriatza Garbiak honakoa gaineratu du: "Lorpen handi guztiek herriaren babesa izan dute beti; bizkarra ematen badio, porrot egingo du".



Miren Amuriza bertsolaria, dokumentalaren une batean. | GOIENA

OHARRAK

KIROL HITZORDUAK

Hiru partidu jokatu dira asteon etxean, guztiak bihar. 10:30ean, saskibaloian, kadeteak Xasta 98 zarautarren kontra lehiatuko dira; jarraian, kirol berean, gazteek Azpeitiko Sein ISB taldekoak izango dituzte aurrean; eta 17:00etan, areto futboleko Euskal Liga jokatu da, Eskoriatza eta Berrio Santutxu artean.

KANDELAGINTZA

Gaztelekuan kandelagintza tailerra gertatu dute oraingo astebururako.

GAZTA DASTATZEA

Eguaztenean, martxoak 6, Idiazabal gazta dastatzea izango da Zubiate labean, 19:00etan. Interesatuak astelehenera arte eman dezakete izena Ibarraundi museoan.

Ogia egiteko tailerrean izena eman daiteke hilaren 8a baino lehen

M.B. | ESKORIATZA

Tailer berria dago labean: hain justu, ogia nola egiten den ezagutarazteko ikastaroa egongo da hilaren 13an erretiratuen elkarteko sukaldean. Izen-ematea zabalik egongo da egubakoitzera arte, martxoak 8. Kultura etxean, kultura@eskoriatza.net posta elektronikoa edo 943 71 46 88 telefono zenbakian ize-

na ematearekin batera, bost euro ordaindu beharko dituzte interesatuak.

Etxean erre

Parte-hartzaileek ogia egiteko prozesu guztia ikasiko dute tailerrean, baita oreka egiten ere. Gainera, bakoitzak tailerrean egindako ogia eroango du etxera, erretzeko.

'Bertsolari' dokumentala ikusteaz gain, Elorretako errota ere bisita daiteke

Horrez gain, gaur 'Juntas somos más' ikastaroa eta etzi 'Bat irabazteko' haur ekintza daude

M.B. | ESKORIATZA

Ezohiko ekintzaz josita dator asteburua. Gaur, egubakoitza, arratsaldean hasiko dira horiek, Amuska elkarteak antolatutako *Juntas somos más* ikastaroaren saio berriarekin. Bakoitzaren bizitza, negozioa edo elkarte kudeatzen ikasiko dute, 16:00etan, kultura etxera joaten direnek.

Egun berean, Asier Altuna *Kixi* bergararraren *Bertsolari* dokumentala ikusi ahal izango dute eskoriatzarrek Ibarraundi museoan. 19:00etan hasiko da emanaldia. Donostiako 2011ko Zinemaldian arrakastaz aurkeztu zen, eta ondoren Euskal Herrian, Madrilan eta Bartzelonan aurkeztu ostean, Eskoria-

tzara helduko da gaur Altunaren bakarkako lehen film luzea. Bertsolaritza ezagutarazten saiatu da horretan, ezagutzen ez dutenengana helduz; bat-bateko poesian, siltasunean eta arte biluzian egindako bidaia moduan aurkeztu du, Euskal Herriko txapelketaren bueltan. Aktore lanetan Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Joseba Zulaika, John Miles Foley, Miren Amuriza eta Jon Sarasua izan ditu ondoan bergararrak.

Elorretako errota bisita

Bestalde, etzi, domeka, Elorretako errota ezagutzeko aukera izango da Debagoieneko Mankomunitatearen eskutik. Bisita

gidatu hori *Ignaziotar Lurraldea* proiektu turistikoaren barruan dago. Horren bueltan, Debagoiena, Urola Erdia eta Urola Garaia eskualdeetako *Ezkutuko altxorrak* ezagutzeko bisita gidatuen egitaraua antolatu dute. Asteburuan jarriko dute hori martxan; gurean, Eskoriatzako Elorretako errota eta Oñatiko unibertsitatea erakutsiko dituzte oraingo asteburuan.

Bisita gidatuan gaur arte eman daiteke izena, 943 79 64 63 telefono zenbakian edo ibarraundi@eskoriatza.net postan. Domekan 12:00etarako egin dute hitzordua Ibarraundin, eta handik Elorretarantz abiatuko dira. Bolibar erreken ezkerrean irinaren ekoizpenean gariak jarraitzen duen artisau prozesua ezagutaraziko diete bisitariei museoeko langileek.

Umeendako ekintza

Horretaz gainera, umeei zuzendutako ekintza ere aurreikusi dute domeka arratsalderako. Hain justu, *Bat irabazteko* ekintza egingo dute. Zortzi eta hamabi urte bitarteko neska-mutikoei parte hartuko dute horretan.

NIRE USTEZ

ROSA
MONDRAGONGure
nagusiak

az egin ziren Aramaion pertsona nagusiekin elkarriketarako euren egoera zein den ezagutzeko, eta otsailan aurkeztu ziren emaitzak. Guztira 229 elkarrizketa egin dira; beraz, datuek badute fidagarritasuna. Gai desberdinak aztertu dituzte baina aipagarriena, nire ustez, bakarrik bizi direnen datua da: 38 pertsona nagusi bakarrik bizi dira Aramaion. Eta justu horietan igarri da ingurukoekin erlazio maila txikiena, nahiz eta ez den kontsideratu inor isolaturik bizi denik.

Interesgarria litzateke auzoetan eta kalean bizi direnen egoera hurbiletik ezagutzera. Ez dut ikerketa sakonik egin, baina auzoz auzo begiratuz gero, impresioa daukat baserrietan kalean baino pertsona nagusi gehiago bizi dela bakarrik. Kalean bizi diren gehienak eguneroko erosketak egitera irteten dira, baina auzoetakoak ez dira normalean irteten ez bada medikuarengana joateko edo ospakizun bereziren bat dutelako. Eta harremana izatekotan ere, ogia ekartzera datorren saltzailearekin, bizi-lagunekin edo familiartekoekin izaten dute.

Etorkezunera begira, egoera nahiko larria iruditzen zait! Baserriak hustuz doaz, auzo batzuetan beste batzuetan baino gehiago, eta aurreantzean horrela geratzeko arriskua dute, arrazoi desberdinegatik: saltzeko zailtasunengatik, eraberitze lanek kostu handia dutelako edo, besterik gabe, kalean bizi diren seme-alabek ez dutelako interesik auzora bueltatzeko.

"Baserrietan
pertsona nagusi
gehiago bakarrik
kalean baino"

ZUZENKETA

Joan den egubakoitzean akats bat egin genuen Aramaioko orrialdean. Aurrekontuaren gaineko erreportajearen, Udalak eskatutako maileguen interesak direla-eta 108.000 euro ordaindu beharko dituela eman genuen aditzera. Kopuru zehatza da 18.000 euro; gainerakoa amortizazioak direla-eta ordainduko da.

Elurrak Etxaguen auzoa zigortu
zuen bereziki, obretan zirelako

Elurrak atseden hartu ostean, Udalak gertu dauka izotzari aurre egiteko

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Joan den aste bukaeran eta bereziki astelehen zein martitzenean elurra mara-mara aritu zen Aramaion, ia etenik gabe. Zuiako Koadrilari kontratatutako elur makinak jo eta ke aritu ziren, eta Udalaren elurra kentzeko pala apurtu egin zen Etxaguen auzora bidean: "Ahal izan zen bezala kudeatu zen bi egun horietan elurraren arazoa, elurra kentzeaz bat errepidea berriro ere zuritzen zelako", adierazi du Udalak.

la metro erdi etxerako bidean

Auzoetan eman ziren arazo larriak, eta Etxaguen izan zen kalte-tuena. Saneamendu obrak atzeratu egin dira eta lurra asfaltatu gabe dago oraindik. Horrek eragin zuen elurrak horrenbeste kalte sortzea, Etxaguen altuen dagoen auzoa izatearekin batera.

Aitziber Juaristi auzotarrak astelehenean telefonoz kontaktu zigun zein zen euren egoera: "Iazko apirilean obretan hasi ziren eta printzipioz zortzi hilabete iraun behar zuten lanek. Baina oraindik obrak amaitu barik daudenez, auzo barruko bide guztiak asfaltatu gabe daude. Elurra kentzeko makina



Ormaetxea baserrirako bidea, Etxaguen auzoan. | AITZIBER JUARISTI

Uribarren baserrira arte heldu da baina hortik ezin izan du aurrera egin. Gainerako baserrietan, auto normala dugunok ezin gara auzotik irten". Egoera ikusita, Arrasaten pasa behar izan zuen gaua: "Nire kasuan, zapatuan Arriolara jaitsi nuen autoa iragarrita zegoen elurteagatik, eta erabaki dugu autora oinez jaitsi eta Arrasatera joatea, amaren etxean lo egiteko. Bestela, bihar [martitzena] ezingo gara lanera joan eta umea ezingo dugu eskolara eraman. Gure

etxerako bidean 40 zentimetrora arteko elurra dago pilatuta". Juaristik gaineratu zuenez, lur orotariko ibilgailuak ere errepidean "ez aurrera ez atzera" ikusi zituzten, geldi.

Gatza gertu, badaezpada

Eguaztena ezker ostean eman du elurrak, baina goiko auzoetan elurra dago oraindik.

Izotza egiteko arriskua dago gaur, bereziki, eta Udalak gertu dauka gatza, "behar den lekuetan" botatzeko.



Hilaren 15ean ospatu zuten urteurrena, familiarekin, lagunekin eta udal ordezkariekin batera. | JOKIN BEREZIARTUA

Lurgorri eguneko zentroak
bi urte, familia giroan

Otsailaren 16an ospatu zuten urteurrena, Bea Asurmendi aramaioarraren emanaldi eta guzti

J.B. | ARAMAIO

"Oso pozik gaude, familia bat gara. Aurrez ere ezagutzen zuten elkar, baina bi urteko elkarbizitzak harremanak are gehiago estutu ditu". Leire Pagaldai Lurgorri eguneko zentroko langilea-

ren hitzak dira, bigarren urteurrenako ospakizunetan. Zazpi erabiltzaile dituzte egun eta beste batendako lekua dago. Astelehenetik egubakoitzera egoten da zabalik, 12:00etatik 18:00etara; prentsa irakurri eta albisteez

eztabaidatu, bazkaldu eta ariketa fisikoak egunero egiten dituzte. Horrez gain, egunero zerbait ezberdina ere egiten dute: funtzio kognitiboak, psikomotrizitatea eta zentzumenak landu, denetarikoz postreak egin edo bingoan jolastu, esaterako.

Joan den egubakoitzeko urteurren ekitaldian familiakoen eta lagunen zein udal ordezkarien bisita izan zuten zazpi erabiltzaileek. Dantzan egin eta kontu kontari aritu ostean, Bea Asurmendi aramaioarraren ahots ederraz gozatzeko aukera izan zuten.

ARETO FUTBOLA

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Colegio San Prudencio Bat	38	15
2 C.D. Lagran	37	14
3 Izar Gorri	31	15
4 Aramaixo	25	14
5 Autoescuela Gasteiz	20	15
6 BarUriarte	19	15
7 Alavesa Maquinaria	16	15
8 Arizmendi	16	15
9 Bar Copo	15	15
10 C.D. River	14	15
11 Bar La Paloma	13	15
12 Orlegi	9	15

EMAITZA

C.D. Lagran - Aramaixo (Bertan behera)

PARTIDUAK

HILAK 2, ZAPATUA

16:00 Aramaixo - Izar Gorri

Lehen hirurengana
gerturatzeko aukera

Azken partidua bertan behera geratu ostean, hirugarren postuan dagoen Izar Gorriaren aurka jokatzeko dute bihar aramaioarrek. Aukera ederra da goiko postuetara gerturatzeko. Izan ere, partidua bat jokatzeko dute orain bigarrena den CD Lagran-en aurka.

Udala, Saharako
Errepublik Arabiar
Demokratikoarekin

Eguaztenean Saharako Errepublik Arabiar Demokratikoa izendatu zeneko 37. urteurrena bete zen. Udalak adierazpen instituzionala argitaratu eta Saharako bandera jarri zuen udaletxean. Udalak salatu gura du Marokok hartutako lurraldeetan saharar giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak "behin eta berriz" urratzen direla. Gainera, Espainiako Gobernuari "lan eraginkorragoa" egin dezala eskatu dio, "gatza irten-bide azkarra" emateko.

Udako oportetean haur
saharar bat ekartzeko
programa abian da

Udalak eta Sahara Eutsi elkarrekin *Oporrak Bakean* ekimena antolatu dute aurrean. Aramaioko familiei dei egin diete uztailerako eta abuzturako haur saharar bat etxean jasotzeko. Bidaiak suposatuko dituen gastuak Udalak hartuko ditu bere gain, urtero moduan. Informazio gehiagorako edota izena emateko bi bide jarri dituzte antolatuzaileek: 679 828 784 telefono zenbakira deitu edo *saharaeutsi_elkartea@hotmail.com* helbidera mezua bidali.

Eskolako lehenengo lanak aurten hasiko dituzte, "teilatua erreparasatuta"

Udalaren zorra handia den arren, zorraren mailegua ordaintzeko ez daukara arazorik azaldu digu alkateak



Antzuolako Eskolan lehen lanak egingo dituzte aurten; hala, teilatua erreparasatuko dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aurtengo Antzuolako udal aurrekontuak iazkoak baino 100.000 euro gehiago ditu, inbertsioak gora egin duelako. 2.604.499 euro da aurrekontua eta horietatik 195.386,43 euro inbertsio errealeak egiteko bideratuko ditu Udalak.

Inbertsio nagusiak

Ima Beristain alkateak azaldu digu inbertsioak goraka egitearen arrazoia: "Uste dugu gai batzuk bai ala bai aurrera atera beharrekoak direla. Herriko argiteria, San Joseko pareta konpontzea, kolunbarioa jarzte..."

Izan ere, dagoeneko abian da herriko argiteria plana. "Gastua erdira murrizteko helburuarekin egin dugu argiteria plana. Hor sartzen dira udal eraikinetako argindar kontsumoa, batetik, eta kaleko argiteria, bestetik". Errekalde auzoan dagoeneko 21 farolari egokitu diote argiteria. Asmoa da herri osoan lanekin jarraitzea orain -53 mila euro-. "Errekaldeko aldaketa eginda dago eta Beheko auzokoa egiten ari gara orain. Helburua aldaketa herri osoan egitea da; argindar kontsumoa eta dagokion faktura erdi ingurura jaisteko", nabarmendu digu.

Baserrietako ur-sarearen proiektuarekin jarraitzeko eta baserrietako bideak konpontzeko ere egin ditu Udalak inbertsioak. "Aurten Goitin hasi eta Iraeta arteko zatia egingo da. Laugarren fasea da aurtengoa. Urtero diru kopuru bat aurreikusten dugu aurreko legealdian hasitako plana betetzeko. Helburua baserri guztietan ur tratatua edukitzea da. Izan ere, baserri batzuetan uraren kalitate eta hornikuntzan arazoak izaten dituzte".

Herritarren eskaerak

Parte-hartze prozesuak bere ekarpenak ekarri ditu. Hala, hilerrian kolunbarioak jartzeko diru-lerroa ere jaso dutela aurten azaldu digu Beristainek. "Aurrekontuetan, hainbat herritarrek egindako eskaerari erantzun

IMA BERISTAIN | ANTZUOLAKO ALKATEA

"Herritarren nahiak eta beharrak ezagutu ditugu"

Ima Beristain alkateak, lehen aurrekontu parte-hartzaileari esker, herritarren beharrak, nahiak eta iritziak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan duela azaldu digu, besteak beste:

Herritarrei aurkeztu eta gero, aurrekontua txikituz duzue 103.000 euro. Zergatik?

Krisia dela-eta urte batetik besterako gehikuntzari Lege Organikoak ezarritako mugak bete behar eragin digu aldaketa hori.

Aurrekontuak egiterakoan zer izan duzue kontuan?

Legealdirako kudeaketa plana egin genuen. Plan horretako puntu inportante bat zen parte

-hartze prozesua indartzea eta hor lantzen diren gaien lehentasuna ematea. Esperientzia oso ona izan da parte-hartzea. Ikusi dugu egindako kudeaketa plana eta herritarren nahiak bide beretik doazela. Horretaz gain, herritarren hainbat eskaera ere gureganatu ditugu, ez hainbeste aurtengo aurrekontuetan zehazki sartzeko, gehiago balio izan digute aurrera begirako lan-ketak egiteko. Jendearen beharrak, nahiak eta iritziak bertatik bertara ezagutzeko aukera eman digu prozesuak eta hori oso garrantzitsua da guk egin nahi dugun Udalaren kudeaketa mota aurrera eramateko. Azken batean, herritarren ordezkariak gara eta haiengandik hurbil egon nahi dugu. Hurbileko hartu-eman izan nahi dugu eta hala behar duela uste dugu.

Udalak zor handia du. Nola eragiten dio? Ze asmo dago?

Udalak zor handia dauka, baina mailegua ordaintzeko ez dago arazorik, baldintza onetako mailegua daukagulako. Orain ezarritako Lege Organikoak eragin handia dauka guretzat, gastuak txikitu behar ditugulako. 2012ko

likidazioa egiten denean, horren arabera, mailegua amortizatzen kopuru bat ipiniko dugu. Lege Organiko horren beste puntu bat bete ahal izateko.

Zeintzuk dira inbertsio nagusiak?

Aurten, San Joseko pareta konponduko dugu, guztiz -40.000 euro-. Bestalde, herriko argiteriaren inguruko proiektua lantzen dihardugu, gastua erdira murrizteko helburuarekin. Baserrietako ur-sarearen proiektuarekin jarraitzeko eta baserrietako bideak konpontzeko ere egin ditugu inbertsioak. Hilerrian kolunbarioak jartzea eta skate parkea egitea ere kontuan hartu diegu herritarrei.

Oposizioaren jarrera nola ikusten duzue?

EAJko zinegotziek gardentasun falta leporatzen digute. Esan behar dugu gai guztiak batzordeetan lantzen direla, eta batzordeetara etorriko balira gai horiek elkarrekin landuko genituzkeela. Guk esker-tuko genuke hori, 11 zinegotziren lanak 7ren artean egiten baikabil-tza. Gainera, hasieratik garbi utzi genien gure nahia elkarrekin lan egin eta akordioetara iristea zela. Tamalez, herriarentzako lan egiten baino, oztupoak jartzen gehiago saiatzen dira.



GOIENA

"Udalak zorraren mailegua ordaintzeko ez dauka arazorik"

gura diogu. Skate parkea, berriz, herriko gaztetxoaren eskaria izan da eta eskari hori ere kontuan hartuta daukagu. Horren bidegarritasuna aztertu eta partida bat sartzea erabaki dugu". Baina dirulaguntzen gaia ez dagoela horren erraz azaldu digu: "Dirulaguntzak eskatuta ditugu, oso zaila dago gai hori gaur egun. Sarrerak ondo joaten badira, espero dugu gazteek eskatzen duten nahi hori bete ahal izatea".

Parte-hartze prozesuan azaleratutako lanen artean dago eskola handitzeko eskaera. "Eskola handitzeko obra Eusko Jaurlaritzari dagokion gaia da; 2013-2014 ikasturterako aurrefabrikatutako moduluak ipiniko dira. Aurten konponketa batzuk egin behar dira eskolan eta nabarmena izango da teilatua erreparasatzea".

Biomasa proiektua

Udala lantzen ari da antzuolarrrendako energia alternatiboa izatearen aukera. "Erabiltzen ditugun energia oinarriek kostu handia daukate, bai ekologikoki, bai ekonomikoki ere. Antzuolarrrok sentsibilizatuta gaude eta gure esku dagoena egin nahi dugu. Aldi berean, gure eguneko fakturak jaitsi energia alternatibo baten bila gabiltza, eta, azterketa sakona egin ostean, lorturiko datuak eskuan, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin jarri gara harremanetan, eta interesgarria iruditu zaie gaia. Datu zehatzagoak ditugun heinean herritarrei informazioa zabalduz joango gara".

"Energia alternatiboarekin, antzuolarrrok energia merkeagoa eta ekologikoagoa lortu gura dugu; eta hori lortu ahal izateko aztertzen ari gara, esan bezala", gaineratu digu.

Autobusa herriatik ateratzea

Autobusa herri barrutik ateratzearen gaia aspaldian buruan eta gogoan duten inbertsioa dela azpimarratu digu alkateak: "Aspaldi gabiltza gai honekin buruan: gainera, oso landuta

Gastua erdira jaisteagatik aurrera eraman dugu argiteria plana

Energia alternatiboa lortzeko, herrian, harremanetan gaude Aldundiarekin

daukagu autobusak herri barruan egiten duen zirkuitua kentzearen proiektua. Modu honetan, Antigua auzoko bidegurutzeta aldatuko genuke, eta alderik alde gurutzatzeko arriskua kendu. Herrirako sarrera Sagastitik egingo luke, Bergarako noranzkoan etorrira bideratuko genuke autobusa horrela", azaldu digu.

"Kontua da Foru Aldundiak lanei ekin behar diela GI-632 eremuan. Baina gaur egungo egoera ekonomikorekin arkatso oso fina erabiltzen dihardute Aldundian. Erabakia ez dago gure esku eta gure lehentasuna da -ezengandik ordezkatu gabelan hauek bideratzea. Antzuolarrrok inolako onurarik sakrifkatu gabe gainera. Horretan gabiltza. Planteamendua izan daiteke bat; baina aukera bat baino gehiago ere egon daitezke. Bat garbia dugunean azalduko dugu".

Izan ere, Aldundiak ikusita gaur egungo egoera ekonomikoa zein den, aipatutako mantenua egiteko ez du ematen. Supideko biribilgunea eta Deskargako lotura aztertzen dabiltza Foru Aldundia eta Antzuolako Udala, hasierako proiektua oso garestia zen-eta. "Aukera egokiagoak eta merkeagoak planteatu ditugu, eta, datu guztiak dauzkagunean, herriari informazioa azaltzeko asmoa daukagu", gaineratu digu Ima Beristainek, Antzuolako alkateak.



AURREKONTUA 2.604.499

	AURREKONTUA EUROTAN
Zor publikoa	356.515
Adimistrazio orokorra	509.065
Gobernu organoak	80.244
Gizarte sustapena	474.559
Hezkuntza	99.381
Etxebizitza eta hirigintza	491.967
Komunitate ongizatea	179.796
Kultura	144.293
Kirolak	74.760
Euskara	41.351
Gazteria	16.000
Nekazaritza	77.960

aurtengo diru-partidarekin. | MAIDER ARREGI

Maria Eugenia Arrizabalaga | EAJ

"Inbertsio asmoak bai, baina ez dago diru iturririk lotuta"



"EAJren irizpide orokorra izan da erakunde ezberdinetako kontu publikoak ez eragoztearena. Egia da Antzuolan Bilduk duen gehiengoaren aurrean ezer gutxi egin genezakeela guk ezer eragozteko, baina, hala ere, kritikoak izanik 2013ko aurrekontuarekin, abstentzioa izan da gure aukera.

Abstentzio kritikoa, beraz. Eta zertan oinarritzen da gure kritika? Hasteko, Antzuolako Bilduk gauzak era xelebrea aurkezten dizkigu. Hitz aproposago bat aukeratuz, era zeharo *naif*-ean. Ez dugu inoiz horrelakorik ezagutu: inbertsio asmoak bai, baina dirurik ez. Eta, hala ere, gaur egun ideia huts besterik ez direnak nondik-nondik lortuko omen diren balizko diruekin apainduta aurkezten dizkigute. Finantzaziorik gabeko eranskin batek zer balio ote du udal aurrekontu batean? Guk dakigula, hutsaren balioa.

Asmoak ez ditugu ezbaian jarriko; aurrekontuak bai, ordea. Nahiz eta lortuko omen diren 50.000 euro biomasa proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren 2.500.000 euroetatik urrun samar egon.

Beste adibide bat. Osoko bilkuran nabarmendu genuen poza eman zigula Antzuolako udal aurrekontuak -Bilduk publikoki adierazitakoaren kontra- Eudeli ekarpena mantendu diola ikusteak. Eta zein izango alkateren erantzuna?: "Partida hor dago, baina ez dugu ordainduko". Bilduko batek "amateurrak" direla esan zuen, nahi dutena, baina jakin beharko lukete partida nominalek Udala lotzen dutela.

Beste inori ontzat emango ez zitzaizkionak Bilduri ontzat emateko prest ez gaude".

Carlos Urrestarazu | Alderdi sozialista

"Larria da Udal Gobernu hitz egiteko prest egon ez izana"



"Antzuolako talde sozialista beti prest egon da Udal Gobernuarekin hitz egiteko; bereziki garapen ekonomikorako eta lanpostuak bultzatzeko gaien gainean. Baita antzuolarraren bizi kalitatearen hobekuntzarako ere. Horregatik, 2013ko aurrekontuei dagokienez, sozialistok argi utzi nahi dugu une oro hitz egiteko borondatea izan dugula eta Antzuolak dituen arazo larrienei irtenbidea emateko gure proposamenak egin gura izan ditugula. Aurtengo udal aurrekontuak egiterakoan, jarrera aktiboa izan dugu, baina Gobernu Taldearen aldetik ez dugu dei bakar bat ere jaso. Jasaten ari garen krisi ekonomiko honetan, Antzuolako sozialistendako larria da Udal Gobernu hitz egiteko prest egon ez izana. Kontziente gara Antzuolak herritarren beharrei eta arazoei erantzun zuzenaren aurrekontua eduki behar duela. Lehentasuna da Gobernuak talde sozialistaren iritzia izatea, ordezkarik garen herritarren beharrik islatu gabe daude-eta.

Jose Mari Iturbe | Atez Ateko Batzordeko kidea

"Bilketaren kostua jaisteko sistema berria jarriko da laster abian"

2012an zaborteigira 67.000 kilo eramán ziren, 2010ean baino sei bider gutxiago, hain zuzen

M.A. | ANTZUOLA

Bilketa selektiboak -beira, papeira eta ontzi arinak- gora egin du %10. Organikoa, berriz, %35 gehiago batu dela azaldu digu Jose Mari Iturbek, Atez Ateko Batzordeko kidea.

%85 birziklatzea lortu duzue.

Datuak oso onak dira. Ikusten dugu herriak ondo erantzun duela. Birziklagarriak diren hondakinen bilketak gora egin du nabarmen. Tendentzia ikusten da garbi: errefusa behera doa eta bereiztuta jasotzen diren hondakinak gora doaz.

Kuriosoa da ontzi arinen kasua.

Bikoiztu baino gehiago egin dira. 2010ean 27 tona batu genuen; 2012an 56 tona bildu ditugu.



Jose Mari Iturbe, plazan. | M.A.

Zaborteigira ere gutxiago.

Zaborteigira 400 tona eramaten genituen eta aurten ez gara iritsi 70 tona batzera.



Sorta izeneko margolan bildumako lan bat. | NAGORE IGARTZA

Nagore Igartzak etxean erakutsiko ditu lanak

Martxoko lehen bi asteburuetan izango da ikusgai artista antzuolarraren erakusketa

M.A. | ANTZUOLA

Argazkiak ateratzera bakarrik joatea gustatzen zaiola dio Igartzak, inguruko distortsiorik gabe. Atmosfera, sentsazioak eta erreakzioak lortzen saiatzen da eta kuriositatea piztea dute lanek helburu.

Paisaia naturalak eta urbanoak erretiratzen ditu Igartzak. Antzuolan *Sortak* izeneko bilduma izango dugu ikusgai. Ziklo baten amaiera ote? Hark dio erakusketa bat izan daitekeela ziklo bat bukatu dela erakusteko bidea.

'Sortak' argazki bilduma

Nagore Igartzaren erakusketa ikusgai izango da martxoko lehenengo bi asteburuetan. Donostian izan duen bera ekarriko digu gazte antzuolarrak.

Zapatuan eta domekan izango da, 18:30etik 20:30era bitartean.

Errealitatea oinarri izanik, Nagore Igartzaren argazki horiek ez dute mundua definitu nahi, poliki-poliki erakutsi baizik, behaketa geldi, iraunkor eta oharpen bizi baten bidez.

"Ezagutu daitekeen arrastoa ezabatuz, ikusgarri eta ikusezina denaren artean kokatzen gara, ezkutukoa erakutsiz, iturraz haratago dagoena, gordeta dagoen hori imajinarioaren bidez azaltzen da. Zalantzarik eta iradokigarri bihurtzen diren argazki hauetako paisaiak izate misterioitsu bat ematen dio argazkiko momentu bakoitzari", dio Igartzak.

Informazio gehiago: www.nagoreigarza.com.

Autokospota ere goraka?

Zabor kopurua %16 jaitsi da, baina hor ez dira sartzen auto-konposta egiten dutenak. Ez ditugu pisatzen eta ez ditugu kontuan hartzen. Etxean auto-konposta egiten 35 izatetik 150 familia izatera pasa gara.

Eta orain, bilketa kostuak jaiste aldera, sistema berriaren bat du Mankomunitateak esku artean.

Antzuola herri txikia da eta, oraingoz, bolumen txikia sortzen dugu, bakarrak gara-eta sistema honekin. Baina orain, bilketa sistemaren kostua jaisteko, sistema ezberdinak aztertzen dihardute. Eta Mankomunitatetik etorri da aukera, kamioi klasi-koa ordezkatuko duena: trizikloa. Hala, azkarragoa eta erosoagoa izan daiteke; laster ikusiko dugu sistema hau, proba gisa, gure kaleetan.

Oñatin ere hastear dira.

Ez dela horren nekeza esango nieke. Eskatzen du etxean bereizketa ondo egitea eta hondakinekin ardua hartzea eskatzen du; baina berehala ohartuko dira oñatiarrak badituela abantailak; eta, zer esanik, ez ingurumenari ere onura nabarmena ekarriko diola.

Droga mendekotasuna prebenitzeko lehen saioak abian dira

Gaztetxo eta gazteen droga mendekotasunaren prebentziorako saioak atzo hasi ziren. Hurrengoak, martxoak 7, 14 eta 21ean, 18:00etan egingo dira. Jorratuko dituzten gaiak hurrenez hurren, hauek: koherentzia hezitzailea bikotean; lehen irteerak eta azken saioan gatazken ebazpena.

OHARRAK

IKASTAROKAZTETXEAN

Martxoak 5: antisorgailu naturalak egiteko ikastaroa; martxoak 6: zoru pelbikoa zaintzeko, 18:30ean.

INTERNET IKASTAROA

Erretiratuen elkarteko bazkideendako ikastaroa. Martxoaren 11tik 15era egingo da. Izena emateko epea zabalik dago martxoaren 6ra arte.

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

ELGETA

Aspaldiko partez, elurrak benetan hartu du Elgeta, eta ezuste bat baino gehiago eragin

Astelehenean jantokiko kamioia ez zen garaiz iritsi eta martitzenean argindar barik egon zen herria

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elurra izan da protagonista asteen. Iragarpenak, oraingo honetan, bete egin dira, eta 50 bat zentimetroko elur geruza izan dugu, gehienbat, aste hasieran.

Sorpresaz beteriko astea izan da. Zirkulazioan ohiko zailtasunak sortu ditu elurrak, eta zenbait unetan itxita ere egon dira hainbat errepide. Berrikuntzen artean espaloietan bidezidorrak zabalteko udal langileek erabili duten elurra kentzeko makina berria nabarmendu da. Baserriko bideetan elurra kentzen duen makina, berriz, matxuratuta egon da bizpahiru egunez.

Astelehenean eskolako jantokian izan zen ezustea: Ausolane-ko kamioia ez zen zerbitzua erabiltzen duten 31 umeendako bazkariarekin garaiz iritsi. Martitzenean, berriz, herria argindar barik gelditu zen, 09:30etik 15:30era. Azkonabieta inguruan jausitako zuhaitzek eragin zuten mozketak.

Aparkalekuak elurrez libratu ostean, egunotan teilatuetan pilatutako elurra da arriskua. Udal langileek hainbat gune hesitu dituzte, prebentzio moduan.



Maala parkeko bidea hesituta. | L.Z.



Udal langile bat, martitzenean, gatz zakua banatzen. | L.Z.



Herritarra, auto gainean pilatutako elurra kentzen. | L.Z.



Kanpanzarreko bidea martitzen goizean. | ENAITZ EZPELETA



L.Z.



L.Z.

Futbito txapelketako finalerdiak atzeratuta

Emakumezkoek amaitu dute ligaxka, eta Gaztiak taldea —ezkerrean— nagusitu da. Bajaan taldea —eskuman— geratu da bigarren. Luzatu dena gizonetzkoen ligaxka da. Domekan jokatu dute azken partidua: Astuan Villa / La

Kokotxa, 12:00etan. Asteburuko nobedadea haurren partidua izango dira. Gazteenek gaur, barikua, jokatu dute, 17:00etan. Beste bi norgehiagokak domeka goizean jokatu dituzte, 10:00etan hasita.

LEINTZ GATZAGA

Aisialdirako ortuetarako hiru eskaera jaso ditu Udalak

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Bost partzelatarako hiru eskaera. Erantzun hori eskuratu du Leintz Gatzagako Udalak aisialdirako egokitu dituen ortu publikoekin lotuta.

Oraingo astelehenean itxi da izena emateko epea. Eta jasotako hiru eskaeren artean, datozen egunotan aztertu behar dutena

da eskatzaileek Udalak ezarritako baldintzak betetzen dituzten edo ez. "Egunotan egingo dut hori. Eta eurekin zuzenean egongo naiz. Gure asmoa zen jasotako eskaerekin zozketa publikoa egitea, eta bakoitzak landu beharreko partzelak ere bertan adjudikatzeke, baina eskaera kopurua ikusita, ez dauka zentzurik", adie-

razi du Imanol Saez de Biterik Mendietako udal zinegotziak.

Partzelak banatuta

Kontuak kontu, laster ikusiko ditugu ortu berriak Leintz Gatzagako sarreraren ezkerreko aldean, Beheko Errekan. "50 metro koa dro ditu partzela bakoitzak. Zelaia narrez beteta zegoen, eta garbitu egin dugu. Txukunduta dago; beraz, landatu eta kito, ez da besterik egin behar. Partzela bakoitza bananduta ere badago", esan du zinegotziak.

Bestalde, inork hartzen ez dituen partzelekin zerbait egin beharko dela ere aditzera eman du Saez de Biterik, "behintzat garbi mantentzeko. Udalean erabakiko dugu zer egin haiekin".

Eta ortuen emate data ere egunotan zehaztuko dutela kontatu du hark. Berez, martxoaren 1ean estreinatzeke gura zituzten, lau urterako adjudikatuta. "Baina esandako moduan, lehenengo eskaera egin dutenekin berba egin behar dut eta horren arabera erabakiko dugu".

Oihan Vegak 'Euskararen espektakulue' egingo du gaur

L.Z. | ELGETA

Zergatik praktikatzen dugu sexua gazteleraz? Nork daki euskaraz iraintzen? Eguneroko bizitzan zergatik jotzen dugu horrenbeste erdarara?...

Oihan Vega aurkezle eza-gunak, umorea eta sarkasmoa erabiliz, euskararen erabileraren inguruko hausnarketa egitera gonbidatuko gaitu gaur, martxoak 1, *Euskararen espektakulue* ikuskizunarekin. Bakarrizketa dibertigarri eta ironikoa da *Euskararen espektakulue*; musikaz, kantuz eta zinemas lagunduta publikoari barrea eragiteaz gain, gogoetarako aukera ere ematen duena. Espaloian egingo du ikuskizuna Vegak, 22:30ean. Sarre-ra zortzi euro da eta bazkideendako, sei.

OHARRAK

MENDI IRTEERA

Bihar, zapatua, egingo du Kantsatzeke mendi taldeak aurreko zapatutako iragarritako mendi irteera Aloña ingurura. 08:00etan abiatuko dira herriko plazatik.

FINALISTEN JAIA

Martxoaren 10ean, domeka, ospatuko dute Elgetan. Bazkarirako izenematea zabalik dago hilaren 8ra arte. Prezioa 24 euro da. Argibideak: www.zirkuitua.com atarian.

BISITA INTXORTAKO FRONTERA

Taldea osatzen bada, domekan, martxoak 3, euskarazko bisita gidatua egingo dute Intxortako frontera, 10:00etan abiatuta.

KARTEL LEHIAKETA

Martxoaren 8a dela-eta, Bideberri mankomunitateak deituriko kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea gaur, barikua, amaitzen da.

Elurrak buruhaustek eragin ditu; ez, ordea, aparteko larritasunik

Oraingo asteko elurrak eragin ditu buruhauste bat baino gehiago, bereziki, errepideekin. Martitzen goiza izan zen okerrrena, lehen orduan bereziki. "Dena den, elurra kentzeko makinak etengabe ibili ziren, eta tarteka zabaldu zuten bidea", kontatu du lekuko batek. Hala ere, aparteko larritasunik ez dutela izan esan dute.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. esk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE

Arrasate / Uarkape kalea 14, behe / 657720049

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

FUTBOLA

Mondra-Aloña Mendi derbia: urrezko puntuak jokoan Mojategin

Domekako norgehiagoka klubaren egun erdi izendatu dute (16:30)

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Mondra eta Aloña irabazteko asmoz eta gogoz irtengo dira Mojategira (domeka, 16:30). Biek ala biek behar dituzte puntuak sailkapeneko egoera definitzen hasteko: Aloñak, erdiko postuetan sendo kokatzeko; eta Mondrak, jaitsiera postuetatik ihes egiteko. Arrasatearrendako final bat da. "Ez gaude ondo animo aldetik. Taldea jota dago. Konfiantza txikiarekin. Baina, ere berean, bada-kigu puntuak ezinbestekoak direla guretzat. Irabazi beharra daukagu, bai ala bai", esan dio GOIENARI Lutxo Iturrinok.

Derbiak sortzen duten berezko motibazioari heldu beharko dio Mondrak domekan. "Baloia menderatzen dugu, eta joko nahiko ona egiten gabilta. Baina ez ditugu emaitza onak lortzen. Puntuak ihes egiten digute, eta bolada txarra lehenbailehen bukatu behar dugu. Dena den, derbi-tan motibazio bikoitza izaten dugu", dio Iturrinok.

Lehen itzuliko arantza

Bestelako sentazioekin irtengo da Aloña Mendi zelaira. "Landu beharreko kontzeptuak landu eta menderatu ditugu. Taldea ondo ikusten dut, nahiz eta astean ezohiko entrenamenduak egin", esan digu Andoni Azkargorta entrenatzaileak.



Aloñaiko Josu Juaristi, lehen itzuliko derbian, Azkoagainen. | GOIENA

Oñatiarrek Larraña Institutuko pilotalekuan egin dituzte asteko entrenamendu gehienak, elurrak Azkoagain zuritu zuelako. "Gainera, aurreko aste bukarrako partidua bertan behera geratzea ez da ona izan guretzat. Bolada onean geunden, eta dinamika positiboa apurtu digu", dio entrenatzaileak.

Bertan behera geratutako partidua noiz jokatuko den galdetuta, hauxe erantzuna: "Ez digute zehaztu, baina, seguruenik, Aste Santuko oporretan jokatuko dugu".

Bi taldeek buruan dute lehen itzuliko emaitza: Mondrak aise menderatu zuen Azkoagaingo derbia 0-3 irabazita. Oñatiarrek arantza atera gura dute. Mondrak, aldiz, "pozarren" errepikatuko luke emaitza hura. "Azkoagainek ezaugarri bereziak ditu, zelai txikia delako. Lehenengo itzulian ondo moldatu ginen, eta defentsa sendoa eginez irabazi genuen. Ez dut Aloña ondo ezagutzen, baina etzi irabaztea ez da erraza izango", esan digu Iturrinok.

"Taldea polita dauka Mondrak"

Lutxo Iturrinok min hartutako jokalaria batzuk ditu. Andoni Azkargortak, aldiz, Unai Bikuñaren zalantza bakarrik dauka. Biek ala biek hamaikako lehia-korrena ipiniko dute.

Mondraren gainean galdetuta, hauxe esan digu Azkargortak: "Taldea polita dauka. Duen maila ikusita, sailkapenean askoz gorago egoteko taldea duela uste dut. Kalitate handiko jokalariai dituzte lerro guztietan eta edonori min egiteko gai direla uste dut. Edozela ere, aurten ere sufritzea egokituko zaie".

ESANAK

"Derbia irabazi egin behar dugu derrigor, bai ala bai!"

LUTXO ITURRINO
MONDRAKO ENTRENATZAILEA

Mondrari laguntzeko egun erdia

Mondrak eta Aloñak jokatuko duten derbia klubari laguntzeko egun erdi izendatu du arrasatearren zuzendaritzak. Horrek esan nahi du bazkideek ere ordaindu egin beharko dutela: erretiratuek eta 25 urtetik beherakoek bi euro eta gainerako bazkideek, hiru euro. Bazkide ez diren zaleei ohiko prezioa kobratuko zaie. Klubari laguntzeko egunak eta egun erdiak elkartearendako dirua batzeko ekimenak izaten dira.

ESANAK

"Lehen itzuliko arantza ateratzeko gogoz gaude"

ANDONI AZKARGORTA
ALOÑAMENDIKO ENTRENATZAILEA

DUATLOIA

80 bat lagunek eman dute izena duatloirako

M.B. | OÑATI

Otsailaren 19an zabaldu zuten Oñatiko 22. duatloian parte hartzeko izena emateko epea. Interesatuek www.triatloi.org atarian eman behar dute izena. Antolatzaileek 450 lagunendako lekua dute, eta, oraingoz, 80 batek eman dute izena martxoaren 16ko probarako. Internetz izena ematen dutenek 30 euro ordaindu beharko dituzte. Gainera, dortsal guztiak banatzen ez badira, proba egunean ere egin ahal izango da inskripzioa, 45 euro ordainduta.

55 kilometro hiru zatitan

Oñatiko duatloiak hiru zati izango ditu: lehenengoan 10 kilometro egingo dituzte korrika parte-hartzaileek; bigarrenean, 40 bizikletan; eta hirugarrenean, bost korrika.

FUTBOLA

Real Union gogorra izango du aurrean Aretxabaletak

Alberto Albistegiren taldeak Real Union talde indartsuaren bisita izango du domekan, 16:30ean, Ibarren. Irundarrak sailkapenaren hirugarren lekuan daude 50 punturekin, eta igoera lortzeko lehia sartuta daude. UDAK lehia horretan sartzeko aukera asko galdu zituen Tolosaren kontra galduta. Oraingoz, 41 puntu dituzte.

FUTBOLA

Beti Gazteren zelaian jokatuko du Bergarak etzi, domeka

Oiartzunen kontrako partidua gogorra ahazteko asmoa dauka Neka Galanen taldeak etzi. Lesakan jokatuko du, Beti Gazteren kontra (16:15). Mahoneroek irabazi egin gura dute. Hiru puntuak lortzen badiuzte, goiko postuetara salto egingo dute. Beti Gazte ez zuen lehiarik jokatu aurreko aste bukaeran Oñatin, elurra-rengatik.

FUTBOLA

Etxean galdutako puntuak berreskuratu gura ditu Antzuolak

Amaiak Baten kontra ezustean galdu ostean, Antzuolak Sorluzen berreskuratu gura ditu puntuak (zapatua, 16:30). Ohorezko Erregional Mailarako igoeran buru-belarri dabil Antzuola. Lehen postua mantentzeko puntuak behar ditu. Hurrengo aste bukaeran bigarrenaren bisita izango du Eztalan.

BORROKA LIBREA

Espainiako 14. txapelketa Maidar Undarendako

Maidar Unda oletarrak 14. aldiz irabazi du Espainiako borroka libreko txapelketa. Otsailaren 23an Murtzian jokatutako proban Noelia Lalin (Galizia), Haridian Gonzalez (Kanariak) eta Maria Jose Noguera (Andaluzia) borrokalariak menderatu zituen urrezko domina janzteko. Argazkian, entrenatzailearekin.



MAIDAR UNDA



Joseba Garate arrasatearra, pilota astintzeko gertu, iazko kadete mailako finalean. | JOSETXO ARANTZABAL

PILOTA

Bailarako 43 pilotari lehiatuko dira Debarro txapelketan

Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Bergarako pilotariak lehiatuko dira, maiatzaren 25era arte

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

66. Debarro pilota txapelketa abian dago. Maiatzaren 25era arte Debagoieneko eta Debarreneneko pilotariak euren dohainak erakutsiko dituzte. Tartean egongo dira Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Bergarako pilotariak. Guztira, 43: bergararrak 18, arrasatearrak 10, eskoriatzarrak bederatzi eta aretxabaletarrak sei. Eurekin batera lehiatuko dira Elgoibar, Eibar, Soraluze eta Debako pilotariak.

Debarro txapelketa hiru mailatan jokatzeko da: kadeteak, gazteak eta seniorrak. Kadete mailan lehiatuko dira Bergara, Eskoriatza, Arrasate, Elgoibar eta Deba. Gazte mailan, berriz, Arrasate, Bergara, Soraluze, Deba eta Elgoibar. Bi maila horietan joan-etorriko ligaxka jokatuko dute, eta bi talde indartsuenek finalerako txartela lortuko dute.

Finalak, Elgoibarren

Nagusien mailan, aldiz, zazpi herritako pilotariak lehiatuko dira: Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Soraluze, Elgoibar eta Eibar. Seniorrek itzuli bateko ligaxka jokatuko dute. Lehenengo laurek finalerdiak jokatuko dituzte eta irabazleek finala jokatuko dute. Aurtengo Debarro txapelketa Elgoibarko pilota taldeak antolatu du, eta

finala hango pilotalekuan jokatuko dute: maiatzaren 25ean, 19:15ean.

Aste barruan edo asteburuetan Debagoieneko pilotariak gertu daude iaz Bergaran lortutako txapelak berresteko.

Ordezkarri gehien Bergarak izango ditu: 18. Kadete mailan Zubizarreta, Gastañaga, Jorge, Larrañaga eta Otermin lehiatuko dira; gazte mailan, Aristi, Diez, Jorge eta Retolatza; eta seniorretan, Ander Mugurutza, Eneko

Mugurutza, Iñarra, Azkarate, Perez, Beñat Rezusta, Ander Rezusta, Gallastegi eta Osa. Azken maila horretan bi talde egingo dituzte. Bergararren asmoa itxura ona eman eta urrun heltzea dela esan digu Reyes Azkoitiak: "Eta, ahal baldin badugu, iaz seniorretan lortutako garaipena errepikatzea".

Arrasatearren artean, kadete mailako bikoteak ditu txapela janzteko aukera gehien. Iazko txapeldun Markel Moronekin batera Josu Egia, Beñat Iturriotz eta Josu Zezeagak jokatuko dute kadetetan. Gazte mailan, Joseba Garate, Julen Moron eta Aitor Etxezarreta egongo dira; eta seniorretan, Haritz Zuazua, Ibai Bolinaga eta Jon Felipe Oreja.

Eskoriatzarren asmoa senior mailako finalerdietara iristea da. Hor lehiatuko dira Oier Urrutia, Alex Oiartzabal eta Eneko, Mikel eta Joseba Zubizarreta anaiak. Kadete mailan Aitzol Zubizarreta, Lander Raso, Asier Zurututza eta Iñaki Astiazaranek jokatuko dute.

Azkenik, Aretxabaletak nagusien mailan izango ditu ordezkarriak bakarrik: sei pilotari. Inolako helbururik zehaztu barik irtengo dira pilotalekura Unai Errasti, Hodei Oyon, Sergio Uriarte, Jon Etxebarria, Aitzol Altzola eta Oier Mondragon.

DATUAK

8

HERRI

Arrasate, Bergara, Deba, Eskoriatza, Aretxabaleta, Eibar, Soraluze eta Elgoibar.

3

MAILA

Kadete, gazte eta senior mailatan banatuko dituzte pilotariak.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EMAKUMEZKOEN BI.

MAILA

Castejon-Mondra

Domeka. 16:00. Castejon.

EUSKAL LIGA,

EMAKUMEZK.

Berrio-Otxoa-Arizmendi

Domeka. 18:00. Bilbo.

EUSKAL LIGA, GAZTEAK

Aretxabaleta-Olarizu

Zapatua. 15:45. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA

Mondragon-Aloña Mendi

Domeka. 16:30. Moiategi.

Aretxabaleta-Real Union

Domeka. 16:30. Ibarra.

Beti Gazte-Bergara

Domeka. 16:15. Lesaka.

ERREGIONAL

PREFERENTEIA

Soraluze-Antzuola

Zapatua. 16:30. Ezozia.

LEHEN ERREGIONALA, IGO.

Aretxabaleta B-Sanpedrotarra

Zapatua. 18:00. Ibarra.

LEHEN ERREGIONALA,

KOPA

Arizmendi-Zestoa B

Domeka. 12:00. Ibarra.

Bergara-Zumaia

Domeka. 16:15. Ipintza

OHOREZKO GAZTEAK

Mondra-Bergara

Zapatua. 15:30. Moiategi.

Aloña Mendi-Lagun Onak

Domeka. 16:30. Azkoain.

GAZTEAK 1. MAILA,

IGOERA.

Anaitasuna-Aretxabaleta B

Zapatua. 18:00. Azkoitia.

GAZTEAK 1. MAILA, KOPA

Bergara-Urola

Zapatua. 15:30. Ipintza.

OHOREZKO KADETEAK

Bergara-Arrasate

Domeka. 11:30. Ipintza.

Aloña Mendi-Anaitasuna

Zapatua. 11:15. Azkoain.

Aretxabaleta-Aurrera

Zapatua. 11:30. Ibarra.

KADETEAK, KOPA

Antzuola-Arrasate

Zapatua. 11:00. Estala.

Urki-Aretxabaleta

Zapatua. 11:00. Eibar.

Bergara B: Atsedena

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza-Berrio Santutxu

Zapatua. 17:00. M. Muñoz.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Trapagaran-Ford Mugarri

Zapatua. 16:30. Trapaga.

Soraluze BKE-Egia Kata.

Zapatua. 18:15. Labegarieta.

SASKIBALOIA

EBA MAILA

Antonio Robleda-Natra Oñati

Zapatua. 19:30. Burgos.

LEHEN NAZIONAL MAILA

MU-Aletico San Sebastian

Zapatua. 18:00. Iturripe.

ERRUGBIA

ERRUGBI ESKOLA

Entrenamenduak

Domeka. 10:30. Moiategi.



GOIENA

SORALUZE BKE Josetxo Muniategiren taldeak Egia donostiarren bisita izango du Labegarietan (bihar, 18:00). Bi taldeak parez pare daude sailkapenean.

SASKIBALOIA

Atletico San Sebastian liderraren bisita izango du MUK Iturripen

M.B. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak kontrario gogorra izango du bihar, Iturripen, 18:00etan: Lehen Nazional mailako lider Atletico San Sebastian taldearen kontra jokatu beharko du. "Biok antzeko maila daukagu, baina puntu bategatik hainbat partidu galdu ditugu. Hori horrela, sailkapenean haiek baino lau garaipen gutxiagorekin gaude", esan digu Josu Larreategik.

Hamar jokalarri bakarrik

Lagunak gasteiztarren kontra lortutako garaipenak on egin dio MUKi. "Jokalarriak ondo daude. Animatuta eta gogo handiarekin. Badakigu ez dela erraza izango, baina irabazi egin gura dugu", dio entrenatzaileak.

Lehenengo itzulian Atletico San Sebastianen kantxan irabazi zuten arrasatearrek, eta horrek "itxaropentsu egoteko eskubidea" ematen die. "Sail-

kapeneko goiko lekuetan egoteko taldea daukagu. Gaztea, baina hiru urtetako eskarmen-tua duena. Etorkizuneko jokalarriak dira", esan digu Larreategik.

Hainbat baja ditu taldeak: Ander Atxa gripearekin egon da eta Unai Ezpeleta min hartuta dago. Hamar jokalarri bakarrik izango ditu entrenatzaileak liderrari aurre egiteko.

Natra Oñatiren bolada txarra

Santurtzi, Alquimisa Laboratorios eta Zornotzaren kontrako hiru partiduak jarraian galdu ostean, bolada txarrek berriz bukatu beharra dauka Natra Oñatik. Antonio Robledaren kontra (zapatua, 19:30) dauka lehen aukera.

Oraindik lehen lekuan daude oñatiarrak, baina denboraldi hasieran lortutako abantaila txikitu egin dute kontrarioek. Une honetan, Zornotza da aurkari zuzenena.

Laburbira: 20 herri, 10 urte, 8 film

- ▶ Astelehenean, martxoaren 4an, hasi eta 29ra bitartean herriz herri ibiliko da Laburbira
- ▶ Gure ibarrean Arrasaten eta Aramaion ditu hitzorduak, martxoaren 12an eta 17an

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Erandion (Bizkaia) hasi eta Igorren (Bizkaia) bukatuko da Laburbira, euskarazko ikus-entzunezko laburren zirkuitua, Paristik eta Londrestik pasa ostean. Eta 25 eguneko ia atseden bako ibilbidean, gure ibarrean Arrasaten eta Aramaion izango ditu hitzorduak. Arrasaten, martxoaren 12an, Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen eskutik, 19:00etan, Kulturaten. Eta Aramaion, martxoaren 17an Txirritola euskara elkartearen eskutik, 18:30ean, kultura etxean.

Denetariko gaiak

Bi hitzordu horietan zortzi ikus-entzunezko proiektatuko dituzte, ordu eta laurden inguruko saioetan. Denetariko gaiak izango dute lekua: "Lan eta erretiro kontuek, teknologien inguruko kontakizunak, drogek, animazioak, sentimendu edo umoreak, adibidez; gainera, beti esaten da euskarazko filmetan ez dela umorerik izaten; bada, guk izango dugu", azaldu du Maite Alberdik, Laburbirako arduradunak.

Euskara ere, kalitatezkoa

"Denetik sartzan ahalegindu gara, betiere, sormen, irudi eta tratamendu aldetik... kalitate handiko lanak aukeratuz. Hain justu, sormena bera, dokumentala, fikzioa zein animazioa uztartzen ditu aurtengo edizioak. Eta euskararen beraren kalitatea ere aintzat hartzen dugu. Ez ditugu aukeratzeko ikus-entzunezkoak euskarazkoak bakarrik izatearren, baizik eta lanetan erabiltzen den euskararen kalitatea ere kontuan hartzen dugu. Gai aldetik, berriz, bada bat (*Oinaze egoitzak*) adinez txikiendako. Herritar batzuek akaso ikusita izango dituzte, aurtengo film laburrak Irudienean (Durangoko Azokan) proiektatukoak dira-eta", zehaztu du Topaguneako ordezkariak.

"Ibilbide oparoa"

Laburbirako aurtengo edizioa, berriz, berezia ere bada berez, hamargarrena delako; "euskarazko ikus-entzunezko produkzioa ezagutarazi eta herrietako kultur eskaintza aberasteko" helburuarekin jaiotako zirkuitua errotu dela erakusten du horrek.

Eta ibilbidea bera "aberasgarria" dela ere nabarmendu dute antolatzaileek, Topagunea Euskara Elkarten Federazioak, alegia: "Ibilbide oparoa izan da, eta sortzaile eta ikusleen arteko iritzi trukea oso aberasgarria dela erakutsi du". Horren haritik, iragarri dute Laburbirako zenbait saiotan solasaldia izango dela ikus-entzunezkoaren zuzendariarekin, "baina hori elkarte eta zuzendarien esku dago", gehitu dute.

Erakutsiko dituzten ikus-entzunezkoak



BERRIRO IGO NAUZU
(2012)

Zuzendaria: Carlos Rodríguez.

Iraupena: 9'25"
Sinopsia: Euskal baserrien azken 150 urteotako bilakaera.



TORTILA
(2012)

Zuzendaria: Iñigo Lopez

Iraupena: 8'15"
Sinopsia: Senarraren tratu txar eta irainak eta harreman amaiera.



HAMAIKETAKOAK
(2012)

Zuzendaria: Telmo Esnal.

Iraupena: 4'
Sinopsia: Antoniok eta Santik elkarriketa berezia dute egunero.



BEERBUG
(2012)

Zuzendaria: Ander Mendia.

Iraupena: 8'
Sinopsia: AEBetako gasolindegiko bateko lapurreta. Animazioa da.



ELKARTEA
(2013)

Zuzendaria: Kote Camacho.

Iraupena: 16'
Sinopsia: Lau lagun afaltzeko elkartzen dira. Baten egoera larria da.



OINAZE EGOITZAK
(2012)

Zuzendariak: Oihan Amezua, Karlos Ibarbia, Netzer Bereziartua, eta Asier Susaeta.

Iraupena: 9'30"
Sinopsia: Bi lagun bereziren arteko ezinezko amodioa.



DEUS ET MACHINA
(2012)

Zuzendaria: Koldo Almandoz.

Iraupena: 8'30"
Sinopsia: Lanaren eta erretiroaren gainekoa.



DESENTXUFATUAK
(2011)

Zuzendariak: Bernues anaiak.

Iraupena: 9'45"
Sinopsia: Teknologia berrietan oinarritutako kontakizuna.

MAITE ALBERDI LABURBIRAKO ARDURADUNA

"Herriz herriko zirkuitu txikirik handiena da Laburbira"

Maite Alberdi Topaguneako kidea da Laburbirako arduraduna. Azpimarratu du oso harrera ona izaten duela ekimenak ikusleen artean. **Ze irizpide erabiltzen dituzue ikus-entzunezkoak aukeratzeko orduan?**

Jeneralean, lan berriak aukeratzeko ditugu, euskarazkoak, eta zuzendari ezagunenak bai, baina ahalegintzen gara, baita ere, zuzendari ezezagunenak, sortzaile berrien lanak ere plazaratzen. Betiere, ikus-entzunezkoen kalitatea oinarri hartuta.

Ondorioa da, beraz, kalitate handiko film laburrak izaten direla.

Bai; adibiderik garbiena da guztiak pasa direla lehiaketatik eta gehienek eskuratu dituztela sariak.



TOPAGUNEAK

Hamar urteko ibilbidea egin du Laburbirak; honezkerore bere lekua egin izango du...

Lehiaketa, jaialdi, zirkuitu eta halakoen kasuan, esaten da behin hamar urte eginda ekimena egonkortuta dagoela, eta Laburbira ere hala dago. Guk Laburbirari buruz esaten dugu zirkuitu txiki bat dela, baina herriz herrira egiten den zirkuiturik handiena. Izan ere, ez da halakorik egingo Maria Cristina edo Kursaal baten, baina Laburbira ailegatzen den lekuetara beste inor ez da iristen.

Zelako harrera izaten du Laburbirak?

Oso ona izaten du. Normalean, jendeak ez dauka aukerarik halakorik ikusteko, ikus-entzunezko labur gehienak ez direlako zirkuitu handietan proiektatzen. Ondorioz, gu herrietara joaten gara, jendea gerturatzeko. Etxeraino eramanez, jendeak ez ditu halakoak ikusten.

Korrikaren inguruko jinkana erraldoia antolatuko dute Iruñean

M.F. | ALBISTELEKXXX

Korrika Debagoienaren, AED-ren, Jardunen eta Loramendi eskara elkartearen eskutik Korrikaren barruan antolatutako jinkana erraldoia egingo dute martxoaren 2an Iruñean.

Korrika, euskara, ingurumena, kultura, kirola eta elkarlana lantzea da martxoaren 2an Iruñean izango den jinkana erraldoiaren xede nagusia. Aipaturiko gaiei buruzko galderak erantzun eta ekintzak egingo dituzte izena eman duten 30 gazte taldeek (taldeak gehieenez zortzi partaidekoak dira).

Parte hartuko duten gazte taldeak hamar bailara ezberdi-

netakoak dira. Hauexek, hain zuzen ere: Tolosaldea, Goierri, Bidasoa, Urnieta, Azpeitia, Usurbil, Lasarte-Oria, Legazpi, Urretxu, Zumarraga eta Oar-sokoak.

Debagoiendarrik ez dago

Debagoienetik parte hartzeko izena emanda zegoen gazte talde bakarra, zortzi taldekidez osatuta egon arren, lehiaketatik kanpo geratu da. Maite Ilar-duiak, Korrika Debagoieneko arduradunak, azaldu digunez, epez kanpo aurkeztu zen taldea (otsailaren 18a zen izena emateko azken eguna). Talde irabazleak bidaia bat eskuratuko du, Europan barrena egiteko.



Oñatiko Ganbara abesbatzako taldekideak. | GANBARA ABESBATZA

Ganbara abesbatzaren emanaldia antolatu du Bergarako Orfeoia

M.F. | BERGARA

Ganbara abesbatzaren emanaldia antolatu du Bergarako Orfeoia eta Bergarako Santa Marina elizan izango da martxoaren 2an, zapatuan, 20:00etan.

Abesbatzaren sustraiak

1994an sortu zen kantu koral taldea, Gorka Cuevaren zuzendaritzapean, hain zuzen. 1996tik 2009ra Esteban Urzelaik zuzendu zuen eta ondoren, egungo Aitor Bian Bidarte zuzendari oñatiarrak. Abesbatzako erreperitorioak era guztietako obrak jorratzen ditu: polifonia, folklo-

rea, espirituala, gospela...Bere programetan, euskal folklorea gailentzen da, eta baita konpositore garaikideen lanak.

Aintzat hartzeko abesbatza da oñatiarra, sorreratik hainbat sari jaso baititu; azkena San Vicente de la Barquerako lehia-ketakoa izan zen.

Bi saiotan banatuko da

Ganbara abesbatzako zuzendari Aitor Biain Bidartek kontzertu korala 15 abestiz osaturiko bi saiotan antolatu du. Esan bezala, Bergaran izango da kontzertu korala bihar, zapatua, arratsaldeko zortzietan.

Txalo Produkzioen eskutik 'Pottola' antzezlanana Arrasaten etzi, domekan

Arrasateko Amaia antzokian antzeztuko dute parodia, 19:30ean

MAITE FRAILE | ARRASATE

Hernaniko Txalo Produkzioek amodio-harremanak eta itxurakeriaren garrantzia jorratzen dituen antzerkia aurkeztuko digute. Urtarrilean lehenengo aldiz Sopelanan estreinatu zen eta orain Debagoienean izango dugu: martxoaren 3an, domekan, Arrasateko Amaia antzokian, 19:30ean, hain zuzen ere.

Amodioa eta itxurakeria

Adin guztiei zuzendutako parodia entretenigarria da, bizitzako egunerokotasunean oinarritzen diren gaiak lantzen baitira, hala nola amodio-harremanak, adiskidetasuna, sexualitatea, itxurakeria...

Gorka, antzerkiko protagonista da, gizon arrakastatsua da. Elenarekin erabat maitemintzen da, emakume adimentsu, atsegina eta sentsuala baita; gainera, emakume dibertigarria da eta behar baino 30 bat kilo gehiago ditu. Elenarekin harremanetan hasi dela jakinda, haren lagun Alex eta Blanca zirikatzen hasten zaizkio, Elenari buruzko iritzi krudelak botata.

Elenarekin duen harremanari eusteko, Gorkak itxurari buruz



Pottola antzezlaneko aktoreak | TXALO PRODUKZIOAK

dituen kontzeptu eta konplexuei egin behar die aurre, ahal duen moduan, harik eta erabaki bat hartu arte.

Ainhoa Garai partaide

Ainhoa Garai aktore arrasatearrarekin gozatzeko aukera izango dugu: zinema arloan *Atzo* (2000), telebistan *Goenkale* (2001-2005) eta antzerkian *Mirad* (2005) eta *Baginaren elkarrizketak* (2011) lanengatik da ezaguna.

Ainhoa Garairekin batera Aitor Fernandino, Lur Korta, Joseba Usabiaga eta Egoitz Sanchez aktoreak izango dira oholtza gainean.

Sari asko jasotako antzezlanana

Antezlan horrek munduan zehar zenbait sari jaso ditu. Horien artean, kritikaren saria Off Broadwayn 2005ean, eta Laurence Olivier sarietan, berriz, izendatuta egon da.

Estreinaldia Zabalotegin gaur, barikua, 22:00etan

'Geure burua kontsumitzen' antzezlanana gaur estreinatuko dute Bergarako Zabalotegi aretoan

M | BERGARA

Oihulari Klown antzerki taldeko Virginia Imaz Quijeraren eskutik, *clown* parodia izango da gaur, egubakoitza, 22:00etan, Bergarako Zabalotegi aretoan. Sarrerak 8 euro balio du.

Antezlanaren protagonista bere burua erosketa poltsatzat duen pailazoa da: Pauxa. Plan-teamendu edo ildo hori oinarritzat harturik, kontsumoari eta, aldi berean, giza harremanei eta erlazio osasuntsuak kudeatzeko

zailtasunari buruzko gogoeten lekuko eta konplize bilakatzen ditu ikusleak Pauxak.


Ikuskizun horretan, Virginia Imazek, tonu umoretsu eta goxoan, kontsumoari, bidezko merkataritzari, transgenikoei, hazkunde negatiboari, bitartekariari eta gaur egungo krisi ekonomikoak atzerazintzat dituen beste gai batzuei buruz duen iritzia ezagutarazten digu.

Gure kontsumo ohiturei buruz

hitz egiten duen proposamen ludikoa da antzeppen hori, eta, Oihulari Klownen obra guztietan ohikoa den moduan, genero ikuspuntu batetik egiten du hausnarketa hori.

Debagoienean, Bergaran bakarrik taularatuko dute *Geure burua kontsumitzen*. Geroago, Euskal herriko herri hauetan ere izango dira: Burlatan martxoaren 7an, Zizur Nagusian martxoaren 8an eta Antsoainen martxoaren 9an, hain zuzen ere. Eta ondorengo emanaldiak, berriz, apirileko programazioaren barruan sartuko dira.

Bestalde, martxoaren 6an, Aretxabaletako Arkupe aretoan Virginia Imaz Quijeraren beste lan bat aurkeztuko dute: *Encantadas* izenekoa.



Euskararen espektakulue

"Monologo musikatua"

Martxoaren 1ean, 22:30ean.



ELGETAKO
espaloia
KAFE ANTZOKIA



Ander Larrañaga | Ikaslea

Ander Larrañaga, bideo kamera batekin.

PERU ARREGI

"Batxilergoan nengoenean, ordurako banekien ikus-entzunezko ikasketak egin nahi nituela"

PERU ARREGI | ARRASATE

Ander Larrañaga (Gatzaga, 1991) Mondragon Unibertsitateko Aretxabaletako Huheziko Fakultatean ari da Ikus-entzunezko Komunikazio gradua ateratzen. Hirugarren kurtsoan ari da orain, eta, Holandara erasmus bidaia egin ondoren, Arrasateko Goiena Komunikazio Taldean hasi da praktiketean.

Erasmusetik itzuli berria zara. Zer moduzko esperientzia? Ingelesarekin zer moduz?

Oso ona. Betidanik entzun izan dut erasmus, behintzat, bizitzan behin egin behar dela, eta orain bai, bermatzen dut hala dela. Egia esan, nire bizitzako hilabete onenetarikoak bertan igaro ditudala esango nuke. Ingelesari dagokionez, ederto. Bertara joan

aurretik, nahiz eta gutxi gora-behera defendatu, ez neukan ideia handirik. Baina aurrerago klaseak hartu nituen, munduko toki ezberdinetako jendea ezagutu... entzumenasko landu dut; ohitura hartzen duzu, azkenean elkarrizketak samurragoak egiten zaizkizun arte.

Ezagun asko egingo zenituen, beraz.

Bai, zeharo. Hasierako hilabetean aterpetxe batean egon ginen, baina, irailean erresidentziara joan ginenean, munduko toki guztietako ikasleak aurkitu genituen: kanadiarrak, turkiarrak, ingelesak, alemanak, txinatarrak, australiarrak...

Banaketarik nabari zen nazionalitateen artean ala denok elkarrekin ibiltzen zineten?

Hasiera batean bai, lagun talde txiki bat ginen: Bartzelonako bi, Valentziako bi, Madrilgo bat eta Euskal Herriatik, neska bat eta ni neu. Egia esan, erresidentziako ikasleen erdiak espainolak zirela esango nuke. Baina aurrerago, gauzak pixka bat leundu ondoren, izugarriko harremana egin nuen kanpoko jendearekin: Turkia, Australia edo Ameriketakoak, beste askoren artean.

Azkenean, holandarrak ez ezik, beste nazionalitate guztiak ere ezagutu ditudala dirudi, Ultrecht hirian biztanleen erdia baino gehiago ikasleak baitira. **Bertako ohiturak oso ezberdinak ziren? Non gusturago, hemen alahan?**

Ohitura desberdinak ziren, bai, baina guk, behintzat, gure ohi-

turak jarraitzen genituen. Esate baterako, hantxe 17:30ean afaltzen bazen ere, guk gaueko bederatzia inguruan afaltzen genuen. Datu bitxi moduan, Gabonak abenduaren 5ean ospatzen dira, eta gehienok ezagutzen dugun Bizarzuriren ordez Sinter Klaas (Santa Claus) dute; nolabait esateko, Aita Santuaren arroparekin jantzitako pertsonaia bat. Bada, pertsonaia hori Espainiatik itsasontziz joaten ei da Holandara, bere laguntzaileekin, umei opariak banatzera.

Bestetik, zaila da erantzutea ea non gusturago... Gustura bizi izatekotan, Holandan familiarekin eta ezagunekin ederra litzateke. Euskal Herrian orain oso gustura nago eta ez dut bertatik ateratzeko asmorik, oraingoz, baina onartu behar dut Holandan nire bizitzako esperientziarik onenetakoa igaro dudala.

Zerk bultzatu zintuen Ikus-entzunezko Komunikazioa ikastera?

DBHn nengoetik erakarri izan nau irudi eta soinuaren munduak. Lehenago ere kazetaritzaren hainbat alorretan aritu izan naiz, eta uste baino gehiago gustatu zait. Batxilergoan sartu nintzenez, ordurako banekien zer egin nahi nuen, ez dut inoiz zalantza handirik izan.

Eta orain, aukeraketa egokia egin zenuela uste duzu? Zer ikusten duzu etorkizunari begira?

Bai, zalantzarik gabe. Noski, beti egongo da gustuko ez duzun ikasgairan bat, baina aukeraketarekin guztiz asmatu dudala esango nuke.

Hau bukatzean ikasten jarraitzen badut, alor bereko zer edo zertan izango litzateke. Telebistan, zineman, irratian... ikus-entzunezko komunikazioaren munduan toki bat aurkitu nahiko nuke.

PERTSONALA

Bizi izateko leku bat: Euskal Herria.

Zaletasun bat: Lagunekin irtetea eta parrandan ibiltzea.

Musika talde bat: Crystal Fighters.

Janari bat: Ahatea.

Bidaizateko leku bat: Australia.

Pelikula bat: *The Beach*.

Kirol bat: Eskia.

Kantu bat: *King of the beach*.

Erronka bat: Ikus-entzunezkoen barruan leku bat aurkitzea.

Beldur bat: Proposatutakoa ez lortzea.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Aita Gabirel Jauregi kalean etxebizitza salgai, errentan emateko aukerarekin. 70 metro koadro. Bi logelakoa. Guztiz jantzia. Ganbara eta garajearekin. 679 45 57 62 (Ruben) edo 664 74 90 23 (Naia)

Arrasate. Apartamentua salgai erdigunean, Uharkape kalean. 53 metro koadro erabilgarri. Egongela-sukaldea, bainugela, logelabat, balkoia eta jantzi-gela. Igogailuarekin. Berokuntza individuala. Jantzita. Ondo zainduta. Bizitzera joateko prest. 130.000 euro. Garajea aukeran. 619 18 14 86 edo 665 74 82 43

Arrasate. Etxebizitza salgai Jose Luis Iñarran. 80 metro koadro. Hiru logela, bibainugela, sukaldia eta egongela. Oso eguzkitsua. Terraza eta balkoia-ekin. 162.273 euro. 666 53 95 39 edo 696 55 53 67

Oñati. Erdigunean 67 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukalde guztiz hornitua, egongela, bi logela eta komunua. Jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. 215.000 euro. Garaje itxia, 35 metro koadrokoa, aukeran. 659 72 06 64

103. ERRENTAN EMAN

Eskoriatza. Etxebizitza errentan ematen da Eskoriatza erdian. Etxea berri da, hiru logela eta bi komunakoa. 652 70 08 00 edo 620 50 08 49

Oñati. 60 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela, sukalde-egongela eta komun bat. Igogailuarekin. Deitu arratsaldez mesedez. 651 70 90 53

Oñati. Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela eta komun bat. Bi balkoiekin. Oso eguzkitsua. Jantzia, bizitzera joateko moduan. Hilean 500 euro. 670 30 60 98

104. ERRENTAN HARTU

Aramaio. Bikotea pisu bila Aramaion. Deitu zenbaki honetara: 620 15 13 11

Arrasate. Etxebizitza behar du gu errentan erdigunean. Logela bat edo bikoa. 672 96 08 22

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. 400 euro inguru ordain ditzaket. Daniela. 727 74 42 36 edo 686 07 39 33

Bergara. Bikote euskalduna etxe bila alokairuan, gerora erosteko eskubidearekin. 695 72 55 96

Bergara. Etxebizitza behar du gu errentan. Bi edo hiru logelakoa. 638 93 11 48

Bergara. Etxebizitza behar du gu errentan. Bi logelakoa. Urgentea da. 608 02 24 69

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan, merke. Bi edo hiru logelakoa. 671 84 71 71

Etxebizitza bila. 500-600 euroko pisu bila. Urgentea da. Arduratsua. 722 28 84 39

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan erdigunean, Andra Mari auzunean. 603 14 28 89

Arrasate. Bi ikasle gara eta etxebizitza osatzeko lagun bat behar du gu. 195 euro. Unibertsitateko gertu. Deitu 682 59 60 67 telefonora.

Arrasate. Etxea osatzeko logela ematen da errentan. Deitu 699 11 45 14 telefono zenbakira.

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 629 80 77 73 telefonora.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxea osatzeko erdialdean. Jone. 636 05 36 18

Bergara. Pertsona bat behar da etxea osatzeko Bolun. 230 euro dena barne. Deitu: 670 85 86 68

2. GARAJEAK

201. SALDU

Oñati. Atzeko kalen 17 metroko garaje itxia salgai. Deitu: 665 71 77 98.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia errentan edo salgai Kontzezin kalean, Iturbide egoitza parean. 15 metrokoa. 943 77 08 02 edo 628 14 92 74

Arrasate. Uarkapen garaje itxia ematen da errentan. Deitu: 680 77 64 05

Bergara. Garaje itxia, 18 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinaten. 943 76 06 60

3. LOKALAK

301. SALDU

ARETXABALETA

Gorbeia kalean
lokala salgai.
Prezio interesgarria.
671 42 54 32

4. LANA

402. ESKAERA

Aretxabaleta. Haur Hezkuntza ikasi duen 23 urteko neska prest haurrak zaintzeko. Deitu 688 88 39 57 telefonora.

Arrasate edo Bergara. Emakumea gertu lanerako, orduka, nagusiak zaintzen, garbitasun lanetan zein tabernan. Deitu: 673 47 53 74

Arrasate, Bergara edo Aretxabaleta. Mutila gertu tabernan laguntzen edo nagusiak zaintzen lan egiteko. Esperientziaduna. 662 08 22 03

Arrasate. 18 urteko neska euskalduna goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. 943 79 52 50

Arrasate. Bertako emakumea, 54 urtekoa, nagusiak edo umeak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. 943 79 60 89

Arrasate. Emakume euskalduna goizetan lanerako gertu: umeak zaindu, plantxan lanak eta abar. 699 54 17 27

Bergara. 48 urteko neska lanerako gertu. 606 24 79 09

Bergara. Arratsaldetan nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 610 34 97 88

Bergara. Bergarako emakumea gertu gauetan emakumeak zaintzeko. 665 75 41 32

Bergara. Emakume arduratsua, euskalduna, haur heziketa tituluduna eta eskarmentu handikoa, umeak zaintzeko gertu. Arantza. 688 65 30 62

Bergara. Emakumea prest arratsalde, orduka, lan egiteko. Interesatuok deitu 650 62 12 94 edo 943 76 19 52 telefono zenbakietara.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoiena. Dendatan, tabernatan zein nagusiak zaintzeko gertu nago. 634 16 78 71

Debagoiena. Emakume arduratsua lanerako gertu, nagusiak zaindu edo etxeko garbitasun lanak egiteko. 688 69 07 28

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketarako edo nagusiak zaintzeko. Legezko paperak ditut eta esperientzia handia. 672 96 08 22

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, arratsaldetan edo gauetan. 674 93 20 47

Debagoiena. Emakumea lan bila: ume zein nagusiak zaintzen, tabernatan edo etxeko garbitzen. Autoa daukat. 67 20 00 86

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Eskarmentuak ditut umeak zaintzen, etxeko lanetan, lantegian zein jantzetan. Deitu 647 10 58 72 edo 943 79 96 25 telefono zenbakira.

Debagoiena. Emakumea nagusiak zaindu eta garbitasun lanerako gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. 637 07 23 70

Debagoiena. Eraikuntzan, garbiketatan zein mekanika lanerako gertu nago. 671 26 74 74.

Debagoiena. Erizain laguntzaile tituludun gizona, antzuelarra, San Juan de Diosen lan egindakoa, lanerako gertu. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

Debagoiena. Erizain titulua daukan neska lan egiteko gertu. Gauean edo egunean zehar ospitalean edo etxean nagusiak zaintzeko gertu. 688 80 27 01 edo 943 25 02 96

Debagoiena. Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu edo etxeko garbitasunak egiteko, orduka. Maite. 650 17 74 87 edo 943 76 48 26

Debagoiena. Neska orduka edo gauzez lan egiteko gertu. Silvia. 630 99 11 85

Debagoiena. Gizona gertu lanerako. Nagusiak zaintzen, etxean bertan bizi izaten edo bestela, egun osoz. Deitu 602 07 12 06 telefonora.

Debagoiena. Erizaintza laguntzailea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko. Etxeko garbitasunak ere bai. 630 20 12 03

Debagoiena. Mutil arduratsua eta eskarmentuduna egun osoz lanerako gertu. Denetarikoa lanak egiteko gertu. Legezko paperak ditut. 602 48 36 75

Debagoiena. Mutil arduratsua, legezko paperekin, lanerako gertu: igeltsari eta nekazaritza laguntzaile, zerbitzari zein nagusiak zaintzen. Gidabaimena eta autoa daukat. 648 75 24 96

Debagoiena. Mutila gertu lanerako: sukaldari laguntzaile, eraikuntzako peoia, garbiketaria industrialak edota etxeko lanak egiten. 688 86 04 02

Debagoiena. Mutila gertu lanerako: sukaldari laguntzaile, eraikuntzako peoia, garbiketaria industrialak edota etxeko lanak egiten. 688 86 04 02

Debagoiena. Mutila gertu makinari lanak egiteko. Baita igeltsero, margolari eta berritze lanak egiteko ere. 691 795 334

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: eraikuntzan, margoketa lanetan, soldatzen edo nagusiak zaintzen. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Gidabaimena daukat. 637 07 23 70

Debagoiena. Nagusi edo umeak zaintzen edo atariak garbitzen lan egingo nuke. 679 30 65 28

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketarako edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. 695 73 87 95 edo 943 71 53 74

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 678 98 54 64

Debagoiena. Neska arduratsua gertu garbitasun lanak egiten eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 629 80 77 73

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia eta erreferentziekin. 634 28 16 34

Debagoiena. Neska arduratsua orduka edo jardun osoz nagusiak zaintzeko gertu. Legezko paperak eguneratuta daukat. 636 80 87 68

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke gauzez, orduka edo etxean bertan bizi izaten. 674 93 20 47

Debagoiena. Neska esperientziaduna lan bila etxean bertan bizi izaten. Berehala hasteko moduan. Deitu 727 74 42 36 edo 686 07 39 33 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Neska euskalduna, esperientzia eta informeekin, umeak eta nagusiak zaintzeko gertu. Baita gauzez ere. Disponibilitate osoa, gidabaimen eta autoarekin. 671 35 22 60

Debagoiena. Neska gertu lanerako. Esperientzia daukat nagusiak eta umeak zaintzen edota atari eta abarren garbiketari. 632 09 72 93

Debagoiena. Neska gertu lanerako. Esperientzia daukat nagusiak eta umeak zaintzen edota atari eta abarren garbiketari. 617 64 08 48

Debagoiena. Neska gertu lanerako: umak edo nagusiak zaintzen eta atari garbiketarako egiten. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 617 64 08 48

Debagoiena. Neska gertu lanerako: umak edo nagusiak zaintzen eta atari garbiketarako egiten. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 617 64 08 48

Debagoiena. Neska gertu lanerako: umak edo nagusiak zaintzen eta atari garbiketarako egiten. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 617 64 08 48

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Nagusi edo umeak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten, orduka zein egun osoz. 672 70 71 25

Debagoiena. Neska lanerako gertu: ume zein nagusiak zaintzen, garbiketarako, atariak eta abar Debagoienean. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 41 98 14

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Umak edo nagusiak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten, orduka zein egun osoz. 672 70 71 25

Debagoiena. Neska lanerako gertu: ume zein nagusiak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten, orduka zein egun osoz. Geriatria ikasketak, gidabaimena eta erreferentzia onak ditut. Danni. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680 87 38 66

Gizonetzkoa lana egiteko gertu. Asteleheneetik egubakoitzean arratsaldean lan egiteko gertu nago, eta baita asteburuetan ere. Edozein lan egiteko gertu. Deitu 636 60 48 51 telefono zenbakira.

Lan ezberdinak egiteko prest. Basoan lan egiteko, margo lanak eta elektrizitate lanak egiteko mutila eskaintzen da. Esperientzia handia eta orduka edota jarduna osoa lan egiteko prest. 697 74 79 61

Mutila gertu edozein lan egiteko. Etxeko mudantzak, jardineko lanak, etxeko mantenu orokorreko lanak egiten ditut. 663 34 70 36

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Frantsesa. Neskatila baten-tzako frantses irakasle bat behar du gu, zerotik hasteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 43 80 66

Matematika eta fisika. Matematika eta fisikako eskola partikularrak hartuko nituzke. Batxilergoko 2. mailakoa. 679 74 00 61

Teknologia. Batxilergoko bigarren mailako teknologia eskola partikularrak hartuko nituzke. 679 74 00 61

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katuak opari. 2012ko uztaileko katu txikiak opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660 92 70 71

Txakurkumeak. Arratoi-txakurkume bat eta artzain-txakurkume bat ematen dira opari. 685 75 86 49

Txakurkumeak. Bi arratoi txakurkume ematen dira Aramaion. Bat emea eta bestea arra. Bi hilabete dituzte. 945 44 51 46

Txakurak opari. "Bodegero Andaluz" arrazako txakurak emango nituzke opari. Bi hilabete dituzte. 600 05 50 74

704. BESTELAKOAK

Artzai txakurra galdu Aramaion. Artzai txakur emea galdu zen larunbat goizean Aramaion. Gorrixka da eta mutur punta beltza du. Merke izenari erantzuten dio. Norbaitek ikusi edota aurkitu badu mesedez deitu telefono zenbaki honetara. Aldez aurretik mila esker. 655 71 39 27

Setter txakurra galdu da Oñatin. Setter arrazako txakurra galdu zen Oñatin ostiralean, otsailaren 8an. Zuri kolorekoa da eta lepoko laranja dauka. Norbaitek aurkitzen badu dei dezala telefono honetara: 678 62 40 07

8. DENETARIK

801. SALDU

Taxi lizentzia. salgai Bergaran. Deitu telefono zenbaki honetara: 617 42 97 45

802. EROSI

Aramaio. Lursaila erosiko nuke. (Naiara). 615 79 17 07

Bergaran. edo Debagoienean lursaila erosiko nuke. Hektarea bat edo bikoa. 625 70 21 98

Elurretarako erraketak. erosiko nituzke. 655 71 41 24

Ordenagailua. Ordenagailu eramangarria erosiko nuke. 656 75 76 98

Trikitixa erosiko nuke. Trikitixa bat erosiko nuke, 4 ahotsezkoa eta Slb-en afinatua. Ahal izanez gero Zero Sette markakoa. Erabiltzen ez duzun trikitixa hori saltzea erabakiko bazenu, jarri kontaktuan! 678 82 29 95

804. HARTU

Bizikletak. Bizikleta zaharrak botatzeko badauzkazu, nik jasoko dizut. Iñaki. 699 06 23 95

Sukaldea jantzeko materiala behar du gu. Onatiko gaztetxean sukalde herrikoa egiteko asmoa daukagu. Horretarako, edalontzi eta plateretatik hasi, eta sukaldea lortzeraino, esker onez jasoko ditugu era guztietako tresna, gailu eta aparatuak. 688 68 14 60

806. GALDU

Belarritakoak Aretxabaletan. Igande karnabaletan belarritakoak baldin galduta nuen Aretxabaletan. Norbaitek aurkitu badu deitu zenbaki honetara. Eskerrikasko. 675 00 66 03

Bideo kamera Arrasaten. Larunbatean, otsailaren 9an, bideo kamera bat galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu, BAZen utzi edo telefono honetara deitu. Mila esker. 616 81 21 25

Erlojua Oñatin. Otsailaren 29an, emakume erlojua galdu nuen Ugarkaldetik kalera bidean. Lotus etxekoa, zilar kolorekoa, esfera beltz eta zenbaki laranja-duna. 686 69 44 22

808. BESTELAKOAK

Baratza Bergaran. Baratza jartzeko lursail bat hartuko nuke. Deitu 650 62 12 94 edo 943 76 19 52 zenbakietara.

Baratza Oñatin. Lursail bat nahiko nuke baratza jartzeko, Onatin. 647 24 40 54

Lekuko bila Bergaran. Astelehenean, otsailak 18, Ibarra 11 kalean, fruta denda parean autoa kolpatu zidaten aparkatuta nuela. Eguerdi aldera. Norbaitek zerbitu ikusi badu mesedez deitu. Mila esker. 660 04 77 70

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Arrasateko elkarte gastronomiko baten plaza erosiko nuke. Zure plaza saltzeko asmoa baduzu nik erosiko nituzke. Alde zaharrea bada hobea, baina ez ditut beste aukerak baztertzeko. 667 95 73 16



Aretxabaletako Udala

ARKITEKTO TEKNIKOEN ETA HERRI LANETAKO INGENIARI TEKNIKOEN LAN POLTSA

Aretxabaletako Udala arkitekto teknikoen eta herrilantetako ingeniari teknikoen lan-poltsa osatzera doa. Eskatzen den titulazioa: arkitekto teknikoa edo herrilantetako ingeniari teknikoa. Hizkuntza eskakizuna: 4a. Izena emateko epea: martxoak 15. Oinarriak: www.aretxabaleta.com.

Aretxabaleta, 2013ko martxoaren 1a.

ASTEAGOIENAN

Txakurren terapia
'AsteOn' saioan

Arritxu Barruso aurkezlea Oñatiko eguneko zentroan izan da, bertan egiten duten txakurren terapiaren nondik norakoak jasotzen. Ainhoa Villarrek ematen ditu saio horiek eta haren hitzak ere entzun ahal izango dira gaurko saioan.

'AsteOn'
Egubakoitza, 22:00

Aramaioko
bertsolaritza saioa

Joan den zapatuan jokatu zen bertsolaritzako Aramaioko final-laurrekoa eta saioa oso-osorik ikusteko aukera izango duzue asteburuan Goiena telebistan. Beñat Zamalloak aurkeztuko du saioa eta bertan gertatutakoak disfrutatu ahal izango duzue.

'Berto saioa'
Zapatua, 21:41

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 1

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Zorion agurrak
13:10 Gurean Gaur
13:40 Oñein: Olagarroa plantxan
14:03 Bizitegia
14:33 Ikusmira: Turdaibai
14:43 Zorion agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Planik bai?
15:28 Berbetan: Igor Elortza
16:05 Laino arteko plana
16:35 Beranduegi.tv
16:55 Zorion agurrak
17:00 Berriak
17:20 Eguraldia
17:23 Planik bai?
17:43 Esatea libre
19:01 Zorion agurrak
19:04 28 Klip
19:36 Beranduegi.tv
20:00 Zorion agurrak
20:03 Berriak
20:23 Eguraldia
20:25 Planik bai?
20:45 Hitzlandia
21:08 Beranduegi.tv
21:30 Gurean Gaur
22:00 AsteON
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:53 Klaketa
23:28 AsteON
23:58 Planik bai?
00:18 Berriak
00:38 Eguraldia

ZAPATUA, 2

10:00 28.Klip
10:31 Zorion Agurrak
10:36 Ekogune
11:06 AsteON
11:46 Planik bai?
12:06 Oñein
12:23 Berriak
12:38 Magazinea
13:38 Hitzlandia
14:01 Laino arteko plana
14:31 Zorion Agurrak
14:36 Berriak
14:51 Oñein
15:27 Planik bai?
15:47 Laino arteko plana
16:17 Zorion Agurrak
16:22 Berriak
16:37 Beranduegi.tv
17:01 Magazinea
18:01 Planik bai?
18:21 Hitzlandia
18:44 AsteON
19:20 Beranduegi.tv
19:44 Magazinea
20:44 Planik bai?
21:04 Klaketa
21:41 Berto saioa
22:21 Magazinea
23:21 Planik bai?
00:14 Magazinea

DOMEKA, 3

10:00 Klaketa
11:00 Zorion Agurrak
12:00 Oñein
13:00 Magazinea
14:00 Planik bai?
14:20 Berriak
14:35 Oñein
15:11 Berto saioa
15:51 AsteON
16:26 Zorion Agurrak
16:31 Erreportajea
16:58 Ekogune
17:28 Berriak
17:43 Magazinea
18:43 Beranduegi.tv
19:07 Magazinea
20:07 AsteON
20:42 Zorion Agurrak
20:47 Berto saioa
21:27 Ekogune
21:57 Magazinea
22:57 Berriak
23:12 Atik Zra
00:37 Berriak
00:57 Eguraldia

ASTELEHENA, 4

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:20 Oñein
13:42 Laino arteko plana
14:12 Ekogune
14:42 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Zorion Agurrak
15:18 AsteON
15:58 Bizitegia
16:28 Zorion Agurrak
16:33 Berriak
16:58 Eguraldia
17:01 Oñein
17:33 Aho bizarrak gabe
18:44 Ekogune
19:14 Hitzlandia
19:35 Beranduegi.tv
19:55 Berriak
20:15 Eguraldia
20:17 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:29 AsteON
21:59 Harmailatik
22:44 Berriak
23:04 Eguraldia
23:07 Magazinea
23:52 Harmailatik
00:12 Eguraldia

MARTITZENA, 5

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Harmailatik
14:07 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:07 Eguraldia
15:10 Harmailatik
15:55 Oñein
16:17 Aho bizarrak gabe
17:28 Berriak
17:48 Eguraldia
17:51 Esatea libre
19:09 Harmailatik
19:54 Zorion Agurrak
19:57 Berriak
20:17 Eguraldia
20:19 Magazinea
21:04 Gurean gaur
21:34 Berto saioa
22:14 Berriak
22:34 Eguraldia
22:39 Magazinea
23:24 Bizitegia
23:52 Berriak
00:39 Berriak
00:44 Eguraldia
00:47 Magazinea

EGUAZTENA, 6

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:10 Harmailatik
13:55 Sagarrondotik
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Klaketa
15:45 Oñein
16:11 Harmailatik
16:56 Sagarrondotik
17:29 Zorion Agurrak
17:34 Berriak
17:54 Eguraldia
17:56 Ikusmira
18:19 Hitzlandia
18:42 Bizitegia
19:12 Ikusmira
19:29 Beranduegi.tv
19:49 Zorion Agurrak
19:52 Berriak
20:17 Eguraldia
20:19 Magazinea
21:04 Gurean gaur
21:35 Sagarrondotik
22:17 Ekogune
22:47 Berriak
23:07 Eguraldia
23:09 Magazinea
23:54 Harmailatik
00:04 Berriak
00:24 Eguraldia

EGUENA, 7

12:00 Magazinea
12:50 Gurean gaur
13:20 Berto saioa
14:00 Ikusmira
14:23 Oñein
14:44 Zorion Agurrak
14:46 Berriak
15:06 Eguraldia
15:09 Ikusmira
15:27 AsteON
16:07 Berriak
16:27 Eguraldia
16:30 Oñein
16:56 Ikusmira
17:14 Planik bai?
17:34 AsteON
18:14 Berto saioa
18:54 Zorion Agurrak
18:59 Beranduegi.tv
19:24 Berriak
19:44 Eguraldia
19:48 Planik bai?
20:10 Zorion Agurrak
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 Laino arteko plana
21:59 Planik bai?
22:19 Berriak
22:39 Eguraldia
22:42 Magazinea
23:27 Klaketa
00:00 Planik bai?
00:20 Berriak
00:40 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

Korrikako kamiseta
zozketatuko dugu
datorren astean

Egubakoitzero egiten dugun zozketan, Korrikako kamiseta bat daukagu zozketatzeko, besteak beste. Sari hori lortzeko, zozketan parte hartu beharko duzu, eta horretarako bi modu dituzu: deitu 943 25 05 05 telefonora edo bestela idatziz irratia@goiena.com helbidera. Zorte on!

Asteko gainbegiratu
entzuteko aukera
zapatu eta domekan

Besteak beste, Ainhoa Garai aktore arrasatearraren elkarrizketa entzun ahal izango duzue. Domekan Amaia antzokian *Pottola* antzezlanean arituko da, eta horri buruz hitz egingo dugu. Kepa Urteaga Kulturazinegotzia ere igoko da 107.7ko uhinetara zapatua eta domekan, 10:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Egubakoitza, 1	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Zapatua, 2	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Domeka, 3	RUIZ	Nafarroa Etorbidea 1	943 79 14 09
Astelehena, 4	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Martitzena, 5	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Eguaztena, 6	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguena, 7	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26

BERGARA

Egubakoitza, 1	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Zapatua, 2	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 3	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehena, 4	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Martitzena, 5	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Eguaztena, 6	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguena, 7	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05

Farmazien eskuko telefonoetarako 2013 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitia TICek kudeatuta (www.althitia.es).

GAZTE INFORMAZIOA

BEKAK

Bilbaoeszenaren 2013ko Artistak Egoitzan bekak. Bilboko Udala. Artista kolektiboei laguntzeko, sorkuntza edo ikerketa prozesuak garatzeko bekak, antzerkian eta dantzan, batik bat. Martxoaren 27a.

Unibertsitate tituludunen-tzako bekak Berlinen. Unibertsitateko titulazioa izatea eta doktore edo doktoretza titulua ateratzen egotea. 12 beka, iker-tzaile eta akademikoei zuzendua Berlinen ikerketak egiteko. Epea: martxoak 31.

LANA

Hernaniko Udala: begiraleen lan poltsa. Udako Kirol Udalekuetan lan egiteko, begiraleen lan-poltsa deialdia egin du Hernaniko Udalak. Baldintzak: 18 urte beteta izatea, DBH, Lanbide Heziketako erdi mailako

titulua edo baliokidea izatea eta euskaraz jakitea. Epea: martxoak 14.

Zumaiaiko Udaleku irekieta-rako koordinatzaileak eta begiraleak. Udan egin ohi diren udaleku irekietarako koordinatzaile eta begirale postuetarako oinarriak eta deialdia argitaratu berri dira. Azken eguna izango da martxoaren 13a.

LEHIAKETAK

Nontzefilmak 2013 zinema eta animaziozko film laburren lehiaketa. Nontzefilmi.com kultur webgunek. Epea: martxoak 22.

Korrikaklip lehiaketa! Antolatzailea: AEK. Lehiaketaren lan-poltsa deialdia egin du Korrika 18ren mezua eta leloa, *Eman euskara elkarri*, hedatzea izango da. Epea: martxoak 12.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:
Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Fonuen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

EZKONTZAK



Rafa eta Pili

Rafa Maria eta Pili Seco orain dela 25 urte ezkondu ziren Bergarako Santa Marinako elizan, elurra mara-mara ari zuen egun eder batean. "Bihotzez eskerrik asko zuen maitasunarekin erakutsi eta eman diguzuen guztiagatik! Zorionak eta urte askotarako. Gorka, Silvia eta familia guztiaren partetik!".

HILDAKOAK

Francisca Arabalaza Inza. Oñatin, otsailaren 15ean. 93 urte.
Genaro Ibañeta Ruiz de Zarate. Arrasaten, otsailaren 22an. 69 urte.
Dolores Azpiazu Aranburu. Arrasaten, otsailaren 22an. 84 urte.
Jose Luis Egaña Ortueta. Oñatin, otsailaren 23an. 73 urte.
Hilario Vigarra Caceres. Arrasaten, otsailaren 23an. 60 urte.
Luisa Gantxegi Solana. Bergaran, otsailaren 23an. 98 urte.
Eutimio Gonzalez Rodriguez. Arrasaten, otsailaren 24an. 59 urte.
Rufina Goiti Arocena. Bergaran, otsailaren 24an. 97 urte.
M. Natividad Ibarro Oleaga. Oñatin, otsailaren 26an. 89 urte.
Pilar Iparragirre Alberdi. Bergaran, otsailaren 26an. 85 urte.
Margarita Arregi Etxebarria. Bergaran, otsailaren 27an. 80 urte.
Jose Antonio Lazpiur Urkizu. Bergaran, otsailaren 27an. 75 urte.

URTEURRENA

**Avelina
Arrieta Larrañaga**

Elgetan hil zen 2012ko martxoaren 3an, 87 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza
domekan izango da, martxoaren 3an 12:00etan,
Elgetako Jasokundeko Amaren eliza nagusian.Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Elgetan, 2013ko martxoaren 1ean.

URTEURRENA

**Pidele
Amenabar Gallastegi**

Bergaran hil zen 2012ko martxoaren 3an, 93 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza
domekan izango da, martxoaren 3an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokan.Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Bergaran, 2013ko martxoaren 1ean.

URTEURRENA

**Carmen
Aldanondo Elkorobarrutia**

Oñatin hil zen 2012ko otsailaren 26an, 89 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza
zapatuan izango da, martxoaren 2an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Oñatin, 2012ko martxoaren 1ean.

URTEURRENA

**Luisi
Azpiazu Elorza**

Arrasaten hil zen 2012ko otsailaren 27an, 63 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 3an, 11:00etan,
Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokan.*Zein errega izan zen zu maitatzea, zein zaila zu ahaztea.
Zure familia.*Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Arrasaten, 2013ko martxoaren 1ean.

URTEURRENA

**Jose Maria
Leibar Errasti**Lehen urteurreneko meza
domekan izango da, martxoaren 3an, 12:30ean,
Aretxabaletako Lariño auzoko San Kristobal elizan.Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Aretxabaletan, 2013ko martxoaren 1ean.

ESKER ONA

**Genaro
Ibabe Ruiz de Zarate**

Arrasaten hil zen 2013ko otsailaren 22an, 69 urte zituela.

Senide, lagun, lankide eta auzokoei eskerrak etxekoen partetik.

Agur, aita.

Arrasaten, 2013ko martxoaren 1ean.

ESKER ONA

**M. Luisa
Gantxegi Solana**

Pablo Ibarraren alarguna



Bergaran hil zen 2013ko otsailaren 23an, 98 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno,
eskerrik asko seme-alaben, biloben eta birloben izenean.

Bergaran, 2013ko martxoaren 1ean.

ESKER ONA

**Rufina
Goiti Arocena**

Bergaran hil zen 2013ko otsailaren 24an, 97 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali
zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.*Beti izango zara gure bihotzetan.*

Bergaran, 2013ko martxoaren 1ean.

ESKER ONA

**Jose Antonio
Lazpiur Urkizu**

Bergaran hil zen 2013ko otsailaren 27an, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2013ko martxoaren 1ean.

ESKER ONA

**Pilar
Iparragirre Alberdi**

Evaristo Txintxurreta Leteren alarguna



Bergaran hil zen 2013ko otsailaren 26an, 85 urte zituela.

Familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako
doluminak. Lerro hauen bidez, banaka egin ezin
izanagatik, sendiarengana hitz lasaigarriekin
hurbildu ziren guztiak eta hileta elizkizunera
agertu ziren denak eskertu nahi ditu.*Markesaren alaban
bertsuen kantari
Goikoetxen jaioa
Bergaran ehortzi
goraintzik gure partez
kamioneruari
alkarrekin luzaro
goxo-goxo bizi.*

Bergaran, 2013ko martxoaren 1ean.

ESKER ONA

**Margarita
Arregi Etxebarria**

Luis Unamuno Aristegiren alarguna



Bergaran hil zen 2013ko otsailaren 27an, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2013ko martxoaren 1ean.

ESKER ONA

**Jose Luis
Egaña Ortueta**

2013ko otsailaren 23an hil zen, 73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2013ko martxoaren 1ean.

ESKER ONA

**Francisca
Arabaolaza Inza**

2013ko otsailaren 15ean hil zen, 93 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali
zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.Haren aldeko meza zapatuan izango da, martxoaren 2an,
19:30ean, agustindarren elizan.Bertaratuko zaretenoi, alde aurretik eskerrik asko.
Oñatin, 2013ko martxoaren 1ean.

OROIGARRIA

**Margarita
Arregi Etxebarria**

Eneko Azkarate Goienako langilearen amaginarreba.

Bergaran hil zen 2013ko otsailaren 27an, 80 urte zituela.

Bat egiten dugu
famiaren saminarekin.**goiena**Goiena Komunikazio Taldea.
Debagoienan, 2013ko martxoaren 1ean.

OROIGARRIA

**Jose Luis
Egaña Ortueta**

Mireia Bikuña Goienako langilearen aitaginarreba.

2013ko otsailaren 23an hil zen, 73 urte zituela.

Bat egiten dugu
senideen saminarekin.**goiena**Goiena Komunikazio Taldea.
Debagoienan, 2013ko martxoaren 1ean.



ARRASATE 'Pottola' antzezlan
Txalo taldeak -tarteetan, Ainhoa Garai arrasatearrak- Neil LaBute-k idatzitako antzezlan taularatuko du. Gorka izeneko gizon arrakastatsua Elenarekin, emakume gizen batekin maitemintzen da, eta bi lagunentzako komentario maltzurak jasango ditu. Horren presioa igarriko du eta erabaki bat hartu beharko du. Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30etan.



ARRASATE Denis Jones bakarlariaren kontzertua

Erresuma Batuko musikari berritzailea eta ausarta da Denis Jones. Gitarra jotzeko estilo bereziarekin eta ahots sendoarekin, oso kontzertu pertsonalak egiten ditu. Esperimentatzea gustatzen zaio, sampler eta soinu eta ahots efektu askorekin. Gaur, egubakoitza, Kulturaten, 20:00etan.

ANTZERKIA

ARETXABALETA 'Encantadas'

antzerkia
Virginia Imazen eskutik. Sarrera, 4 euro.
Martxoaren 6an, eguaztena, Zaria aretoan, 19:00etan.

BERGARA 'Bili boli bili' antzezlan
Pantzar taldea. Sarrera, 4 euro
Etzi, domeka, Zabalotegi aretoan, 18:00etan.

BERGARA 'Consumiéndonos'
antzezlan
Oihulari Klown taldearena da. Sarrera, 8 euro.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegi, 22:00etan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

ARRASATE 'Mariposas en el hierro'
dokumentala
Dokumentala emango dute eta, gero, Arantza Urkaregi eta Ainhoa Aznarezekin berriketaldia izango da. Emakume Txokoak antolatuta.
Martxoaren 5a, martitzena, Kulturateko areto nagusian, 19:30etan.

HITZALDIAK

ARRASATE 'Aldamenekoa'
liburuaren gaineko solasaldia
Tene Mujika saria irabazi zuen Ainara Gorostizu kazetariak liburu honekin. Hainbat immigranteren testigantzak batzen ditu liburuak.
Martxoaren 4a, astelehena, Zaria aretoan, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Mugak eta emozioak'
hitzaldia, Nerea Mendizabalen eskutik
Nerea Mendizabal psikopedagoak hitzaldia egingo du.
Martxoaren 4a, astelehena, Kuku Miku elkartearen, 17:30etan.

BERGARA Makrobiotikari buruzko hitzaldia
Jexux Larretxeak *Jateko beste modu bat* hitzaldia egingo du.
Gaur, egubakoitza, Irizar jauregian, 19:00etan.

ARRASATE Mugi txartelaren gaineko informazioa
Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak Mugi sistemaren

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

MARTXOA 01
MARTXOA 07

berri emateko postua jarriko du BAZen. Orduetgia: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

ELGETA Gurasoendako hitzaldia
Anaia-arreben arteko harremana delako hitzaldia izango da. Baita elkartearrekin batera, Maa- la guraso elkarteak antolatuta. Ludoteka zerbitzua egongo da 18:15etik aurrera saioan parte hartzen duten gurasoen seme-alabendako.
Martxoaren 14an, eguena, herri eskolan, 18:30etan.

ERAKUSKETAK

ARETXABALETA 'Emakume komikigileak'
erakusketa
Istoriotxo, komiki eta tebeoen 30 egile emakumezkoen lanak ikusgai daude: astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara; domeketan eta jaiegunetan, itxita.
Zabalik gaur, egubakoitza, Arkupen, 11:00etatik aurrera.

MUSIKA

BERGARA DJ jaialdia Zabalotegin
DJ batek girotutako jaialdia izango da Zabalotegin, gaztetxoendako. Doan.
Bihar, zapatua, Zabalotegin, 18:30ean.

ARETXABALETA On eta Kokein taldeak
On eta Kokein taldeek kontzertua egingo dute.
Hilaren 8an, egubakoitza, Kurtzebarriko kantxan; euria eginez gero, Iturigorri frontoian. 22:00etan.

ARRASATE Arizmendiko Abesbatzen Topaketa
Arizmendi Ikastolak abesbatzen topaketa egingo du hilaren 9an. Amaia antzokian, 17:00etan.

ARRASATE Francis Alun Bell
Portugalgo Francis Alun Bell bakarlari gazteak kontzertua egingo du.
Hilaren 9an, zapatua, Kulturaten, 20:00etan.

ELGETA Emon taldeak disko berria aurkeztuko du
Emon taldeak Konfeti kolore izeneko diskoa aurkeztuko du kon-

zertuan. Hego Euskal Herrian disko horrekin emango duten lehenengo kontzertua izango da. Emanaldian En Tol Sarmiento taldea izango dute lagun.
Zapatuan, hilak 9, Espaloia kafe antzokian, 23:00etan.

ARETXABALETA Drop, Lukas Prest eta Anger taldeak
Hardcore estiloa egiten dute hiru taldeek.
Hilaren 15ean, egubakoitza, Orly tabernan, 22:30etan.

IRTEERAK

ELGETA Mendi irteera Aloñara
Bihar, zapatua, egingo du Kantsatzeke mendi taldeak aurreko zapatuaren iragarritako mendi irteera. Aloña ingurura joango dira.
Bihar, zapatua, Herriko plazatik abiatuko dira, 08:00etan.

OÑATI Atapuerkako aztarnategira irteerara joateko izenematea
Oñatiko XVII. ingurumen jardunaldien barruan, Atapuerkako aztarnategia eta Burgosko Giza Eboluzioaren Museoa bisitatuko

dituzte, martxoaren 9ko eta 10eko aste bukaeran. Plaza mugatuak direnez, izena eman behar da alde aurretik. Horretarako, deitu 943 71 64 04 zenbakira. Irteera, autobus geltokitik.

OÑATI Mendi sailaren mendiko eski-zeharkaldiak

Hasiberriendako, batetik, eta esperientzia badutenendako, bestetik, irteerak antolatu ditu Aloña Mendiko mendi sailak hilaren 9ko eta 10eko aste bukaerarako. Bietarako izenemate epea zabalik dago hilaren 5era, martitzena arte. Lehenengo 15ek lekua ziurtatuta izango dute. Prezioa honakoa da: 50 euro bazkideendako eta 60 besteendako, eta horrek ordaintzen ditu autobusa, zapatuko afaria, gaua eta domekako armosua.

Hasiberriendako, Portalet ingurura irteera antolatu dute, Peyrelun eta Canal Roya mendiak igotzera. Mendiko eskia egiten ikasteko edo teknikak hobetzeko ikastaroak egingo dituzte.

Esperientzia dutenekin, honako irteera egingo dute: Suzon-eko lepotik hasi, Bioux-Artigues eta Ayous-eko lakuetara, Arazures basora eta Peyreget lepora, zapatuan, eta Musalek puntara eta Tena bailarara, domekan. Izenemateak zabalik dago hilaren 5era arte.

KIROLA

ELGETA Haurren futbito partiduak
17:00etan, Karamarroak-Txapel-dunak; 18:00etan, Superneskak-Kontuz Neskak; eta 19:00etan, Xelebreak-Lamoskagau.
Gaur, egubakoitza, Udal pilotalekuan, 17:00etan.


OSPAKIZUNAK

ELGETA Ibiltarien jaia
Euskal Herriko iraupen luzeko ibilaldien 11. zirkuitua, 2012ko Ibiltarien Jaia, martxoaren 10ean egingo dute Elgetan, eta bazkarrirako izenemate epea zabalik dago hilaren 8ra arte. Mendi irteera, Espaloia antzokian bazkaria eta diploma banaketa egingo dituzte. Prezioa 24 euro da. Argibideak, www.zirkuitua.com atarian.
Ospakizuna hilaren 10ean, domekan izango da.



BERGARA Ganbara abesbatzaren kontzertua
Oñatiko Ganbara abesbatzak kontzertu korala egingo du Santa Marina elizan. Aitor Biainek

zuzenduko ditu. Bi zati izango ditu kontzertuak, eta denetara, hamabost kantu abestuko dituzte. Bihar, zapatua, Santa Marina elizan, 20:00etan.



GOIENA

ELGETA 'Euskararen espektakulue'-k, urte bete

Euskararen espektakulue ikuskizunak urte bete egin du. Bada, egubakoitzean, martxoak 1, Espaloia Kafe Antzokian egingo du berau Oihan Vegak, sortzaile eta antzezleak. Euskararen inguruko hausnarketa umoretsua da, bakarrikzeta bitartez. Gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean.

BERTSOLARITZA**ARETXABALETA Jon Maia eta Aitor Sarriegirekin bertso afaria**

Loramendi elkarteak antolatuta-ko bertso-afaria. Sarrerak salgai daude honako prezioetan: Lora-mendiko bazkideentzako, 15 euro-tan, eta 18 eurotan, bazkide ez direnentzako.

Gaur, egubakoitza, Uratz-Alde elkarte-
an, 21:00etan.

IKASTAROK**ANTZUOLA Antisorgailu naturalak eta zoru pelbikoa**

Gazteei zuzendutako honako ikastaroak emango dituzte: hilaren 5ean, martitzena, antisorgailu naturalen gainekoa; eta hilaren 6an, eguaztena, zoru pelbikoa zaintzekoa.

Gaztetxean, 18:30ean.

ANTZUOLA Erretiratuendako Internet ikastaroa

Erretiratuen elkarteko bazkideek Internet erabiltzen ikasi ahal izango dute hilaren 11tik 15era. Izenematea, erretiratuen egoitzan, hilaren 6a baino lehenago.

BERGARA Elikagaien manipulatzailen karneta, langileendako

Elikagaien manipulatzailen karneta ateratzeko ikastaroa izango da martxoaren 11n eta 12an, 16:00etatik 19:30era. Hobetuz-ek osorik finantzaturako ikastaroa da, eta langileendako lekua badago oraindik. Izenematea zabalik dago 943 76 93 94 telefonora deituta edo info@bizikasi.com helbidera mezua bidalita. Harremanetarako pertsona Miren Errasti da. Miguel Altuna Institutuan.

BERGARA Bizikleta konpondu eta mantendu

Bizikleta konpontzen eta mantenu-lanak egiteko ikastaro aurreratu antolatuta du Bizikasik martxoaren 11tik 14ra bitarteko eperako, 18:30etik 20:30era. Matrikula 20 euro da. Izenematea zabalik dago Bizikasin, 943 76 93 94 telefonora deituta edo info@bizikasi.com helbidera mezua bidalita. Harremanetarako pertsona Miren Errasti da. Miguel Altuna Institutuan.

BERGARA Poltsikoko telefonoko GPSa eta ordenagailua

Poltsikoko telefonoko GPSa eta ordenagailua izeneko ikastaroa emango du Bizikasik hilaren 18tik 21era bitartean, 18:30etik 20:30era. Izenematea zabalik dago Bizikasin, 943 76 93 94 telefonora deituta edo info@bizikasi.com helbidera mezua bidalita. Harremanetarako pertsona Miren Errasti da. Miguel Altuna Institutuan.

ZINEMA**ARRASATE Laburbirako filmak ikusteko aukera**

Hilaren 12an, martitzena, izango da Arrasaten Laburbira film laburren zirkuituko filmak ikusteko aukera. Zortzi film labur proiektatuko dira, ordu eta laurden inguruko saioetan, eta zenbait herritan ikus-entzunezkoen zuzendariekin solasean aritzeko aukera egongo da. Honako filmak emango dituzte: *Beerbug* (Ander Mendia), *Berriro igo nauzu* (Carlos Rodriguez), *Desentxufatuak* (Bernues anaiak), *Deus et machina* (Koldo Almandoz), *Elkartea* (Kote Camacho), *Hamaiketakoa* (Telmo Esnal), *Oinaze egoitzak* (Oihan Amezua, Karlos Ibarbia, Netzer Bereziartua, Asier Susaeta) eta *Tortila* (Iñigo Lopez). Hilaren 12an, Kulturaten, 19:00etan.

BESTELAKOAK**ARETXABALETA Martxoak 8**

Martxoaren 8ko agerraldia egingo dute, herriko emakume taldeak deituta. Herriko plazan, 18:00etan.

ARRASATE Emakumearen Eguneko kale-agerraldia

Martxoaren 8a dela ospatzeko, Feminismoaren bidetik, emakumeak libre! lelopeko agerraldia deitu dute. Hilaren 8an, egubakoitza, Seber Altube plazan, 19:00etan.

OÑATI Odol-ateratzea

Odola eman gura duten guztiek horretarako aukera dute egubakoitzean. Martxoaren 8an, egubakoitza, 17:30etik 19:30era.

ZINEMA**ARRASATE****AMAJA ANTZOKIA**

Amor
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Blackie eta Kanuto
Zapatua: 17:00.

Tabu (Jatorrizko bertsoa, azpiti.)
Martitzena: 20:30.

BERGARA**ZABALOTEGI**

Young adult
Eguaztena: 20:00.

OÑATI**KULTUR ETXEA**

La cueva de los sueños olvidados
Egubakoitza: 19:30.

Blackie & Kanuto (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 17:00.

El vuelo
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

ARETXABALETA**ARKUPE**

Lincoln
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

iRompe Ralph!
Zapatua eta domeka: 17:00.

De tu ventana a la mía
Eguena: 19:00.

EIBAR**COLISEO 1**

La noche más oscura
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:15, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

COLISEO 2

Hitchcock
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

La trama
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ**GORBEIA**

La vida de Pi
Zapatua eta domeka: 15:45.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

Lincoln
Egubakoitza domekara: 18:45.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

Django desencadenado
Egubakoitza domekara: 21:45.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Blancanieves
Zapatua eta domeka: 15:30.

iRompe Ralph!
Egubakoitza domekara: 17:30.

Argo
Egubakoitza domekara: 19:40.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

Los miserables
Egubakoitza domekara: 22:00.
Astelehenetik eguenera: 20:50.

Hansel y Gretel
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Egubakoitza eta domeka: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 20:30.

Heramosas criaturas
Egubakoitza: 18:30, 21:15.
Zapatua: 15:45, 18:30, 21:15, 00:10.
Domeka: 15:45, 18:30, 21:15.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 21:15.

El origen de los guardianes
Zapatua eta domeka: 16:00.

La jungla: un buen día para morir
Egubakoitza eta domeka: 18:10, 20:10, 22:30.
Zapatua: 18:10, 22:30, 00:30.
Astelehenetik eguenera: 19:30, 21:30.

Si fuera fácil
Domeka: 16:30.

Hansel y Gretel (3D)
Egubakoitza: 17:30, 19:30, 21:30.
Zapatua eta domeka: 19:30, 21:30, 23:30.
Astelehenetik eguenera: 19:30, 21:30.

Heramosas criaturas
Egubakoitza: 18:30, 21:15.
Zapatua: 15:45, 18:30, 21:15, 00:10.
Domeka: 15:45, 18:30, 21:15.
Astelehenetik eguenera: 18:30, 21:15.

El alucinante mundo de Norman
Zapatua eta domeka: 15:40.

Mamá
Egubakoitza eta domeka: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua: 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
Astelehenetik eguenera: 21:30.

FLORIDA

Hansel y Gretel
Egubakoitza: 17:00, 20:30, 22:30.
Zapatua: 12:00, 17:00, 20:30, 22:30, 00:30.
Domeka: 12:00, 17:00, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Un plan perfecto
Egubakoitza domekara: 18:45.
Astelehenetik eguenera: 22:30.

Un asunto real
Egubakoitza eguenera: 17:20, 22:00.

El cuarteto
Egubakoitza eguenera: 20:10.

Siete psicópatas
Egubakoitza: 17:25, 22:30.
Zapatua: 17:25, 22:30, 00:30.
Domekatik eguenera: 17:25, 22:30.

Si fuera fácil
Egubakoitza eguenera: 19:45.

Argo
Egubakoitza eguenera: 17:15, 22:30.

Django desencadenado
Egubakoitza eguenera: 19:30.

El lado bueno de las cosas
Egubakoitza eguenera: 17:15, 22:30.

Blackie eta Kanuto
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:00.

Blue Valentine
Egubakoitza eguenera: 18:20, 20:25, 22:30.

Heramosas criaturas
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:40, 21:10.

iRompe Ralph!
Egubakoitza domekara: 15:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

La vida de Pi
Egubakoitza domekara: 15:30.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

La extraña vida de Timothy Green
Egubakoitza domekara: 15:45, 17:50.

Siete psicópatas
Egubakoitza domekara: 20:00.
Astelehenetik eguenera: 21:30.

Si fuera fácil
Egubakoitza domekara: 22:15.
Astelehenetik eguenera: 21:30.

El origen de los guardianes
Egubakoitza domekara: 15:30.

Blackie & Kanuto
Egubakoitza domekara: 16:00, 17:45.

Los miserables
Egubakoitza domekara: 23:45.
Astelehenetik eguenera: 18:30.

El alucinante mundo de Norman
Egubakoitza domekara: 15:30.

KRITIKA**SEARCHING FOR SUGAR MAN**

★★★★★

Zuzendaria: Malik Bendjelloul.

Herrialdea: Suedia-Erresuma Batua.

Urtea: 2012.

Musika: Sixto Rodríguez.

Iraupena: 86 minutu.

**Gezurra dirudi!**

Askotan bereizten dugu zineman fikzioa eta dokumentala. Lehenengoan asmatutako gauzak agertzen direla suposatzen dugu, eta bigarreanean, benetan gertatutako gauzak. Ideia hori orokorrean ondo bideratua egon daiteke, baina kontuan izan behar dugu dokumentaletan ere aukeratu egiten dela nondik joan, zer erakutsi eta zer ez. Hau dela eta, bata eta bestearen arteko mugak ez dira hain erraz zehazten. Horren adibide, *Searching for Sugar Man* daukagu. Kontatzen zaigun istorioak, inork kontrakoa erakusten ez badu, fikziozko istorio bat dirudi, benetan harrigarria da, baina gertatutako

istorioa da. Eta horrez gain, istorioa azaltzerakoan fikziozko teknikekin jokatzen da: ez zaigu hasieran istorio guztia azaltzen, gero zehaztasun handiz dena argitzeko. Kasu honetan suspentsearen teknikarekin jokatzen da. Hitchcock-ek behin baino gehiagotan istorio bat kontatu digu, horren erdian ikuspuntua zeharo aldatzen duten datu eta egoera berriak sartuz (*Vertigo*, *Psicosis*). Gaur aipatzen dugun filmean antzeko zerbait gertatzen da.

Searching for Sugar Man-ek Sixto Rodríguez-en istorioa kontatzen digu. Rodríguez 70eko hamarkadan Detroiten bizi zen kantautorearen da. Ameriketako Estatu Batuetan ateratako bi diskok ez zuten

arrakastarik lortu. Alderantziz, Hego Afrikan lortutako arrakasta izugarria izan zen. Apartheideko garaia zen, gobernua informazio eta komunikabide guztiak kontrolatzen zituen, eta horren kontra zegoen jendearen mugimenduak egoten ziren. Eta horien artean bazeuden Rodríguez-en kanta bereganatu zituztenak inposaketaren aurka borrokatzeak. Inork ez zekien kantaria nor zer, nondik etorria zen eta berarekin zer gertatu zen. Horri buruz kondaira asko zabaldu ziren eta filmean horren egia argitzen zaigu, fikzioaren teknikekin dokumental original bat eginez.

ANTONIO ZABALA



goiena

2013-03-01

BUKATZEKO

Txirriren 'alter ego'-a Bergaran maisu

- ▶ Fernando Ruiz donostiarrak ordezkapen lanak egiten dihardu Bergarako San Martin ikastetxean
- ▶ 10 urtez Txirri Juniorren papera egiten ibili ostean, urtarrilaren 6a ezkeren Txirri adinez nagusia da


UBANE MADERA | BERGARA

Pailazoen berezko duten makillaje barik eta irakasleek berezko duten amantal barik. Baina ume artean perrexila bere saltsan moduan aurkitu dugu Fernando Ruiz (Donostia, 1980) Bergarako San Martin ikastetxean. Izan ere, horixe da Ruizen berezko espazio naturala: umez inguratuta ibiltzea eta bizi izatea.

Asteko zazpi egunak ematen ditu modu horretan: aste barruan irakasle modura (Haur Hezkuntza) eta asteburuetan Txirri pailazoaren paperean sartuta: "10 urte daramatzat pailazogintzan. Pailazo lan egiten dugu asteburutan, gehienbat, udan edo Gabonetako oporretan. Beraz, irakasle lanetan ez nagoenean, normalean, pailazo jantzi eta hortxe aritzen naiz. Gehienetan ez dut inongo arazorik biak uztartzeko", kontatu du Ruizek.

Debagoiena, bere "destinoa"

Bada, bere irakasle lanek ekarri dute Txirri pailazoaren *alter ego*-a den Fernando Ruiz gure bailara honetara estreinako aldiz: "Urtarrilaren erdialdean hasi nintzen San Martin ikastetxean, ordezkapen bat egiten. Oso-oso gustura nabil hemengo jendea-



Fernando Ruiz, San Martin ikastetxeko ikasgelan. | UBANE MADERA



Ruiz, Txirri moduan. | RUIZ

rekin, hemengo haurrekin eta hemengo giroarekin. Bailara honetara natorren lehen aldia da. Baina orain, Txirri moduan ere banator: bat-batean, badirudi bailara hau dela nire destinoa".

Hortxe, bada, Txirrik utzita-ko primiziatxoa: apirilean Oñatin izango ditugu Txirri, Mirri eta Txirribiton pailazo ezagunak: "Ezin dizuet konfirmatu ze datatan, ze oraindik itxi barik baitago, baina estreinaldia zuen bailaran egingo dugu".

Gure ibarreko saioa estreinaldia izango dela adierazi du bai Fernando Ruizek; "izan ere, Junior abizena alde batera utzi dut urtarrilaren 6tik aurrera. Ofizialki Txirri naiz orain".

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



Geurea Ikurrina

Madrilgo Gobernuak EAEEn eta Nafarroan dauzkan delegatuek, Carlos Urkijok eta Albak, etengabeko jazarpena abiatu zuten udal abertzaleen aurka, 2011-ko udal eta foru-hauteskundeak izan zirenetik. Udal balkoietan bandera espainola jartzeko agindua delitu penalaren mehatxuz lagunduta, Nafarroako bandera gainontzeko herrialdeetatik kentzeko agindua, Euskal Presoen Euskal Herri-ratzea eskatzen duen banderola udal-fatxadetatik kentzeko agindua... Astero asmatzen dute herri honen identitatearen ikurren kontrako erasoren bat. Etengabea da.

Orain artean udalek imaginazioz eta ausardiarekin erantzun diote erasoari. Beraien jokoa sartu gabe, geureari eutsiz eta herri honek independentziarako bidean daukan bide-orria ahaztu gabe.

Nahiko lukete ekintza-errepresioa-ekintza zurrumbiloan murgilduko bagina. Baina iparra garbi daukagu; baita herritarrok ere. Bergaran ikurrinaren omenaldiari herritarrek emandako babesak ikusita, sintonian ari gara udalak eta herritarrek.

Horixe da bidea; gainontzeko erasoei ere modu bertsuan erantzun beharko diegu. Elkarrekin eta ausardiarekin.


Zorionak udalei eta herritarrei



Nafarroa Etorbidea 19, 6Z
20500 Arrasate
Gipuzkoa

(+34) 635 725 940

info@cinsystems.es



www.cinsystems.es

Herrialde honetako enpresa handien arrakastaren eragile izan diren zuzendariak zure lantaldean izan gura dituzu?

Balia zaitez zure proiektuetan azken aurrerapenez, automatizazioez, eraginkortasunaren hobekuntzez... automozio eta aeronautika sektoreetan.

